ESTEBAN URKIAGA *LAUAXETA*

*Ludi honen bestaldez*

Olerkiak

**ESTEBAN URKIAGA *LAUAXETA***

# *Ludi honen bestaldez*
## Olerkiak

*Sarrera eta edizioa: Antton Mari Aldekoa-Otalora Zamalloa; Adolfo Arejita Oñarte-etxebarria; Xabier Boveda Garai; Alberto Errazti Igartua; Sebastian Gartzia Trujillo*

LABAYRU IKASTEGIA
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA
BILBAO
2013

Argitalpen honen moldaketak eta prestakuntzak Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza izan dau.

© *Irudiena:* Xabier Egaña
© *Argitaraldi honena:* Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa
Colon de Larreategi, 14-2. esk.
48001 BILBAO
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

Fotokonposizioa: Ikur, S. A.
Silutegia: Tecnigraf, S.L.L.

Lege Gordailua: BI-135-2013
ISBN: 978-84-92599-40-0

Lan hau erreproduzitu, banatu, jendaurreratu edo eraldatzeko, titularren baimena behar da nahitaez, Legeak ezarritako salbuespen kasuetan izan ezik. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu behar baduzu, jarri harremanetan CEDROrekin (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

# AURKIBIDEA


Sarrera, *Antton Mari Aldekoa-Otalora; Adolfo Arejita; Xabier Boveda; Alberto Errazti; Sebastian Gartzia* ..... 11

Esteban Urkiaga, Lauaxeta bakan eta anitz, *Jon Kortazar* ..... 31

*Bide barriak* ..... 37

- Hitzaurrea *Bide barrijak*, Aitzol'dar J. ..... 39
- Gaixorik nago ..... 47
- Neguko gaua ..... 49
- Gurutze aldera ..... 52
- Arotzak ..... 53
- Itauna ..... 55
- Erantzuna ..... 56
- Miren Neskutsaren baseleiza ..... 57
- Jadetsi ezina ..... 60
- Maho gorria ..... 61
- Abaoa ..... 62
- Gazte gaixoa ..... 63
- Iluntzeko izarra ..... 66
- Gaueko irrintzia ..... 67
- Iturri-negarra ..... 69
- Maitale kutuna ..... 70
- Ituna ..... 74
- Txakurtxua ..... 75
- Ezkontza-eguna ..... 77
- Ludi ameskorra ..... 78
- Gogoaren eresia ..... 79
- Mosua ..... 81
- Lied ..... 82

Bihotzean ..... 83
Jaungoikotia ..... 84
Lili-negarra ..... 87
Liparra ..... 89
Seinai abestu ..... 90
Betikorra ..... 94
Abestia ..... 95
Mendietara ..... 97
Bere hilobian ..... 99
Jaunagan atsedena ..... 101
Artzain ona ..... 105
Zauria ..... 107
Mireni otoia ..... 108
Sehaskakoa ..... 110
Artxanda ganean ..... 112
Goizaldeko edurra ..... 116
Ezilkortasuna ..... 118
Itzarrik ..... 122
Itsasora! ..... 125
Oharra ..... 128

*Arrats beheran* ..... 131
Aurre hitza ..... 135
Neskatxu gorrizka bati ..... 137
Zelaietakoa ..... 138
Ehiztari haundia ..... 140
Ezkontza goiza ..... 142
Bertso zaharrak ..... 144
Etxe hori! ..... 145
Oraingo maitariak ..... 146
Burtzaina ..... 147
Espetxekoarena ..... 149
Sévresko murkoa ..... 151
Izlapurra ..... 152
Kanta arina ..... 154
Itsastar gazte bati ..... 155
Narkis ..... 156
Goizaldeko otoia ..... 158
Kinua ..... 159
Artzainena ..... 161

Abeslari bati ..... 163
Jostailua ..... 164
Espainiartxu batena ..... 165
Mendigoizalearena ..... 167
Mutxurdina ..... 169
Otsokorena ..... 171
Hondartza ..... 173
Itsas ondokoena ..... 174
Ardoa eta atsoa ..... 176
Udabarriko autorkuntza ..... 178
Zelaian ..... 180
Maiatzeko gurutzea ..... 181
Siniste bakoarena ..... 183
Hiru zaldunak ..... 184
Bolutxu zuria ..... 186
Langile eraildu bati ..... 188
Artzain baten heriotzean ..... 191
Etxeko alabea ..... 193
Maiatzeko kantea ..... 195
Txo mozkortua ..... 197
Txiriboginaren alabea ..... 198
Begien omenez ..... 200
Amaiur gaztelu baltza ..... 202

*Espetxekoak* ..... 205
Azken oihua ..... 207
Agur, Euskadi! ..... 210
Eguna beherantz doa ..... 212
Atetan nago ..... 214
Bihotz donea ..... 216

Hiztegia ..... 219

# SARRERA

> Eta olerkariaren bularreko zauriek hondakin kriseilu lez argituko dituzte arrasberak eta bide berriak (Joseba Sarrionandia).

## 1. Testuen zailtasuna

Esteban Urkiaga "Lauaxetaren" olerkiak, argitaratu (1931) eta berehala, zailak zirelako sona zabaldu zen euskaltzaleen artean. Iritzi hori bultzatu zutenek (nortzuek eta Larrekok, Barrensorok…!) zaku berean sartu zituzten Lauaxetaren, Lizardiren eta Orixeren olerkiak. Hala eta guztiz ere, Lauaxeta izan zen kritikarik nabarmenenak bereganatu zituena (polemika horretan liburuaren izenburua, *Bide Barrijak*, alegia, ez omen zen hoben edo probokaziorik gabea)[1].

---

[1] IRIGARAY, F. 'Larreko', "Bide berriak", *Argia*, 32.01.17: "Uste bai nuen euskaraz banekiala; ¡ene biozminaren handia, euskara-lan berri oriek ezin ongi aditu ditudalako!". LAUAXETA, "Idazlientzat", *Euzkadi*, 32.01.17: "Bere kezka agertu darua 'Larreko' idazle-maxubak. Beste batek idatziko baleuz aren lerruak, ardurarik ez. Baña ¿Larreko-ren itzak auzartu biar. Euzkera ulertu ezin?". AGIRRE, T. 'Barrensoro', "Bide barrijak", *Euzkadi*, 32.01.14 eta "Ondo idazteko bidean", *Euzkadi*, 32.01.22; EUSKALDUN BATEK, "Bide berriak?", *Argia*, 32.02.07; LAUAXETA, "Eztabaida", *Euzkadi*, 32.02.09, beste gauza batzuen artean: "'Larreko' idazle askoren maxubarena bata. 'Larreko' jaunak berari yagokon erara, argi ta maitekor idatzi eban. Eskerrak egiten dautsodaz egijaren aldetik dabillalako". LIZARDI, "Bide berriak? Bide guziak?", *El Día*, 32.02.09; IRIGARAY, F, 'Larreko', "Berriz ere bide berriaz", *Euzkadi*, 32.02.14; LAUAXETA, "Barritzalliak", *Euzkadi*, 32.02.21; ORIXE, "La crítica menuda", *Euzkadi*, 32.02.23; AGIRRE, T. 'Barrensoro', *Por los nuevos caminos… y también por los antiguos*", *Euzkadi*, 32.02.24; LIZARDI, "Bide ta

Kritika horiek ez ziren soilik olerkien berritasun eta bihurritasunaren haritik etorri, Lauaxetak 1930ean eta Lizardik 1931n "Euskal Olerti Eguneko" lehen sariak irabazi izanaren kariaz ere heldu ziren. Ulergaitzak izateaz gain, sarituak ere bai; larregi, omen: "Aldi onetan azaltzen diran olerki batzuk behintzat ulerkaitzak dira euskaldunontzat… Alaz ere, oiek aipatu, ta oiek saritu"[2].

Kritikariei ez zitzaien motiborik falta Lauaxetaren olerkiak zailak zirela esateko[3]. 'Olerkariak' deituriko idazle berriek –Lauaxetak, Orixek, Lizardik[4]– euskarazko testuak gaztelaniazko itzulpenarekin argitaratu (behar izan) zituzten eta irakurleek euskarazko eta gaztelaniazko testuak batera argitaratze hori olerki-testuaren zailtasunaren frogatzat interpretatu zuten[5]; Bestalde, idazleek eurek onartzen

---

bide-ondo", *Euzkadi*, 32.02.25; AGIRRE, T. 'Barrensoro', "Un pleito literario", *Euzkadi*, 32.02.28; EUSKALDUN BATEK, "¿Bide berriak?", *Argia*, 32.02.28; IRIGARAY, F. 'Larreko', "Bide berriaz itz bat orañik", *Euzkadi*, 32.03.10; "Arrigarri", *Argia*, 32.04.10; MITARGA, "Eztabaidakeri barik… ekin", *Euzkadi*, 32.04.14.

[2] EUSKALDUN BATEK, "Bide berriak?", o. c.

[3] KORTAZAR, J., "Sarrera", (Lauaxetaren) *Olerkiak*, Erein, Donostia, 1985, 28. or.: "Lauaxetaren estiloa zaila da, ez dago hor dudarik"

[4] LETE, X., "Aitzin-solasa", in *Olerkiak*, Erein, Donostia, 1983, 9. or.: "Lehen argitalpena egin zitzaiolarik, Lizardik horrela nahi izan zuen: gaztelan itzulpenez argitaratzea. Jokabide berdiña Orixerena bere *Barne-muinetan* argitaratu ziotenean. Beraz, haiek horrela nahi izan bazuten, beren arrazoiak izango zituzten: beren garaieko euskaldunen jakite-mailaz (euskara aldetik, alegia) ez ziren agian asko fidatuko; edo, behar bada, eta hau litzateke agian arrazoin funtsezkoa, batez ere Lizardiren kasoan, erdal itzulpenak beren euskal poesia zentzuz eta tajuz osatu eta borobildu egiten zuela irudituko zitzaien". CID, C. in *Revista de Filología Románica*, 2007, anejo V, 265-284. or. "Como contraposición a los poetas continuadores de las formas tradicionales, nace *Olerkariak* 'Poetas', movimiento literario confesional, de entre cuyos miembros destacan Orixe, Lizardi, Lauaxeta y Zaitegui, con luces y sombras. Luces: con Lauaxeta y Lizardi la poesía se separa del bertsolarismo, es verdadera literatura, y se hace culta. Sombras: son difusores de la neolengua aranista, artificial, hecha con escuadra, cartabón y grandes dosis de imaginación".

[5] EUSKALDUN BATEK, "Bide berriak?", o. c.: "Erderatuak diralako, zenbait erderatik ezagutzen dira, baña euskeraz bakarrik azaldukoetatik ulertu gabe geldituko giñanak badira".

zuten beren testuak zailak zirela, horrelakoxeak nahita[6] (*a touch of class*, agian). Arrazoia? Euskara "izkuntza larrekoa, / … noranaikoa: yakite-egoek igoa; soiña zaar, berri gogoa; azal orizta, muin betirakoa" nahi zuten eta horrek ez soilik gai eta esaera berriak, testu *zailak* ere eskatzen omen zituen. Helburua ona izan arren, baliteke idazle gazteok balaztatzeko orduan aurrera egin izana, noizbait bederen (Lauaxetak, batik bat?[7]).

Idazle berrion testuak *zailak* zirelako sonak luze iraun zuen. Lauaxetarenak, batik bat. Gaur eguneraino bertaraino ere bai. Orain dela urte gutxi, euskal idazle ezagun batek adierazi omen zuen, Lauaxetaren olerkiak lehenengoz irakurri zituenean, polonieraz idatzita zeudela iruditu zitzaiola. *Boutade* handia, egia txikia bere baitan duena. Orekatuagoa, gure ustez, Koldo Mitxelenaren iritzia: "En aquella época (Euskal Pizkundekoa, alegia) coinciden una serie de literatos extraordinarios: además de Orixe y Lizardi, está Lauaxeta, de lenguaje duro, aunque no tan difícil como dice Bernardo Atxaga"[8].

---

[6] LAUAXETA, "Aurre-itza", in *Arrats-beran*: "Neurez betirarte ixilduko nintzan, barruko ixurpen oneintzat ezpaitago azal ederrik. Euzkeraz batez be! Erabilijak ixan diran izkuntzak bost jarrai-bide erakutsi dagizkegubez, baña ele onen iruliak gerau gara". Lizardiren euskararekiko erabileraz, CID, C., o. c.: "Aspira a un dialecto central literario: de hecho, introduce en el guipuzcoano elementos labortanos. Al euskera auténtico, real, le incorporó neologismos –si bien en menos cantidad que sus correligionarios–, así como creaciones propias por derivación y composición. Como explica Villasante (p. 345), Lizardi somete el euskera a un 'trabajo improbo, hasta hacerle servir de cauce apropiado de sus pensamientos de hombre culto".

[7] Lizardik Orixeri idatzitako gutuna 1930eko orrilaren 26an: "'Lauaxeta'ren 'Maitale Kutuna' delako ori irakurri det. Olerki ederra da, egia, baña nere gustorako ederrago zurea. Neurtitz-biguntasunez, edo nik al-dakit, ark ez nau betetzen zearo. Izketa luzea ta zalantza larria izan zutela badakit, zureari ala besteari, zeñi eman. Eta azkenik, beren ustez gaia 'Lauaxeta'renak olerki-batzaldi baterako egokiago dula, zurea bezin ulerkaitza eztala (ulerkaitz-askia dalarik ere), 'rima' osoagokoa dala ta abarrengatik esan bezela epaitu dute".

[8] MITXELENA, K. in IBARZABAL, E., *Koldo Mitxelena*, Erein, Madrid, 1977, 57. or.

Ez da zail asmatzen Lauaxetaren olerkiei zailtasuna –'tinkotasuna' eta 'iluntasuna' Barrensororen hitzetan[9]– nondik datorkien:

– Olerki-gaiak *berriak* ziren: "*Bide-Barrijak* baderitxoe, ezta izkuntzagaitik, gayagaitik baño. Orain arte erabilli eztiran gayak direlako neure liburuban, ixen ori jarri neban"[10].
– Olerki-esaera ere *berria* zen: "Gomutan dot –idatzi zuen Lauaxetak– España'ko literatura txirua zan aldijetan, zer jazo zan. Granada eta Fray Luis de Leon idazten hasi ziranetan, erdera motza zan, landu-eza. Lateraz jakin bai, idazle oneik, eta bide-barrijetatik ari ziran. Beste batzuk ots-atzetik. Ikera, arritu baitziran aren auzarkuntzagaz. Erdera ez, latera dozube idazkera hori"[11].
– Eta olerkiak ezohiko irudi, sinbolo edo metaforaz hornituak agertzen ziren: "jokera poetikoan aurkitu behar zaio Lauaxetaren olerkien zailtasun arrazoia"[12].

Horrez gain Lauaxetak, artean baturik ez baitzegoen, *bizkaieraz* idatzi zituen olerkiak[13], *hitanoan* sarritan, baita inon –inoiz ere?–

---

[9] AGIRRE, T., Barrensoro, "Bide barrijak", o. c.: "Eztakit gaizki-idurian nagon. Baña gaurko euzkal olerkarien morka eder batek (ala nai duelarik) beren burua ixtura estuetan loturik ego-motz dabiltzalakuan nago. Alde guzietarik tinkotasuna jarionairik dabiltz olerkari oik. Ederra da tinkotasuna idazkeran. Baña izaera antzeztu bearra degu. Izaerak zugaitzak abarrak zearo iñausirik soil-soil utziko ba'lituzke… bizi-itxura kenduko lioke adaskari. Goitik-bera kimu guziak morroztuki itxus litzake zugaitz lerdena. Idazkeran ere oparotasun guziak morrozturik oldozkunak soil-soil agernai ba'dituzute, indarge, bizigabe, kordegabe lotuko dezute idaz-soina. Ar bitza bildurgabe euskerak era guzietako lorekeri ta oparotasunak. Titi-antzu eztazagun, arren, [a]gertarazi. Omero gerkarra leengo olerkaritzat geunkan. Bere poematan geiegizkoak itzez-itz morrozten asi ezkero, a ze iñausketa itzala!"; ikus *Euzkadi*, 32.01.22 ere

[10] LAUAXETA, "Eztabaida", o. c.: "Bide zarrak ezaututen dabezan orreik, ixilik dagoz edo. Ganera neure idaztijetzazkua oker dago".

[11] LAUAXETA, "Idazlientzat", *Euzkadi*, 32.01.17.

[12] KORTAZAR, J., "Sarrera", o., c., 28-29. or.:"(olerkien bidez) beste mundua adierazi nahi zuen Lauaxetak. Ezin zuen horrelakorik egin 'Beste munduko hizkera' esku artean izan gabe".

[13] LIZARDI, "Bide berriak? Bide guztiak?", *El Día*, 32.02.09: "Bai-baitirudi 'Lauaxeta'ri auxe adierazi nai diozula: 'I, batetik berrizale, bestetik bizkaitar?... Utikan'. Ta au, zeran errez-zalea izanda ere, ez dezu zillegi".

erabiliak izan ez ziren *aditz trinko ugariz* ere. Horrezaz guztiaz gain, *hainbat* jatorritako hitz asko eta garaiko *neologismo* ugari erabili zituen, baita *morfologia berritzailearen forma ezezagunak* ere, eta, izurra izurtuz, Lauaxetak *herri-fonetismoak* erruz baliatu zituen bizkaiera beste euskalkietatik bereizteko amoz.

## 2. Atxikimendu kontrajarriak

Lauaxetak elkarri kontrajarrita zeuden fidelitate larregi zaindu nahi izan zituen literatur lanetan eta horrek ez zion mesederik egin idazkien ulergarritasunari. Alderantziz. Jarraian Lauaxetaren hiru fidelitate nagusiok aipatuko ditugu.

2.1. *Jesuiten eskola*. Lauaxeta *jesuiten euskal eskolakoa* izan zen. Jesuiten artean, 1920ko hamarkadan, euskal akademia sortu zen Oñan. Akademia honen abaroan euskararen eta euskal kulturaren inguruan jarrera zehatz bat gauzatu zen, aita Inazio Errandonearen eta aita Jose Maria Estefaniaren gidaritzapean[14]. Lehenarengandik klasizismoa eta bigarrenarengandik modernismoa bereganatu zituzten, besteak beste, Nikolas Ormaetxea 'Orixe'k –Euskal Akademiaren lehen buruak–, Jokin Zaitegik, Andima Ibiñagabeitiak, Esteban Urkiagak, Plazido Mujikak, Frantzisko Sarobek, Patxi eta Felix Korta anaiek, Erramun Argaratek, Luis Sagastumek, Joxe eta Iñaki Goenaga anaiek, Gilen Larrañagak…

Jesuiten eskolakoek "euskararen etorkizuna kultura *landua*ren bideetan jarri (nahi izan) zuten", kultura klasikoaren eta Europako kultura modernoaren xendran, hain zuzen. Haien eskolakoek,

a) *goi mailako edukia* eta *idazkera* hautatu zituzten literatur testuetarako (Zaitegik, Platon eta Sopokel euskaratu zituen "eladeratik", Ibiñagabeitiak Bergili "lateratik", I. Goenagak Schiller-en Gilen Tell alemanetik eta E. Basarazek, hots, E. Urkiagak, Dante Alighieri, Johann Wolfgang von Goethe, Victor Hugo, Paul Verlaine, Charles

[14] Aita Errandonea euskalduna zen (Bidasoako Berakoa), Aita Estefania, Bilboko euskaldun berria.

Baudelaire, Giosuè Carducci (Unamunok ere itzuli zuena), Sully-Prudhomme, Maurice Maeterlinck, Theodore de Bonville, Alfred Tennyson, Guido Manzzoni, Francis Jammes, Jacint Verdaguer, Maragall…; eta

b) kriptiko samarra zen eta modan zegoen *hizkera poetikoa* erabiltzen zuten: modernismoa, sinbolismoa, parnasianismoa…[15]. "Lauaxetaren deskripzioak oso deskripzio zinematografikoak dira. Planoak ezer esan gabe aldatzen direnekoak. Narraziotik elkarrizketara igarotzea, eta espazio eta denbora aldaketak ugariak dira olerkigintza honetan. Elipsia ere askotan agertuko zaigu"[16].

Jesuiten eskolako jarraitzaile *kultu*en artean, ez zuten lekurik ez herri-hizkeraren ezaugarriek, fonetismoek alegia, ezta euskalkien arteko lehiak ere. Irakurri besterik ez dugu Bilboko *Jesus Biotzaren Deya*n Zaitegik edo Ibiñagabeitiak argitaratutako artikuluak. Bizkaieraz daude, baina ez dute tokian tokiko fonetismorik erabiltzen, ezta neologismo edota aditz trinko nabarmenik ere (bakan batzuk agertzen bazaizkigu ere, dotorezia eta musikaltasuna baitakartzate behin baino gehiagotan).

Ezaugarri berberak topa ditzakegu E. Basaraz S. J. gazteak *Jesusen Biotzaren Deya*n (1925-1929) eta *Jaungoiko Zale*n (1928-1930) argitaratutako olerkietan. Testu horietan Lauaxetak fonetismo gutxiago erabili zituen: gogoa, otoia, ortzia, izan, bizia, jantzia, garbia…, geroagoko izkribuetan erabili zituenak baino. Ikus, esaterako,

---

[15] ARIZTIMUÑO, J. "Aitzol", "Itzaurrea. 'Bide Barrijak', o. c., X: "*Bide barrijak* dasa idaztitxo onek. Bide berrietatik dabil aizken aldera, gure olerkari zorrotz hau (Lauaxeta). Euskera, poesi bidez, eraberritu nai; osertz neurrigabeak darizkio… Francen, batez ere, poesi gaia, aldakuntza gogorra jaso bearrean dago. Olerkariak, buru-belarri, era berriak sumatzen ari dira, olerkiak goratu eta edertzekotan. Bremond, Valery, Claudek eta Souza 'poesi pure', 'olerti-uts' bidexurretatik jo ta, poesi osertza zabaltzearren leiatsu dabiltza"… eta herri-literatura gaien gainetik: "iturri garden, aran sotil, baso itzal, mendi zorrotz, maite min eta minkuntasunak beratutako gaiak goiargiarentzat egokienak ez uste", olerkari landuenak hobetsi zituen: "beste alako gai sakon eta barnekoak, adikorrak alegia, olerkari kementsuenentzat berekikoenak zaizkiotelakoan egon ginezke, ertilari oiek dasatenez".

[16] KORTAZAR, J., "Sarrera", o. c., 28. or.

*Bide Barrijak* liburuko *gogua*, *otoya*, *ortzija*, *ixan*, *bixia*, *yantzija*, *garbijak*…

Urteak aurrera joan ahala, Jesuiten eskolakoak 1920ko hamarkadan Resurreccion Maria Azkuek bultzaturiko gipuzkera osatura bihurtu ziren[17] eta Zaitegik eta Ibiñagabeitiak, esaterako, bizkaiera ama hizkuntza bazuten ere, gipuzkera osatuan idatzi zituzten beren lan literarioak. Lauaxetak, haatik, bestelako bidea hartu zuen eta bizkaierara makurtu zen gero eta nabarmenago, eta Sabino Aranak horren gustukoak zituen neologismo eta tokian tokiko fonetismoetara ere bai.

Gai, ahapaldi eta erretorika-irudietan, aitzitik, Lauaxetak Jesuiten eskolaren modernitatearen aldeko tendentziak bereganatu ez ezik, indartu ere egin zituen. Konbinazio horrek, hots, edukiaren aldetik modernitateak eta edukitzailearen aldetik herrikoitasunak, muturreraino eramanak sarritan, ez zien Lauaxetaren testuei erraztasunik sorrarazi, gogortasun edota zailtasuna baizik.

2.2. *Sabino Aranaren eskolako kide zorrotza.* Lauaxetak Jesusen Lagundia utzi zuen (1928) eta Euzko Alderdi Jeltzalean sartu zen buru-belarri, *Euzkadi* egunkarian batik bat, non, 1931n, Nikolas Ormaetxea 'Orixe' ordezkatu zuen euskarazko orrialdearen zuzendaritzan.

Aro berri horretan, Lauaxeta euskaltzaletu eta abertzaletu egin zen, eta ez zitzaion batere erraza izan "pedagogia jesuitikoa eta ideologia sabindarra" uztartzea[18], Sabino Aranak euskararekiko zeukan dotrina ez baitzetorren bat Lauaxetak Oñako Jesuiten akademian ikasitako joerekin. Euskara (gipuzkera) osatuaren ordez, Sabino Ara-

---

[17] Gaurko euskara batuaren aurrekaria? Ikus ZAITEGI, J., *Sopokel'en antzerkiak* I eta II,…. *Platon*, I. II eta III, 1975; IBIÑAGABEITIA, A., *Unai-kantak* eta *Alorkantak*, Bilbo, 1966.

[18] IZTUETA, P., "Jesuiten pedagogiaren eragina Lauaxetarengan", *Euskera* – L, 2005, 2, 628. or.

nak euskalkiei eustea defenditu zuen, bai gizarte arrazoiengatik, bai hizkuntza arrazoiengatik, bai fonetika-arrazoiengatik, batik bat[19].

Maisuaren (zehazkiago, maisuaren jarraitzaileen[20]) zorroztasunaren aurrean, euskal idazleak talde bitan banatu ziren: batzuen batzuk gipuzkera osatuaren alde makurtu ziren (Jokin Zaitegi, Andima Ibiñagabeitia, Justo Garate, Aitzol, Lizardi…); besteren batzuek, aldiz, euskalkietara (bizkaierara, batik bat) jo zuten: Manuel Egiliorrek, Antonio Iralak, Esteban Urkiagak…; eta, euskalkien barruan, tokian tokiko fonetismoetara ere bai[21].

Azken lehia horretan Lizardik eta Lauaxetak, bi-biak sabindar grinatsuak izanik ere, olerkiak idazterakoan, aurrez aurreko jarrerak hartu zituzten behin baino gehiagotan[22].

Euskalkiez eta fonetismoez gain, euskaltzaleek lexikoa ere izan zuten eztabaida-gai XX. mendeko lehen hamarkadetan. Eredu bi

---

[19] ARANA-GOIRI, S., *Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino* (1896) in *Obras completas*, Sabindar-Batza, Baiona, Buenos Aires, 821 or.: Advertencias: "Al refundir todos los dialectos y subdialectos en una forma única, reconstruida como originaria común de todos ellos, quedaría de una plumada suprimido y aniquilado en su mayor parte el extenso y admirable desarrollo fonético que el Euskera ha podido alcanzar sólo con el transcurso de muchos siglos, a más de que, por otra parte, nunca podría obtenerse seguridad de haber acertado en las resoluciones, y mucho menos siendo confiada la unificación a tratadistas poco o nada aptos en materia etimológica, que han sido siempre y siguen siendo todavía los más numerosos y más osados".

[20] MITXELENA, K., in *Koldo Mitxelena*, Erein,1977, 25-26. or.: "En lo referente al euskera, la obra de Sabino Arana es muy importante, pero el problema surge al morir Sabino y aparecer una serie de 'seguidores': me refiero, naturalmente, a todo lo que va desde el Padre Arriandiaga, toma fuerza en Juventud Vasca de Bilbao y se agrupa en torno a la revista *Euzkerea* y la sociedad Euzkeltzale Bazkuna. Yo lo siento mucho, pero esto no es Sabino: es un desarrollo 'sui generis' a partir de supuestas ideas de Sabino y realizado por pretendidos 'discípulos' de Sabino… El integrismo lingüístico que se atribuye a Sabino nace en sus seguidores".

[21] ARANA-GOIRI, S., *Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino*, o. c., 894. or. "He ahí el sistema fonético que adoptamos (ota>otea, bare>baria, otso>otsua, zulu>zuluba, ardi>ardija, gau>gaba, odei>odeya): es casi *general* en los tratadistas y literatos bizcainos, sumamente claro y comprensible".

[22] *El Día*, 1932-7-6, 1. or.: "El señor Jose Maria Agirre (Lizardi) señaló [1932ko Eusko Ikaskuntzak antolaturiko uda ikasaldietako hitzaldi batean] que una de las medidas también indispensables sería la supresión de fonetismos dialectales en la ortografía vasca".

nagusitu ziren orduan: bata, Resurreccion Mª Azkuerena; eta bestea, Sabino Aranarena. Azkuek, euskal hiztegiaren mordoilokeria eta murriztasuna gainditzeko helburuz, euskal testu zaharretan eta euskalkietan gorderik zeuden hitzak bildu eta ezagutaraztea proposatu zuen, eta horretarako luzaroan goraipatua eta erabilia izan den *Diccionario Vasco-Español-Francés* hiztegia eratu eta argitaratu zuen 1905. urtean. Sabino Aranak, haatik, ustezko euskal logikaren araberako neologismoak asmatzeari ekin zion, "'euskera berri' izenaz ezagutzen hasi zen hizkuntza eredua osatuz"[23]. Nori jarraitu lexiko mailan? Lauaxetak *eklektizismora* jo zuen, testuen ulergarritasunerako biderik zailena.

Izan ere, egia da Lauaxetaren euskal testuetan Sabino Aranak eta Aranaren jarraitzaileek (Manuel Arriandiagak, Isaac Lopez Mendizabalek…) asmaturiko neologismoak ageri direla, baina neologismo horiek bezain ugariak dira euskalkietako eta euskal hiztegi askotako (Pouvreau, Harriet, Lhande, Duvoisin, Añibarro…) hitzak. Seguru asko Lauaxetak ez zituen jatorri ezberdinetako hitz horiek hartu aipaturiko hiztegietatik, Azkueren *Diccionario Vasco-Español-Francés* delakotik baizik.

Ildo horretan, azpimarratu behar dugu, *Orotariko Euskal Hiztegia*ri kasu egiten badiogu, Lauaxeta ere neologismoak sortzeko Aranaren gaitzaz kutsatu zela, ezbaitira gutxi bere idazkietan lehenengoz agertzen diren euskal hitzak: *gelkera*, *goznar*, *gogaiki*, *irauki*, *izlapur*, *errotarime*, *soinanzki*, *tantada urbel*, *lea*, *lepalpen*, *loragu*, *oroi*… Horrek ez du esan nahi Lauaxetak hitz guzti horiek (edo gehienak) asmatu zituenik, baina probabilitate horri ateak irekitzen dizkio, zenbait kasutan, bederen.

Aditz trinkoak sortu eta erabiltzeaz den bezainbatean, azpimarratu behar dugu Sabino Arana izan zela aditz-forma hauek zabaltzen eta indartzen saiatu zena, aspaldi galduta edota inoiz erabiliak izan ez ziren aditz-forma asko barne (dopalkigu, ditxaro…). Arlo horretan, tendentzia bi zabaldu ziren Aranaren jarraitzaileen artean:

---

[23] OTAEGI, L., *Lizardiren poetika*, Erein, Donostia, 1994, 79. or.

batzuek (Elizalde, esateko), Sabino Aranaren esanari jarraituz, bokalez edota jotaz hasten diren aditzekin soilik sortu zituzten forma trinkoak; beste batzuek (Soloeta-Dima, Arriandiaga…), haatik, aditz guztiekin asmatu zituzten horrelakoak. Lauaxetak lehenengoekin bat egin zuen eta ez zituen euskal aditz guztiekin forma trinkoak sortu. Halaz ere, euskal bertsoei musikaltasuna eman eta laguntzailearen errepikapen astuna ekiditeko, Lauaxetak aditz trinkoak sarri erabili zituen bere olerkietan, sarriegi apika, batik bat gaur egungo irakurlearentzat.

Morfologiaren arloko aranisten berritasunak ere nabariak dira Lauaxetaren olerkietan. Bat aipatzeko, Sabino Aranak asmaturiko 'bai + aditz trinkoa' egitura aipa dezakegu, Lauaxetaren idazkietan oso ohikoa dena: "Ezkon-barrijen oya, bai-da donetsia!", "negar zotinka iraungo bai-jok neure gogoak" edota "laket-barik bai'daurkiz diru ta lagunak" eta abar, guk "Ezkonbarrien ohia, bai da donetsia", "negar zotinka iraungo baijok neure gogoak", "laket barik badaurkiz gau ilunak"… transkribatu ditugunak[24].

2.3. *Euskaltzaleak* bazkuna, 1930. urte inguruan sortu zen eta euskal kulturaren alde garrantzi handiko ekintza interesgarri asko antolatu zituen: Euskal Egunak, Bertsolarien Egunak, Olerti Egunak, Antzerki Egunak, Eleberri Egunak, Haur euskaldunaren Eguna, *Yakintza* aldizkaria, Euskal lehen egunkaria…. Epe laburrean, bai bazkideen kopuruarengatik (bi mila inguru), bai elkartearen liderren sona eta temarengatik, euskal kultura babestu eta indartzeko benetako *lobby*a bihurtu zen. Neurri handi batean, *Euskaltzaleak* elkartearen liderrek (Aitzolek, batik bat, Lizardik…) euskal literaturaren joera berriak markatzen zituzten eta euskara "andiki soinekoz" mundu zabalaren aurrean agertzea nahi izan zuten.

---

[24] PAGOLA, I., *Neologismos en la obra de Sabino Arana*, Iker-18, Euskaltzaindia, 2005, XXII: "Hay que señalar también una innovación que introdujo Arana Goiri y tuvo gran acogida entre sus seguidores; consiste en emplear *bai* en lugar de *ba* en casos como *badator* 'viene, ya viene' para diferenciarlo de *badator* 'si viene'. La reforma de Arana Gori incluía el uso de guión en ambos casos y el de apóstrofe en condicionales como *baleu*, que en castellano corresponden a formas de subjuntivo. Estos signos tuvieron, en cambio, aceptación irregular entre aranistas".

Horretarako *bide barrijak* sortu beharko zituztela uste zuten, nahiz eta, ekintza horretan, Lore-Jokoen inguruan sorturiko herri-idazleak bazterrean utzi behar[25]: "Berrizaleok irabazi-sariengatik, idazle -olerkari, dio- zenbait, zapuztu egin omen dira. Gaizki egiña. Zuek, errez-zaleok, aspaldi darabiltzuten zirikalbideaz mindu-ta, berrizaleok zapuztuko ba'giña, ordun ere zeresana izango litzake. Nik uste, mordollo-zaleak, erdi-merdi-zaleak eta aurrera-zaleak, guziok bizi gaitezkela pakean, Zuk darakusazuna baño irizmen zabaltxea-goa bear, 'solamente'"[26].

Planteamendu hori ez dator bat hitzez hitz *Lecciones de ortografía del euskera bizkaino*ren autorearen proposamenarekin[27], *Euskal-*

---

[25] ARANA-GOIRI, S. *Lecciones de Ortogafía del Euskera Bizkaino*, o. c., 821. or.: "Otros quieren que éste se establezca en cada dialecto y subdialecto, de suerte que haya un *bizkaino literario* y un *bizkaino vulgar*, un *guipuzkoano literario* y un *guipuzkoano vulgar*, un *laburdino vulgar* y un *laburdino literario*, etcétera. Estimo que ninguno de los dos proyectos es admisible desde el momento que, de realizarse cualquiera de ellos, resultaría que el campesino hablaría un Euskera que se tendría por tosco y rudo, y otro, culto y aristocrático, el euskeriano de alguna educación literaria, originándose así, en la esfera de la cultura, una cierta distinción de clases que en modo alguno puede armonizarse con el espíritu de igualdad que caracteriza al pueblo euskeriano y muy principalmente al bizkaino. Mas para desaprobar la primera de aquellas tendencias hay, además, otra razón, y es que, al refundir todos los dialectos y subdialectos en una forma única, reconstruida como originaria común de todos ellos, quedaría de una plumada suprimido y aniquilado en su mayor parte el extenso y admirable desarrollo fonético que el Euskera ha podido alcanzar sólo en el transcurso de muchos siglos, a más de que, por otra parte, nunca podría obtenerse seguridad de haber acertado en las resoluciones, y mucho menos siendo confiada la unificación a tratadistas poco o nada aptos en materia etimológica, que han sido siempre y siguen siendo todavía los más numerosos y osados".

[26] LIZARDI, "Bide berriak? Bide guztiak?", *Euzkadi*, 32.02.09.

[27] ARANA-GOIRI, S., *Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino*, o. c., 822. or.: "Lo que procede, en mi opinión, es componer dentro de cada región euskeriana que haya sido antes estado autónomo y se halle en la posibilidad de volver a serlo algún día, un dialecto general, formado con los elementos menos alejados de las formas orgánicas, esparcidas aquí y allá, en los diferentes subdialectos o variedades que se hablen en el territorio de que se trate; y que ese dialecto así elaborado no sea patrimonio exclusivo de la literatura y la clase elevada de la sociedad, sino habla, que, abatiendo y matando las formas usuales desechadas, llegase a generalizarse en el país y a ser común de doctos e ignorantes, pobres y ricos".

*tzaleak* elkarteko liderrek Sabino Arana, behin eta berriz, maisu eta gidaritzat onartu arren[28]. Urteak aurrera joan ahala, *Euskaltzaleak* bazkunaren planteamendua bigunduz joan zen eta herri-literaturaren gai, esaera eta eskemetara, testuen ulerkortasunera alegia, hurbildu zen: "Txalogarria, beraz, aintziñako itz-asmoen izorraldi ori berritzea… Elburu onek, ordea, utsak baditu. Bertsoan doñua gogortxoa izatea, bat: ulerkaitza, aditzea zail xamarra izatea, bestea. Ez da nolanaiko lana izkerari erdoia kentzea"[29].

Lauaxeta –olerkari berrizale guztiak– ur-laster biren artean zegoen, nora jo dudatan…, eta, azkenean, Sabino Aranaren aldera makurtu zen buru-belarri, modernitateari uko egin gabe baina[30]. Fidelitate bion arteko tentsioa nabarmena da, batez ere, Lauaxetaren bigarren olerki liburuan, *Arrats beheran*-en alegia, non idazleak herri-literaturako molde, esaera eta gaiak ("Izkiñuak", erromantzeak edo Ipuiñertitzak[31], baladak…[32]) erabili zituen *Bide Barrijak* libu-

---

[28] ARRIANDIAGA, M., "La Vida del Euskera por Altube'tar Seber", *Euzkerea*, 1935, 432-447. or.: "La escuela renacentista no puede desprenderse de un influjo ideológico consiguiente a su concepción nacionalista". Alderantziz eta ezagutza handiagoren kausaz, "Gipuzkoako Aldundiak *Euskaltzaleak* erakundeari ematen zion dirulaguntza erretiratzeko saioa egin zuenean, *El Dia*, 1934-11-29-ko "Qué es y cuanto ha hecho por la cultura vasca la Sociedad Euskaltzaleak" artikuluan Aitzolek gogorarazten du berak 'no interviene, ni ha intervenido jamás en política'".

[29] AITZOL, *Eusko Olertiak*, 1931, XIII. or.

[30] KORTAZAR, J. eta MADARIAGA, J. R., "Lauaxeta", in *Arrats beran*, Klasikoak, Euskal Editoreen Elkartea, 1991, 11. or.: "1933. urtean, ordurarte neguko kukua bezain ixil izan zen Aitzol, lehenago lirikaren alde agertu bazen ere, poesia narratibo eta errez baten alde agertzen da, lan garrantzitsuak argitaratuz. Aitzolek kalitatea eta ulerkortasuna batu nahi lituzke herrikoitasunaren izenean… Lauaxetak, erdi olgetari, erdi pentsakor, herrikoitasunaren bidea hartuko du, *Arrats Beran*-go poemarik gehienak korrente horretan konposatuz".

[31] "Espetxekuarena", "Artzain baten erijotzean", "Etxeko alabea", "Txiriboginaren alabea", "Amayur gaztelu baltza", …

[32] LAUAXETA, *Euzkadi*, 34.04.24: "Olerki errikoiak egin biar dirala dirauskube. Tira ba, bakoitzak al daun eran egin begiz".

ruan baino sarriago, goi mailako (klasizismoa, modernismoa…[33]) gaiak eta hizkuntza poetikoa (sonetoak…) ahaztu gabe: "Herri literaturaren eragin handia izan du Lauaxetaren bigarren olerki liburuak… Lauaxetak ezagutzen zuen herri-literatura oinarritzat hartu eta lan kultua egindako idazle bi: Maragall katalana eta Maeterlinck belgiarra… Batez ere baladak izan ziren influentzia gehien izan zutenak Lauaxetaren lanean… Baina ez zen mugatu eta baladekin batera abesti liriko, errefrau, kopla zaharren aztarnarik ere aurkitu dugun liburuan"[34].

Lauaxetak hautaturiko modernitatearen eta herrikoitasunaren arteko tirabirak argi geratu ziren 1932an, bizkaitarrak Aitzolekin izan zuen *euskara osatua* ala *euskalkiak* auziari buruzko eztabaidan. Desadostasun hori adierazgarriagoa izan zen, kontuan hartzen badugu Aitzol guztiz erabakigarria izan zela Lauaxetaren olerkari bilakaera eta ospean. Izan ere, Lauaxetak, Aitzoli esker igo zuen olerkarien Parnasora, 1930ean Errenterian ospatutako lehen Olerki Eguneko sarian, Aitzolek Lauaxetaren alde makurrarazi zuen balantza, Orixeren kaltetan omen[35]. Urte batzuk gerotxoago, Aitzolek Justo Garate-

---

[33] KORTAZAR, J. eta MADARIAGA, J. R., o. c., 13. or.. "1931.urtean Lauaxeta klasizismo barneko saiakeran sartu zen. *Arrats Beran*go poema batzuk usain hori dute: "Eiztari aundija"k, adibidez… Azkenengoz, badira kutsu modernista izan arren, 'izkiñuen' antza duten poemak. Izenburua ere berdintsua daramate: "Neskatxo gorriska bati", "Itxastar gaste bati", "Abeslari bati" eta azkenez "Txo moskortuba". Tartean diren poemak dira. Ez dira guztiz modernistak ezta ere guztiz herri-kutsukoak".

[34] KORTAZAR, J., "Sarrera", o. c., 27. or.

[35] Orixek, bere buruaren alde beti makurtu ohi zenak, ez zuen Lauaxetaren olerkigintzari buruzko iritzi positiborik izaten (ezta, omen, Lizardik ere). Ikus Orixek Lizardiri gutuna 1930-V-27): "Egia diozu, nire adiskide ta lagun on Lauaxeta belaxka samarra da bertsoetan (blandengue), ta gaizberatzantza (un tanto morboso, decadente), ta ez da ain originala ta classicoa; baño euskerari mesede egiten ari zaio olerki-mota orrekin". 1930eko Errenteriako sarian, epaimahaikoak J. Ariztimuño, L. Jauregi (Jautarkol) eta M. Lekuona izan ziren. Orixeren testigantzaren arabera (ORIXE, "De mi vida externa"), Aitzolek bultzatu zituen beste mahaikideak Lauaxetaren alde. Orixek ez zion Aitzoli bultzatze hori inoiz barkatu: "Estas y otras pequeñeces las pagó bien al fin de su vida (frankistek hilarazi zuten, lazki torturatu ondoren)".

ri jarraituz, iritzi zion euskararen –oro har, euskal kulturaren– salbazioak euskara osatu edo batuaren ildotik etorri behar zuela[36]. Sabindarrek, aitzitik (Manuel de Egileor, Jose Maria de Errazti, Ceferino de Jemein, Antonio de Irala, Esteban de Urkiaga, Luis de Arbeloa, Manuel de Iriondo, Manuel de Enbeita[37]), Arana-Goiriri jarraituz, euskalkiak irmoki defenditu zituzten, defentsa horretan nazio- eta hizkuntza-arrazoiak nahastuz bidenabar[38].

## 3. Gure edizioa

### 3.1. *Asmoa*

Lauaxetaren olerki guztiak lehendik argitaratuak daude berez. Hala ere, askorentzat gaitz antzeko eta ilun samarrak gertatu dira beti. Zailtasun horiek leundu egin gura izan ditugu moldaketa txiki batzuk eginez, gaurko grafiara eta morfologiara hurbilduta. Izan ere, gure helbururik behinena Lauaxetaren poesia modu ulergarriagoan aurkeztea izan da, gaur egungo belaunaldiek erosoago eta errazago irakurtzeko eran.

Ez ditugu idazlearen olerki guztiak jaso, baina bai gure iritziz esanguratsuenak direnak. Horregatik, haren liburu bietako (*Bide*

---

[36] ARIZTIMUÑO, J. AITZOL, *El Día*, 1932ko uztailaren 8a: "Dio lugar al pesimismo del conferenciante la variedad funestísima de los dialectos euskaldunes. Es lastimosamente cierto. Algunos con una obcecación de mente incomprensible fomentan, cavando así una sima que impida llegar a la unificación del euskera. La actuación de éstos es más funesta para el euskara que la de Unamuno".

[37] Nor-izenak honelaxe idaztea aranatarren eskolakoen marka zen.

[38] *Euzkadi*, 1932ko uztailaren 12a: "Es el hecho que nosotros, seguidores también de la escuela euzkeralógica sabiniana, por considerarla no sólo la más patriótica, sino la más eficaz para la misma lengua, por basar sus afirmaciones en métodos absolutamente científicos, nos hemos dado por aludidos de sus acusaciones, ya que nosotros, científica y patrióticamente, somos enemigos declarados de la unificación de los dialectos en euzkera, por la adopción de uno de ellos o creación de uno nuevo. Por todo ello, después de rechazar la injusta acusación contra nosotros, sobre todo contra Sabino, Maestro en euzkeralogía y en patriotismo, estamos dispuestos a sostener…: 1. Que la unificación del euzkera por adopción de uno de sus dialectos es antipatriótica y perjudicial para la lengua misma... 4. Que la supresión de la fonética atenta al genio y a la integridad del euzkera".

*barrijak* eta *Arrats beran*) olerkiak ez eze, espetxealdiko batzuk ere bildu eta atondu ditugu. Sarritan oin-oharrak agertzen dira testua argiago gera dadin. Amaieran Lauaxetaren hiztegitxo bat jarri dugu, irakurlea, ausaz, haiekin ohituta ez dagoen berba zahar eta berri asko azaltzen direlako.

Egokitze lanean lagungarri izan dugu Andres Alberdik idatzitako *Estandarizatu gabeko solasak nola eman ikasliburuetan* liburukia, eta bat egin dugu bertan azaltzen diren bost irizpide nagusiekin:

1. Euskara batuaren eta bizkaieraren grafia estandarra erabiltzea.
2. Jatorrizko euskalkiaren markei eustea. Fonetismoak alde batera utzita, bizkaieraren egitura morfosintaktikoak eta hitz aldaerak jagon ditugu.
3. Hitz neurtuzkoa denez, neurri-errimak diren-direnean jagotea[39]. Neurri-errimek, horregatik, testua gutxi ukitu eta oin-oharrez baliatzera eroan gaituzte. Irizpide hau batzuetan aurrekoaren gainetik jarri behar izan dugu (*Goizaldeko otoia / zeureganuntz doia*). Hala ere, hitzak osorik idatzi behar dira-eta, lantzean behin letra edo silabaren bat gehitu behar izan dugu, orduan, letra etzanez eta gorputz txikiagoan egin dugu.
4. Jatorrizko testua ahalik eta gehien errespetatzea. Lauaxetaren olerkiak dira eta haren kolorea eta gatza izan behar dute. Hor dira haren aditz trinkoak, hor haren alokutiboak, haren lexi-

---

[39] Bertso-lerro baten barruan, adibidez, *ganian*>ganean eta halakoak zuzendu ditugun arren, errimak eskatzen duenetan, 'gania(n)' eta antzekoak gorde egin ditugu: ganian>ludian, ganean>bihotzean, guria>eztia, zugatzak>ekatxak, minduan>ahuan… Silaba-neurriari ere eutsi egin diogu eta "Oraindik ez dot hil gura, bizitzau jatan leguna! (16 silaba) mantendu dugu eta ez "Oraindik ez dot hil gura, bizitzau jatan leuna" (15 silaba), esaterako… Ildo beretsuan, e > i + a (artikulua) multzoetan, adibidez: oea > oia (oya, Lauaxetaren idazkeran), *ohia* aukeratu dugu, 'ohea' hitzak hiru silaba bilduko bailituzke, bertso lerroak bi bakarrik eskatzen dituenetan (ohia = o-ya ahoskatua, noski); ikus, esaterako, "Arotzak", *BB*, 12-14. or. Haatik, Lauaxetak *oe*a aukeratzen duenean, guk *ohe*a jarri dugu.

ko eklektiko samarra, haren neologismoak… Hala ere, behin edo behin zuzenketa soil batzuk egin ditugu, akats garbiak begitandu zaizkigunean (*borde>borda*…).

5. Lagungarri didaktikoak eskaintzea. Horretarako daude oinoharrak eta atzeko hiztegia.

### 3.2. *Hizkuntza irizpideak*

#### *3.2.1. Grafia*

Ortografia gaurkotu egin dugu:

a. Aranazaleen *r*, *l*, *t* tildedunak kendu, eta *rr*, *ll/il*, *tt/it* ipini ditugu.
b. Jota ahoskatzeko *j* erabili dugu beti, eta *y* grafia bazter utzi.
c. *H* letra gaurko euskara batuaren arabera jarri dugu: *haizea*, *hara*, *hator*, *ehiztari*… Baina bizkaierak bereak dituen beste forma batzuk diren horretan laga ditugu: *legor*, *zugatz*… *H* letra idatzi arren, bokal artean, hegoaldeko usadiora, ahoskatu gabe geratuko da, neurriari eragin barik.
d. Txistukarien neutralizazio eta nahasteak gaurko erara zuzendu ditugu: *azke>aske*, *utzezko>hutsezko*, *moskortu>mozkortu*, *gaste>gazte*, *atzo>atso*…

#### *3.2.2. Fonetika*

a. Bokal-elkarketek eragindako fonetismoak kendu egin ditugu: *dua>doa*, *begijok>begiok*, *mendijan>mendian*, *axia>haizea*, *gaba>gaua*, *boluba>bolua*…
b. Lauaxetak o+a elkarketa, batzuetan, batez ere *eroan* aditzarekin, Uribekosta-Mungialdeko ebakera erabiltzen du: o+a> o. Guk, kontrakzioz galdu den bokal hori osatu egin dugu letra etzan txikiagoan: narok>naro*a*k, daroz>daro*a*z…
c. Bokal arteko -g- kontsonantea falta den hitzetan gehitu egin dugu: ebai>ebagi, eitean>egitean…
d. Bustidurak era automatikoz aplikatzen ditu Lauaxetak, eta guk, marka fonetikotzat hartu ditugunez, desegin egin ditugu:

*axe>haize*, *lilli>lili*, *danboliña>danbolina*, *mattasun>maitasun*, *goxa>goiza*, *bixitza>bizitza*… Adierazkortasun balioa duenean, ahatik, gorde egin dugu: *etxeño*. Eta bizkaieraren ezaugarri garbia denetan ere jagon egin dugu: *bakotxa*.

e. *Ez* beti bereiz idatzi dugu, elkarketa-fonetika deseginik: etxagok>ez jagok, eztago>ez dago, etzan>ez zan, etxuak>ez joak; eztok>ez dok, ezegik>ez egik, eztakuskek>ez dakuskek…
f. *Eta* juntagailuaren transkripzioan onartu dugu sinkretismoa (*ta*) hitz neurtuetan, baina ez hitz lauzko testuetan.

### *3.2.3. Zeinu diakritikoak eta puntuazio markak*

a. Zeinu diakritikoak gaurko erara jarri ditugu: Serves'ko>Servesko, Nabarra'tik>Nabarratik, Kepa'ri>Kepari. (') apostrofo zeinua -tar atzizkiarekin sortutako aranazaleen izen-abizenetarako utzi dugu, garai bateko lekukotzat: *Artalarrea'tar Miren Tereseri.*
b. Hitz elkarteetako marratxoa gaurko arauetara egokitu dugu.
c. Puntuazio-markak egungo ortografiara moldatu ditugu, batez ere, galdera eta harridurazko perpausetan. Baina, beste batzuetan ere, batez ere komak, kendu edo erantsi egin ditugu premien arabera, testua ulergarriago egiteko.

### *3.2.4. Morfologia*

a. -a berezkoa galdurik dagoen hitzetan, geuk jarri dugu letra etzan txikiagoan: bizitz>bizitz*a*, lei>lehi*a*, gerizik>geriz*ar*ik, arantzik>arantz*ar*ik, ilkutx>hilkutx*a*, giz>giz*a*…
b. Sartaldeko euskaran *-a* berezkoaren eta artikuluaren elkartzeak zenbait deklinabide-kasutan singularrean sortzen duen armonizazio bokalikoa bizkaieraren tradizioko ezaugarri finkoa denez, jagon egin dugu: *alaba+a>alabea*. Baina, aranazaleen eraginez, aldaketa hori beste kasu batzuetan eta pluraletan ere egiteko ohitura zabaldu zen. Tradizio idatziaren ez hiztunen joerarekin zerikusirik ez duenez, halakoetan zuzendu egin dugu testuan bertan edo oin-oharren bidez: *kanteak (pl.)>kantak*, *munean>munan*, *erean>eran*, *beherean>beran.*

c. Lauaxetak sarritan darabil *-oi* mugatzaile hurbila. Guk galdutako bokal arteko -r-a emendatu dugu letra etzan txikiagoan: biotzoi>bihotzo*r*i, ederroi>ederro*r*i…

d. Erakusle forma pluralak bizkaieraz araututako erara jarri ditugu: *oneik*>*honeek*, *areik*>*hareek*…

e. Deklinabidean pluraleko ergatiboaren *-ak*, datiboaren *-ai*, soziatiboaren *-akaz*… formak bere horretan laga ditugu, tradizio erabilera zainduz.

f. Genitiboan kasu marka laburtuak letra etzanaz osotu ditugu: aurran>haurra*r*en, oron>oro*r*en, ankerran>ankerra*r*en, liraiñan>liraina*r*en…

g. Genitibo pluralaren -en marka -a amaierari lotzen zaionean, -aen egiten du maiz, testu arkaikoetan bezala. Guk bere horretan utzi dugu: *latsaen*, *loraen*, *milazkaen* (latsen, loren, milazken)…

h. -etaz marka instrumentala ageri da batzuetan inesibo pluralaren zentzuaz: *goizaren bideetaz jatorzak*. Dagoen moduan utzi dugu, oin-oharra jarrita.

i. Lauaxetak, berrizaleen proposamen berriak beretuz, *-an* kasu marka erabiltzen du inesiboan, hitz erroa bokalez zein kontsonantez amaitu, bigarren honetan euskarak *-ean* egiten badu ere. Ipar Uribe aldeko berbakerak ere laguntzen zion bokal bakarra erabiltzen, nahiz hor *-en* egiten den: *odolen*, *gibelen*, *zabalen*. Guk kontsonantez amaitzen diren berbetan *-e* epentetikoa gehitu dugu letra etzan txikiagoan: maiatzan>maiatz*e*an, gibelan>gibel*e*an, odolan>odol*e*an, ertzan>ertz*e*an… Batzuetan baina, -e epentetikodun formak oinean ipini dira, eta testuan, errima errespetatzeko, dauden-daudenean utzi: *zabalan/sorbaldan*, *zabalan/dagian*…[40]

---

[40] PAGOLA, I., o.c., XXII: "El verbo no agota las innovaciones en el campo de la morfología. Las siguientes parte de Arana Goiri y son frecuentes entre aranistas: … Empleo de *–an* en la declinación sin distinguir entre temas que acaban en consonante y temas que acaban en vocal: etxean y egunan. Otra tanto para *–tik*: *etxetik* y *egundik*.

j. Lauaxetak, aranazaleen ohiturari jarraituz, ba- aurrizkia, baldintza ez denean, bai- jartzen du. Baina batzuetan, bai- aurrizkia bait- dela iruditu zaigu. Biak bereizten ahalegindu gara, baldintzazkoak eta kausazkoak. Kausazkoa denean, kontuan hartu ditugu dagozkion aldaketa morfonologikoak: *lar gozartu baitot bizitzaren guna*…

k. ostposizio sintagma batzuen erabilera bitxia dauka idazleak: aurreko izenari postposizioa zuzen loturik darabil sarritan: ortzi-ziar (ortzian zehar), ler barna (lerretan barna), gentz-ziar (gentzean zehar), lora-ziar (loraren zehar), bedarte ziar (bedartean zehar), oyu artega-ordez (oihu artegaren ordez). Beste batzuetan postposizio aurreko izena kasu absolutu mugatuan darabil: landak ziar (landetan zehar), bedartzak barna (bedartzetan barna), zeruko poza billa (zeruko pozaren bila), bidia billa (bidearen bila). *Poza bila* eredua Mungia-Uribe kostaldeko berbetaren ezaugarrietarikoa da. Azkenik, euskararen ohiko usadioaren arabera ere agertzen da postposizio sintagma: maitasun billa, bakartasun billa… Guk Lauaxetaren erabilera gorde dugu dagoentxoan kasu guztietan.

l. Aditza

Azkuek jarritako eta Aranak bere egin zuen arauaren arabera *-au* formako nor-nori-nork adizkiak agertzen dira Lauaxetaren testuetan. Guk bizkaiera arautuko eredura ekarri ditugu: *daustaz*>*deustaz*, *dautsot*>*deutsat*…

'Eduki' aditzaren forma trinkoetan idazleak dakarren -ko forma errespetatu dugu: daukot, haukot, jaukok...

*Zauz*, *zauguz*, *zabez*, *gabez*… erako aditz formak ez ditugu aldatu, eta oin-ohar bidez argitu ditugu dagozkien forma arautuak, bizkaieraz eta batuan.

Aditz trinkoak ere, euretariko hainbat asmatuak, hala utzi ditugu, eta oin-oharrean argitu, beharrezko ikusi denean.

Aginterako aditz forma batzuk aldatu egin ditugu testuan, baina oin-oharrean jatorrizkoa emanda: bemotsozu>emoiozu, bemostazu>emoidazu…

Aditzetan hizkiekin loturak egiteko, *-a* epentetikoa gehitu dugu, bizkaiera arautuak eskatzen duenean: agon>hagoan, dagin>dagian, iñardun>inarduan, dirudin>dirudian…

*3.2.5. Lexikoa*

Neologismoak jatorrizko testuetan dauden moduan utzi ditugu.

Antton Mari Aldekoa-Otalora Zamalloa
Adolfo Arejita Oñarte-etxebarria
Xabier Boveda Garai
Alberto Errazti Igartua
Sebastian Gartzia Trujillo

# ESTEBAN URKIAGA, LAUAXETA BAKAN ETA ANITZ

Esteban Urkiaga *Lauaxeta*ren poesiaren estetikak hainbat arazo ekarri dizkio kritikari, hain zuzen ere, bere ahotsaren bila ari den poeta gazte baten lanaren aurrean gaudelako, eta bere testuek bide ugari agertzen dituztelako. Ez da noraezean dabilen poeta baten lana, barne hezkuntza sendo egin nahi duen poeta baten aurrean gaude.

1921. urtean Loiolan zegoen ikasten Lauaxeta, eta jakina da han literatura irakasgai bi izan zituela. Alde batetik, literatura klasikoa; eta bestetik, Europako poesiaren bide berriak irakurri zituen Esteban Urkiagak, Lauaxetak. Jakin ere badakigu Aita Estefania bilbotarra (1889-1945) izan zuela irakasle, eta, Patxi Altunari (1927-2006) esker, ezagutzen ditugu haren eskola programak eta irakaskuntzarako egindako hainbat zirriborro ere. Aita Estefaniarekin poesia modernoa ezagutu zuen, batez ere sinbolista frantsesak, Charles Baudelaire (1821-1867), eta Paul Verlaine (1844-1896), eta Espainiako 27ko Belaunaldiko poetak, batez ere Federico García Lorca (1898-1936) eta Rafael Alberti (1902-1999); dena dela, beti bere alde kontserbatzaileena agertu zuen, eta ez edo lizunkeriarekin edo abangoardiarekin zuten harremana. Badirudi Aita Estefaniak joera nagusi bi erakutsi zizkiola Lauaxetari. Jokin Zaitegiren (1906-1979) *Goldaketan* (1946) lanean agertzen denez, itzulpen berberak egin ohi zituzten Lauaxetak eta berak eskoletan, beraz, Aita Estefaniaren pedago-

giaren alde bat poesiaren itzulpena zen, eta Lauaxetak ongi erabili zituen eskolan egindako itzulpen lanak, ondoren, bere lehen pausoak emateko. Aita Estefaniak zuen beste ideia sublimearen aldeko joera zen: ideala adierazten zuen poesia maite zuen. Bai Joan Maragallen (1860-1911), bai Charles Baudelaireren poesia goraipatzerakoan, idealera joateko agertzen zuten gogoa zen gehien miresten zuena.

Ez da arraroa, beraz, Esteban Urkiagak bere poesia lana hasten duen momentuan Rubén Darío gogora dakarren poema idaztea:

> Zer dodan eztakit baina gexo nago:
> Gorputza aul daukot, gogua ariago.
> Arratsari nago…, itxas urdiñari,
> Lanari el-ezin, soilik ametsari". (BB, 2)

Hain zuzen ere, *Bide barrijak* (1931) bere lehen liburuko lehen poemako lehen esaldiek osatzen duten testu horretan, Esteban Urkiagak bere poeta fedea aitortu digu. Batetik "ametsari", idealari, begira bizi da; bestetik, sinbolistengan oso ezaguna den jarrera erakusten du: nekatuarena, "énnui" izenarekin ezaguna dena: munduari uko egin ("lanari el-ezin") eta beste zerbaiten bila hasi.

*Bide barrijak* liburuan hiru bertso molde eta esanahi bi nagusitzen dira. Lehendabiziko moldea, zaharra deitu dezakeguna, klasizismoak eta erromantizismoak jo duena da, hortxe ageri da Loiolako eta Oñako ikasketetan ikasitakoa, metrika molde laburrean eginiko poematxo txikiak, sentimenduen inguruan moldatuak: "Jadetsi eziña", "Mao gorrija", "Iluntzeko-ixarra", "Iturri negarra", "Ituna", "Txakurtxuba", "Mosuba", "Lied". Denetan ageri da, batez ere, Alemaniako poeta erromantikoen kutsua, dela Novalisena (1772-1801), dela 1927. urtean Joseba Arregik euskaraz eman zuen Heinrich Heinerena (1797-1856).

Eta beste aldetik, metrika moldez eta luzaeraz handiagoak diren poemak ditugu, "Maitale Kutuna" izango litzateke horien eredu nagusia; baina badira beste batzuk ere molde horretan atonduak: gorago aipatu dugun "Gexorik nago", ideia berbera lantzen duten "Gaste gexua" eta "Mendijetara", eta liburuaren bukaera aldera jarri

zituen "Ezilkortasuna", "Itzarrik" eta "¡Itxasora!", autopoetika baten adierazlea den poema. Lehen multzoan jarri ditugunekin alderatuz gero, askoz ere poema luzeagoak dira, euskal zortzikoaren metrikan emanak, kontzeptualagoak, eta, sentimenduak alde batera uzten ez badira ere, ideien ingurukoak. Jakina da ezilkortasunaren ideia dela Lauaxetaren bigarren molde honetako poemen gai nagusia. "Jaungoikotija", "Jaunagan atsedena" eta "Ezilkortasuna" dira horren adierazpide nagusiak.

Lauaxetak soneto bi utzi zizkigun liburu horretan, hurrengoan etorriko zena adierazi nahiz: "Eskontza-eguna" eta "Ludi-ameskorra", Francisco Villaespesaren (1877-1936) modernismoari lotuak.

*Arrats beran* (1935) liburuko estetika askoz ere argiagoa da. Irudiak eta elementuak zuzen jotzen dute Espainiako modernismora, Juan Ramón Jiménezen (1881-1958) *Baladas de Primavera* (1910) lanera, Francisco de Villaespesaren estetikara, Manuel Machadoren (1874-1947) joera poetikora, eta, ondoren, herri lirika maitatuz, García Lorcaren *Canciones* (1927) eta *Romancero Gitano* (1928) liburuetara eta Rafael Albertiren *Marinero en tierra* (1925) lanera.

*Bide barrijak* idazterakoan, "Or an entzun eta ikasi dodazan gogai batzuk neure bijotzaren barnetik euzkeralduta" ematea izan bazuen helburu, *Arrats beran* poema liburuak idealismoaren zantzua bermatu zuen: "Ludi onen bestaldez loratzen diran landaraen usañak goxalde bakotxak dakarkidaz. ¡Auxe da nire sakona! Bestiak entzuten eztaben egal-otsa neure gelara yatort eta barneko zugatz onetatik txorijak aldatu ziranarren, abar-dardarea ezta amattu".

Poema liburuaren hasieran abesti leunen moldea dela nagusi dirudi: "Goxaldeko otoya"k Villaespesaren "Oración del alba" dakar gogora; hedonismoaren alde diren "Bertso zarrak" eta "Kanta ariña"k, Manuel Machadoren poesia. Soneto modernistak ere poema liburuaren hasieran dira: "Sevresko murkuba" edo "Oraingo maitarijak". Baina pixkanaka-pixkanaka eta horiekin nahastuz, baladak agertzen dira. "Espetxekuarena" (Miren Terese Artalarreari eskainia, Miren Terese *Yagi-Yagi*ko aldizkariko idazlea zen eta kartzela zigorraren eskaera izan zuen 1933. urtean), "Artzañena" edo "Españartxu batena".

Dena dela, egitura aldetik liburuak badu desoreka puntu bat erdi aldean eta hortxe agertzen da Lauaxetaren poesia anitza eta bakan. 1933. urtean, eta ikastoletako ikasleentzako haur-poesia idatzi behar zela pentsatuz, Lauaxetak alegi sorta argitaratu zuen *Euzkadi* egunkarian. Horietako lau eman zituen argitara liburuan, baina egitura berezia mantenduz. Alegi bi ematen ditu lehenik: "Mutxurdiña" eta "Otsokorena"; ondoren datoz itsas giroko poema bi: "Ondartza" existentzialista eta "Itxas-ondokoena" balada miresgarria; eta jarraian, beste haur-poema bi eman ditu: "Ardua eta atsua" eta "Udabarriko autorkuntza". Ez dago jakiterik zergatik egin zuen hori, hain egitura berezia, eta zergatik batu haur poesia eta poesia sakona; ongi irakurtzen bada, "Ondartza" bere poemarik sakonenetarikoa baita. Agian, bazuen Villaespesaren adibidea aurrean, poeta horrek "Canciones infantiles" lana argitaratu baitzuen bere *Panderetas sevillanas* (1927) liburuan, baina ezin dugu ezer ziurrik adierazi. Kontua da Lauaxetaren bibliotekan Villaespesaren bost liburu agertzen badira ere, eta berau bada ere poesia alorrean Lauaxetak gehien irakurri zuen poeta, 1927ko liburua ez dela agertzen.

Erdi alde desorekatu horren ondoren baladak dira nagusi *Arrats beran* liburuan, eta García Lorcaren eta Albertiren eragina areagotuz doa, euskal herri lirikaren agerpenak zabaltasuna hartu duen neurrian. "Mayatzeko Gurutza", "Ziniste-bakuarena", "Bolutxu zurija", "Langille eraildu bati", "Artzain baten erijotzena" (edo "erijotzean"), "Mayatzeko kantea", "Txiribogiñaren alabea" baladen genero literarioan kokatzeko testuak ditugu.

Liburuetan bakan eta anitz agertu bazaigu Esteban Urkiaga poeta, orain argitalpenetatik kanpo baina beste liburu berri bat sortzeko zituen poemetan jarri behar dugu gure arreta. 1935. urtean *Yakintza* aldizkarian argitaratzen duen "Topa baten ostean" poemari honako ohar hau jarri zion egileak: "Elade edo erromatarren arauz egiñak diran olerki oneikaz idaztiñoa argitaratuko dau egilleak. Eun ijeki baiño eztira irarriko, eta bakoitzak bere zenbakia izango dau. Liburu ori ez da jente xeearentzat izango egiña. Era edo mueta askotariko olerkiak egin daikezala, egilleak adierazo nai leuke". Eta *Euzkadi*

egunkarian berretsi zuen ideia: "Irugarren bertso idaztia laster argitalduko dot. Eun ijeki baño eztodaz egiñen eta ijeki bakotxean zenbakia eta eroslearen izena. 'Odi profanum vulgus'".

Bakan eta anitz. Beste giltzarri bat bere poesian. 1933. urtetik aurrera Lauaxetak "Ad usum Delphini" 100 aleko eta zenbakitua egin nahi du bere poesia neoklasikoaren edizio berria. Liburua ez zen argitaratu, baina bada han eta hemen –bere liburuetatik kanpo beti– aldizkarietan bere azken ahalegin horren berririk. *Euzkerea* aldizkarian agerturiko "Udaberriko abestija" (1930) izango litzateke joera horren lehen adibidea, "Palankari bati" (1932) pindarikoa dator ondoren, "Igande goiz batez" azkenean. *Yakintza*n eman zuen "Topa baten ostean" eta Sabin Muniategiri esker ezagutu genuen "Mairako deia" dira "mota askotako bertsoak" eta hogei liburu idatzi eta argitaratu nahi zituen poetaren asmoen testigantza.

Mota asko eta hogei liburu.

Anitz eta bakan.

Jon Kortazar[41]

---

[41] Lan hau Euskal Herriko Unibertsitateak eta Eusko Jaurlaritzak bultzatzen dituzten GIU 10/100 eta IT 495/10 proiektuen barnean kokatu dugu.

# BIDE BARRIAK



# HITZAURREA
## *BIDE BARRIJAK*

*Eusko olerti irakuskundea*

Atzerrian, nonbait, olerti antzua nabaritzen da. Olerti iturria agortu edo olerkariak ahitu direlako. Arrotz elertietan poesi zelaiak zeken eta elkor dakuskigu. Ez soroak larratz daudelako, noski, gunmuina zekendu zaiotelako baizik.

Ez dira gaurkoak, Nuñez de Arceren alaka ukorrak:

*La Virgen poesía*
*Huyendo de los hombres,*
*Se pierde en las profundas*
*Tinieblas de la noche.*
*Todo se anubla, todo*
*Choca, todo esta herido.*
*Pide estragos el arte*
*Su inspiración al vicio.*

Antzinako olerkari gorenak ez dagerz. Alaka eta soilki, moteltxoak eta gotilunagoak sortzen zaizkiote. Ez lehen hainbat ospe iraunkor iritsiko dutenik, alegia.

Euskera, oraingoan, inoiz baino oparotsuago, ordea. Hizkera berriak ahuldu direnean, eusko ele zaharra gaztaro emankorrera datorkigu. Altzo sakonetik iraziaz olerkari emaitzak emaro eskaintzen dizkigu.

*Azken emaitza gorena*

Esku-tartean daukazu, irakurle.

Adi-bihotzez, eusko olerkariak emaitza daskaintsu[1]. Poesi-neurtitzak, gehienetan, halako zerutar kutsuak ukituak direlako goitarrak izaten dira. Begi aurrean dituzunak goienetakoak bezela iritziko dituzu, laster.

Olerki egilea gaztea dugu, oso. Hogeita lau urteak, doi-doi, beteak ditu oraindik Urkiaga'tar Estepan jaunak. Inoiz ikusi gabea gaurdaino! Gaztaro hasieran, besteak zahartzaroan eskaintzen digutena, jolas eran Lauaxetak dopalkigu[2]. Neurtitzok olerkari gaztearen gogo osoa daramate. Sare mehea izaki poesia bere hari goitar artean gogapen, irudi ta nahipenak ez atzitzeko.

Olerkaria nor den ikasi nahi zenuke? Bere amets garden zintzoei so egiezu.

*Tolesgeko olerkaria*

Urkiagaren neurtitzak altzotik zintzotasun lurringaia zabaltzen dute. Aldakorra da, noski, gogoa; higikorra, berez, nahimena. Olerkariaren lipar ilunak eta izatez adigaitzak diren bihotz zadorrak igartzea[3] neurtitz gardenen bidez jadetsi genezake, nahi izanik.

Olerkiok Lauaxetaren bizikera erdibitua darakusgute. Gaztetxoaren gogo artega lainotsua, lehenengoz, dager. Bizitz helburuak urduri dakarzkio adi-irudiak. Inoizka maitasun izpiak bidea dargiote[4]. Galen atzaparrak[5] bihotza urratzen, berehala ordea.

Hara gaztearen barnean burruka sortu. Guda honek hamaika nahigabe ta alegetasun olerkariari iritxi dizkio.

---

[1] daskaintsu: eskeintzen deutsu (dizu). *Eskeini* adizkia (*neol.*)
[2] dopalkigu: opa deusku (digu). *Opaldu* adizkia (*neol.*)
[3] zadorrak igarri: misterioak argitu
[4] dargiote: argitzen deutsoe (diote). *Argitu* adizkia (*neol.*)
[5] galen atzaparrak: gogoen atzaparrak

Guda ostean, maite minez zauritua datza olerkaria. Ez honen edo haren maite minez, maitasun hutsaren maite minez baizik.

Inoizka gogo begiak olerkariari lausotzen ote zaizkion nago. Agian, bidexurretatik jo arren ere, beti egi-bide bakarrera datorkigu. Eta zalantza handirik gabe, gehienetan.

Poesi batzuetan atsege, pozge daurkizute[6] Lauaxeta; neketsu, ahul antzean, hegoak tolestuta. Hegoak, beti, garden eta sotil iraungo diote olerkariari; gogo zintzoa bezin garbi.

*Maitasun lehia aiotsak*[7]

Barneko maite lehi*a* hau eusko elertiari onurakorra zaio. Olerki bikainak sortuazi dizkio. Oraindaino ez lakoak. Alegia, azalez, eta gun-mamiz, maitasun gaiz beterik daudenak.

Maitasunak darabilki, olerkaria, bide zoragarrietatik. Maitasun gaiok irudi harrigarriz, ohi ez bezelako ereduz apaintzen ditu. Oraindaino eusko olerkiak janzteko asmatu ez diren amets irudi berriz, noski.

Maitasun-egiaz, bihotz ikutzez, azal ederrez oparotsua, gazte honen, olerti emaitza.

'Erantzuna', 'Jadetsi-eziña', 'Mao gorria', 'Abaua', 'Gazte Gaxua', 'Iluntzeko ixarra', 'Gabeko irrintzia', 'Iturri negarra', 'Maitale Kutuna' eta abar maitasun aiotsak besterik ote dira? Edertasun zoragarriz kutsututakoak neretzat, behintzat. Halako atsege ta lausotasuna badaramate, noski, baina baita gogoa ukitu eta adia asetzen duen goitar indarra ere. Oldargi[8] zorrotz eta bihotz ikarak sortuak ba-dira!

---

[6] daurkizute: aurkitzen duzue. *Aurkitu* adizkia (*neol.*)
[7] aiots: ai hots; zizpuru, zotin
[8] oldargi: oldar, olde (*neol.*)

*Olerti hutsa*

*Bide barriak* dasa[9] idaztitxo honek. Bide berrietatik dabil azken aldera, gure olerkari zorrotz hau. Euskera, poesi bidez, eraberritu nahi; osertz[10] neurrigabeak darizkio. Aberastu dedin ontasun ugariak dakarzkio.

Maite minkuntasun[11] basoak lagata, adi zelaietara datorkigu olerkaria. Hara bere goitar indarrak noruntz daramakin, 'olerti huts' haranetara.

France-n batez ere, poesi gaia, aldakuntza gogorra jaso beharrean dago. Olerkariak, buru-belarri, era berriak sumatzen ari dira, olertiak goratu eta edertzekotan. Bremond, Valery, Claudel eta Souza 'poésie pure', 'olerti-huts' bidexurretatik[12] jo ta, poesi osertza zabaltzearren lehiatsu dabiltza.

Adi-poesia, oldozkun olertia[13], olerti gailurrenetzat daukate. Iturri garden, haran sotil, baso itzal, mendi zorrotz, maite min eta minkuntasunak beratutako gaiak goiar[14] egokienak direla ez uste; beste halako gai sakon eta barnekoak, adikorrak alegia, olerkari kementsuenentzat berekikoenak zaizkiotelakoan egon gintezke, ertilari horiek dasatenez[15].

Lauaxeta horien kidekoa zaigu. Azken neurtiz sailetan, eztabaidarik gabe, poesi huts zalea dagerkigu[16]. Gaztetasun bihozkadari uko eginik, adi jauregi barnean itxi zaigu.

Oldozkun gorenak, asmo mehe lurrungeak lagun, adimena nagusi, irudipena morroi dituala, olerti bide berritik jo digu. 'Jaungoikotija', 'Itxasora', 'Itzarrik', 'Artxanda-ganian', 'Jaunagan atsedena' eta 'Ezilkortasuna' poesi huts hesi barnean dagozenak dira.

---

[9] dasa: esaten du. *Esan* adizkia (*neol.*)
[10] osertz: ostertz, zeruertz (*neol.*)
[11] minkun: negarti, erostari. Minkuntasun: sentimentu, sentsibilitate
[12] bidexur: bidezidor
[13] adi poesia, oldozkun olertia: poesia intelektuala (*neol.*)
[14] goiar: goitar, goizale (*neol.*)
[15] dasatenez: esaten dutenez. *Esan* adizkia
[16] dagerkigu: agiri jaku (zaigu). *Agertu* adizkia (*neol.*)

Ahalmena, oldozkun ortzean goruntz darabilki olerkariak. Adigai bereziak, irudi gorputzgeaz jantzita, apain neurtitzen ditu. Mindun bihotz, berbera, lur ikutzeke gorenetara igo digu.

*Ezilkortasun zirikada*

Gailurrera igotzeak ez ase olerkariaren lehi*a* hilezkorra. Bizitz*a* arazoak urduriturik dauka bere gogoa. Lehen, maita-gaiak bihotzean min; orain, adi poesiak barnean garra piztu. Betikotasuna so dagi. Biziki dasa:

*Gomuta ezilkortu nahi dabe gizonak …*
*Urteak badoazi, urratsik ez dager,*
*non galtzen dira-edo?*
*Albaneuke uler!*
*Gizon-huts nazan arren, ez dot deuseztu nahi;*
*nahikun honeek ez ete ezilkortasun gai?*

Olerkari bikainenak ezilkortasun aiotsak entzun izan dituzte. Gure gazte honek ere dei horren oihartzuna neurtitzetan dagerkigu.

Poesi goiargiak lagun bekio ezilkortasuna iristeko. Adi-hego egokiak ditu nahikuna betetzeko.

Euskerari, bide latza, laguntzeko, Lauaxetak dagiana ez da lan makala. Bere *Bide barriak* goren, txalogarriak.

Olerti huts zelaietatik joan bedi. Nekeak ez dezala ahuldu; hain da galgarria bide hori! Oraindainokoan bulartsu darraikio.

Ez biezaie, ordea, maitasun gaiei, minkuntasun asmo samurrei uko egin. Hain olerki politak egin dizkigu! Hain gogokoak ditut gaztaro hasierako neurtitz horiek!

Adi-poesi eta maite-olerkiak ez ezik, beste gun ederra duten olerkitxoak aurki lezazkike irakurleak.

Uskurtz[17] hatsak ikututako bihozdunak badira. Oinarritzat sinesmen sendoa dutenak: edergarritzat, gaurdaino entzungeko iduri mehe goitarrak.

---

[17] uskurtz hats: erlijino arnasa, erlijio sen (*neol.*)

Gaur, Urkiaga olerkariaren agerkundea dakusgu. Gaztea izanik ugaritsu datorkigu. Oparitsu badator, ederzale ordea. Banatutakoak dira txorta honetan daskeinizkigun[18] loreak. Mota askotakoak, baina guziak bereziak.

Bihotzean aukeratutako kimu aratzak[19].

*Aitzol'dar* **J.**

Donostian

[18] daskeinizkigun: eskeintzen deuskuzan (dizkigun). *Eskeini* adizkia (neol.)
[19] aratz: garbi, puru (*ipar.*)

Eskeintza

*Basaratz'tar Bingene*
*Urkiaga'tar Joseba Mirena*
*guraso maiteai bihotzez opalduten*
*deutset olerki txorta hau.*

# GAIXORIK NAGO

Zer dodan ez dakit, baina gaixo nago:
gorputza ahul daukot, gogoa areago.
Arratsari nago... itsas urdinari,
lanari hel ezin, soilik ametsari.

Barnera so dagit: gaueko itzal antzo,
leize barru hontan ezin dagit zantzo.

Lar gozartu baitot bizitzaren guna:
legor dira lorak, hil maitetasuna!
Lehen eder jatazan mendien gailurrak,
zorion didarra egisten edurrak.
Oso nintzanean lurra zan ederra!
Ezpanak mosua, bihotzak eskerra.

Ene gogo leuna, zatoz hegotara!
Ume gaixo legez zatzaz galdatara.
Bidazti ez beti. Ez ibili haron.
Bihotz ahul horrek, ez gurenai jaramon.
Zidor hori nora? Ez dauko azkenik...
Itxi, arren, eta ez lehiatu goirik.
Maitatu arratsa, landatu oroia,
ekinai ezinik, bildu goiz-otoia.
Egun gitxi arren, nekatu naz oro.
Bizitza nork txastau leikean unoro!

---

[7] lar gozartu: gehiegi dastatu. Gozartu: gozo hartu
[10] didar: deadar (deiadar) / egisten: egiten eustien (zidaten)
[11] oso: osasunez
[14] galdatara: galdatan, sukarretan
[15] haron: hara-hona, hara eta hona
[16] guren: gauza handi, noble
[19] oroi: oroitzapen

Zer dodan ez dakit, baina gaixo nago:
gorputza ahul daukot, gogoa areago.
Lausoz lurra dakust.
Nahia mehe daroat:
ardatz antzo jabilt, lasai, harat-honat.

Etzunik banago, daurkit atsegina...
Pozik ez dot gura, ez dot maite mina.
Ez nagizu laztan, ezta be mosutu,
atzera mosurik ezin daiket bildu.
Neketu ez nadin ez dagit negarrik...
Eguzki galdatan, ez dot nahi izan deusik.

Loaren dei leunai zarratu begiak,
ederrak diran arren, urrundu liliak.

Zer dodan ez dakit, baina gaixo nago:
gorputza ahul daukot, gogoa areago.
Arratsari nago... itsas urdinari,
lanari hel ezin, soilik ametsari.

---

[28] daurkit: aurkitzen dot. *Aurkitu* adizkia (*neol.*)

# NEGUKO GAUA

*Errenteria'tar Gorgoniri bihotzez*

Hara edur zuriz, zuri, Oiz gorenak,
eta izotzak jorik geldi lats gurenak.
Ibarretan edur zuriak
dagiez izara barriak.

Hodeizko jantzian dator negu latza:
betiko goruaz edurren mataza
ehunduten dihardu ortzian.
Ameslari lerrak mendian...

Orri ikararik ez lertxun ta urkietan,
Garrak dir-dir begi suteko tresnetan.
Haize hotzo*r*i, hoa basora,
ipuin zaharrak, betoz sutera!

Pertza alboan, dantzan, Muruko sorgina,
hegazka Anbotoko andere ziztrina.
Loa betor umeen begira,
amets zitala, hoa mendira!

Gorbeian murruka haize eta edurra:
Oi jakun samurra, suteko murmurra!
Artega su-motots biziak,
jantzan mamu gorriz jantziak.

---

[2] lats gurenak: errekaondoak
[8] ler: pinu. (Zuberoa eta nafar ekialdeko hizkeretako hitza)

Ipini egurrik nahiko sukaldean;
sugarrak dirdira dagian artean
ez dago edurren bildurrik.
Ez izan hotzen ardurarik...
Egun hobearen deia da negua;
itxaron barik ez makurtu burua.
Gau-begitan dator eguna,
zoritxar altzoan, zoruna.

Asaben sutean piztu urrezko garra,
ta gogoan, bizitz*a* arau dan indarra.
Aberriaren txadon donea,
HAREITZ-sua dago*a*n sutea.

Hor, negu latzezko gau-ordu luzeetan
aintzazko hitz sakonak, idatzi zaharretan,
daurkiz gogo ameslariak.
Asaben eredu garbiak...

Poztu, ta bihotzak ez euki urduri;
gazte ulebaltz gara, ez zahar ulezuri.
Biharkoa itxi etorriari,
eta jantzan ta abesten ari.
Bizitza honetan ametsa da oro,
zadorrik, arren, ez egizu nahi idoro.
Larrosak tori arantzetan,
alde ona bilau gauzetan...

---

[28] zorun: zorion (*aranismoa*. Laburtzapena: *aran.*)
[29] sute: suete, sukalde
[31] txadon: etxe done, eleiza (*neol.*)
[35] daurkiz: aurkitzen ditu
[41] zador: misterio (*aran.*)

Hara edur zuriz zuri Oiz gorenak,
eta izotzak jorik geldi lats gurenak.
Itxarorik ez urrun jaurti,
bilau bizitza honen neurri.

Piztu su gorria soina berotzeko,
ta zahartzaro leunak edurrez beteko
deuskuenerako burua,
piztu, arren, maitasun sua!

# GURUTZE ALDERA

Gurutz*e* ondora heldu gurarik
bidea bila nabil neketan.
Zidor guztiak arantzaz dagoz,
sartuten jataz oinetan.

Nekezko bide esturik baino
horra heltzeko, Jauna, ez dago?
Elorri punten bildurrez beti
gurutzetik at bainago.

Odolez daukot neure gorputza,
urratu nabe sasi zorrotzak.
Baina ez nabe horra zuzentzen
nekezko bide mingotsak

–Ezin Neugana heldu al zara
samin arteko zidor aldetik?
Arantza horreek mintzen bazabez,
zatoz maitasun bidetik!

---

[2] bidea bila: bidearen bila
[15] bazabez: bazaitue (bazaituzte) (*aran.*)

# AROTZAK

*Uriguen'dar Joseba Mirenari*

Arotzak lan dagie, zahar eta gazteak:
ohia batak badagi, hilkutxa besteak.

–Arren, ohia bukatu nasai lo dagidan
bihotza*re*n poza jatan maiteaz batera.
Begiak apal itxi loaro aldian
eta irria datorke ezpanen ganera.
Ezkonbarrien ohia, bai da donetsia,
bertan zorunak dagi maitasun habia.

Arotzak lan dagie, zahar eta gazteak:
ohia batak badagi, hilkutxa besteak.

–Geldiro hilkutxa egin. Eder jat bizitza.
Itzalentzat bakarrik izaten da hilkutxa.
Hor ezin sartu neike maitasun irritsa,
eta gaztaroaren lorazko gorputza.
Zerraldoa ituna da itxaropen barik,
bertan ez da sortuten ametsen lorarik.

Arotzak lan dagie, zahar eta gazteak:
ohia batak badagi, hilkutxa besteak.

Isilik gaua dator liluraz bilduta:
Ene arotz gaztea, ekin beharrari.
Hain maite dodan ohia itxi amaituta.

---

[2] ohia: ohea
[7] donetsi: bedeinkatu (*aran.*)

Arotz zahar horrek, barriz, alde egin lanari.
Zeure soinak deskatu gaueko atsedena.
Goitik izarrez dator ordurik leunena.

Arotzak lan dagie, zahar eta gazteak:
ohia batak badagi, hilkutxa besteak.

Egunak argi dagi mendixka ganean:
Arotz agure horrek amaitu dau lana.
Zerraldo baltza daurkit etxeko atean...
Gaztea, barriz, loak ohatu dau dana.
Erdi eginik datza ohe hain kutuna.
Orain zertako dogu geure maitasuna?

---

[23] deskatu: eskatzen dau. *Eskatu* adizkia (*neol.*)
[29] daurkit: aurkitzen dot
[30] ohatu: nekeak hartu, menderatu, geldiarazo

# ITAUNA

Maitatzen bazaitut, itaundu deutsazu
leihoan klisk dagi*a*n ilargi izpiari.
Larrosa zuriko txindor kantuari
hitza hartu ezinik gaua igaro dozu.

Haizeari itaundu deutsazu legunki,
berak, baina, jolas dagi zeure ulean.
Ete dakie ezer izarren unean?
Mosu dagitsue guztiak kutunki...

Itaundu deutsazu zeru garbiari,
itsasoko uhinai ta izadi orori.
Maitasun horretzaz baina, maiteori,
ez deutsazu itaundu zeure bihotzari!

[8] mosu dagitsue: musu egiten deutsue (dizue)

# ERANTZUNA

Ilargi-mosu dabil edurtza zurian:
hurbil geure soin honeek maitasun zorian,
itzal meheak dagiez bide bakartian.

Hotzak izoztu daro*a*z maite-hitzak ahoan
eta dardar disuri barriro kolkoan,
maitasun hondar honeek gorderik gogoan.

–Maitatzen ete nozu, neskatil*a* liraina?
lehi*a* gurenez ditauntsot: hodei baltzez, baina,
ilun iluntzen jako bekoki bikaina.

Hitz leunez poztuteko neure gotiluna
begietan neuskio bilau erantzuna.
Erantzun horrek dakar minduen zoruna.

Isil berak didatzi edurtza ganean;
goibelez ilargia hodeien artean...
Nork digarke erantzuno*r*i gauerdi baltzean?

---

[4] izoztu daroaz: izozten ditu
[5] disuri: disuriz, isurtzen dira (*neol.*)
[8] ditauntsot: itauntzen deutsat (diot). *Itaundu* adizkia (*neol.*)
[10] gotilun: tristura (*neol.*)
[13] didatzi: idazten dau. *Idatzi* adizkia (*neol.*)
[15] digarke: igarriko dau. *Igarri* adizkia (*neol.*)

# MIREN NESKUTSAREN BASELEIZA

Gogo itunak dakien menditxu ganian
Neskuts samurra datza gaixoai begira.
Alaiak handik urrun badabiltz ludian,
baina begi minduak hara heltzen dira.

Artzainak otsein jakoz, argontzi izarrak.
Goiza jeiki ezkero han dabil kedatza.
Usaintzen dabe leunki hormako bedarrak.
Uso baten antzean baseleizo*r*i datza.

Horra doaz ahulduak otoi egitera,
baita gaixo-eztenak mindu dituzanak.
Guztiak ditxaroe maitasun-harrera.
Ur hori maite dabe gizonen ezpanak.

Horra gazteen eta zaharren ibildeunak;
Batzuek dakartsuez arantzazko oroiak,
eta besteak barriz itxaropen leunak.
Entzun ume-ametsak ta zaharren otoiak.

Horra doaz gazteak lorazko bidetik
onetsi dagizuzan maitasun-mosuak.
Zeru goiko argia Zeure txadonetik
ikusi gura leuke atsotxu minduak.

---

Izenburuan, Maria Birjinaren baseliza
5 argontzi: argiontzi, lanpara (*aran.*)
6 kedatz: ke hats, intsentsu (*neol.*)
11 ditxaroe: itxaroten dabe (dute). *Itxaron* adizkia (*neol.*)
13 ibildeun: prozesio (*neol.*)
19 txadon: etxe done, eliza (*neol.*)

Gogo*r*en batzuk baina ezin heldu dira
eta negar artetik gedar dagitsue.
Oinditik jeiki zaite gaueko argira
ta gaixooi bidera urten eiezue.

Herririk herri zoaz minduak poztuten:
Zeu ondoan zarala, heriotz*a* orduak
itun diran bihotzak ez dauz bildurtuten.
Begiak itxi, arren, tolestu eskuak.

Mendiko Neskutsori, zeure magalpera
negar guztiak doaz, oinaze guztiak.
Baina zuk goi aldetik Erregin*a*-antzera
aurreratuten dozuz geure lehi*a* larriak.

Hortik asetzen dozu laualde legorra,
baita euri eskean dagoan andana.
Zeuganuntz dator hegaz lugin oro*r*en lorra
eta hodeiak datoz, busti da oihana.

Hortik ikusten dozu izurri zakarra
seintxuak amakandik aldendu gurarik.
Euren ganera baina bator zeure eskarra
eta lurr*e*an ez dago halako lorarik.

Gaua datorrenean mendien ganera
Zeure kanpak dalaiez bihotz saminduak.
Txerrenak pozik doaz hoben egitera,
baina zainduten gabez zeure aingeruak.

---

[23] oindi: altara (aldare) (*neol.*)

[39] bator: badator / eskar: esker on, grazia (*aran.*)

[40] lurran (*orig.*). Aranatar giroko gramatikarien joera logikazalea: *lur* + *-an* > *lurran*, eta ez *lurrean*

[42] kanpak dalaiez: kanpaiak alaitzen dabez (dituzte). *Alaitu* adizkia (*neol.*)

[43] hoben egin: pekatu egin (*aran.*)

[44] zainduten gabez: zaintzen gaitue (gaituzte)

Bakarrik mendi goian, Neskuts maitatiak
umetxu zerutarra dager eskuetan.
Horregaitik ameak eta sein txikiak
pozik sartuten dira baseleiz horretan.

Zenbat alatz dagizan soinak osaturik!
Itsuak hor dakuste eguzki distira.
Garbiak hor badagoz bakez zoraturik,
negarrez hogendiak ahuspeztuten dira.

Zenbat oroigai datzan errukiz lotuta!
Itsasontzi politak, jantzitxu zuriak.
Txauno-bidazti legez honaino helduta,
txindirik ez daukonak damotsuz liliak.

Mirenen basatxauno mendian jarria.
Gotilunak dakie horrako zidorra.
Tolesgeentzat zara maitasun habia,
hobendientzat, barriz, babes maitekorra.

---

[46] dager: agiri dau

[47] ameak: amak (*aran.*). Aranatar giroko gramatika joera: *amea* eta *aitea* mugatuak orokortzea, *ama* eta *aita* mugagabeak baztertuz

[49] alatz: mirari (*neol.*)

[52] hogendi: hobenti, pekatari (*aran.*). *Hogen/hoben* + *-ti*. *Hoben egin*, 'makurtu, okertu' esatetik 'pekatu egin' adieraztera etorri da.

[55] txauno-bidazti: erromes (*neol.*)

[56] txindi: diru, sos (*neol.*). / damotsuz: emoten deutsuz (dizkizu). *Emon* adizkia

[57] basatxauno: baseliza, ermita (*neol.*)

[58] gotilun: gogo-ilun, triste (*neol.*)

# JADETSI EZINA

Zeure mosuak diran laztanak!
Eztizko lorak jatzuz ezpanak.
Larrosa horreen orri ganetan
ibili nahi dot loreil honetan.

Laztantzen dodaz sasi-liliak,
eta mahatsaren urrezko orriak.

Mitxeletatxu baten antzean
artega nabil latzin ganean.
Zeure larrosa politak, baina,
ezin laztandu, neska liraina.

Eragozpenak banantzen gabez,
eta mosua dil atsekabez...

Ahal dituazan lora gaixoak
laztantzen ditu geure gogoak:
Baina dil, lehi*a*tzen dauen lorarik
bere bizitzan jadetsi barik!

---

[4] loreil: lorail, maiatz. Hitz elkartua: *lore* + *hil*
[8] latzin: landa, lantzar
[11] banantzen gabez: apartatzen gaitue (gaituzte)
[12] dil: hilten da. *Hil* adizkia (*neol.*)
[13] dituazan: dituzan (dituen)
[15] lehi*a*tzen dauen…: desiratzen dauen…
[16] jadetsi: eskuratu, erdietsi

# MAHO GORRIA

Maitasunaren ikurkorra zan
zure leihoko mahoa;
ikusten neban goiz-iluntzetan
poztuten jatan gogoa.

Igande goize baten kantari
ebagi zendun ma eginez;
eskeini zeuntsan gazte bateri,
ikusi neban saminez.

–Ederra baita maho gorriau–
erantzun eutsun gazteak;
betiko orduan alkartu ziran
zuen bihotz maitaleak.

Eskeini zeuntsan maho ederra...
ene neskatila polita!
ta bazenkizun ernea zala
neure negarrez bustita.

---

Izenburuan, maho: krabelin. Zubererazko hitza
[1] ikurkor: ikur, sinbolo
[15] bazenkizun: bazenkian (bazenekien)

# ABAOA

Erladi urduria, neure gogamenok
ezpan gorrioi dagoz: arin dabiltz orok.
Urduri dabiltz neure gogai-erletxuak
zeure loretan batzen lora-irin guria.
Ezpan horreen lorakaz dagien eztia!
Bihotzean bil dodaz abao gozotsuak...
Maite gintzazanean
gordeten nenduazan bihotz barrenean.
Zeure ezetza, ostera,
mingots itunez jausi jatan bihotzera.
Gozo beharra neukon barruko minean,
eta mustau nenduan abao ederrena.
Baina zer txastau neban eztia*re*n ordean?
Ezpan horreen liliak baeuken edena!
Egiz neure bihotza
iratu jatan oro!
Maitasuna*re*n mingotsa
abao haren barruan baineban idoro!

---

[2] orok: oro, guztiak
[8] gordeten nenduazan: gordeten nenduzan (nituen)
[12] mustau nenduan: probau nendun (neban)
[13] txastau neban: dastatu neban (nuen)
[14] eden: pozoi
[16] iratu: pozoitu

# GAZTE GAIXOA

Mendi ertzeko gaztea arratsak dakar geldiro;
udazken hori barnera sartuten jako leunkiro.
Zugatzen orri zimelak lurrera datoz haizean
eta ametsezko zerria zabaltzen dabe bidean.

«Saminez nator zeugana, maite zaitudan basoa,
orbelen jauste minduak diraust heriotz*a* aroa.
Habi huts horreek zeureak, zeurea zarba zimela,
baina neure soin gaixoa luzaro bizi daitela.

Gaztea nazan ezkero oraindik ez dot hil gura.
Bekoki honek dagerren maitasunezko lilura
ezin ilundu dagike heriotzaren laztanak.
Arinik doaz hobira zeruak maite dauzanak!

Nik barriz nasai lo dagit itxaroaren azpian.
Itun dagozan bihotzak poztu egizuz ludian
edo bizitzaz minduai itzalez itxi begiak.
Ustege dago*a*n batentzat eske*g*i zugatz*e*an lokiak.

Mendiko magal ertzean dagoan hareitz zimela
aizkora kaxka zorrotzaz lurrera jausi daitela,
baina iraun begi lerdentsu emaitz*a* betezko zugatzak,
bere orrien itzalik ez bei apurtu ekatxak.

---

[4] zerri: alfonbra.
[6] diraust: dinost, esaten deust (dit)
[7] zarba: abartxo
[10] dagerren: agiri dauen. *Agertu* adizkia (*neol.*)
[16] loki: lokarri, kordel
[20] bei: begi (beza)

Mitxeletatxu sorginez eta larrosaz josita
orril-begian baitago neure loragu polita.
Barne-barnetik kantari, egunsentiko argira,
urrezko larratxoriak hegaz dagie ortzira.

Enara batek bezela gaztetasunak naroa
eta hegoak zabalik gorantza joat gogoa.
Oraindik ez dot hil gura, bizitzau jatan leguna!
Maite dau bihotz gaixoak ene aberri kutuna;

maitatzen ditu lagunak eta guraso tximurrak;
baita zeu bere, ene neskutsa, ta zeure begi samurrak.
Laguntza horreen eztia mustau nahi dot hil artean.
Bildurrik gabe nor doa hilobiko itzal bidean?

Atseginen mahai alaira didar dagiste guztiak;
dastatu barik, ostera, itxiko dodaz jakiak?
Esku arteko usuila edariz daukot beterik,
baina lorazko ezpanok ez dodaz busti oraindik...

Jolas zaratak neugana dakarz haizetxu zoliak,
maitati bere ateak zabaltzen deustaz ludiak.
Mosua erdi eginik itxi beharra, bai ituna!
Biharkoak beti dakar geure zalea*re*n zoruna.

Oraindik bizi gura dot, ludia jatan ederra!
Itunak poztu egiten boa arin gaixo ankerra!
Negarrak ondo dirudi aguren begi minduan,
baina mosua ederren maite diranen ahuan.

---

22 loragu: lorago, lorategi, loredi
33 didar dagiste: deadar egiten deuste (didate)
35 usuila: edontzia, txoleta, kopa
40 zalea*re*n zoruna: irrikaren zoriona
42 boa: beioa (bihoa)
44 ahuan: ahoan

Zaharrak hil beitez, oroiak arren ez dogu axolik,
itxaropenak galtzeak ez dauko, barriz, neurririk.
Neguai hotzak jagokez, udabarriai liliak.
Hobian soilik apurtu larrosa bageko ontziak».

Holan inardu*a*n gazteak orbel betezko bidean;
azken orria dardarka lurreratu zan haizean...
Baso aldetik betiko joan zan mutil gaixoa
ta itxaro hilaren antzean itun lotu zan basoa.

Negarrak ez eben lotu gaixo ankerra*re*n zauria
ta, lorak arren, betiko apurtu zan lorontzia.

Barriz heldu zan mendira udabarria*re*n laztana
eta lilien usainak alaitu eban oihana,
baina ostroen dardarak eta txorien txioak
inor ez eben idoro alai egiten basoak.

[49] inardu*a*n: ziharduen

# ILUNTZEKO IZARRA

Gazte zintzo batek itun so dagio
ortzi urdineko izar argiari.
Izarrak, minduen atsegin dan izpiz,
ma dagio mutil haren saminari.

–Neure maite ederra*re*n malkoa ete haz?
Hi baizen samurra dok haren negarra.
Bere begiak so egielakoan,
hain leunkiro mosu dagistak, izarra?–

Eta zintzo ituna izar ederrari
pozge so egiten egoan unean,
neska leunak beste maitale bateri
alai ma egion bekoki ganean...

---

[1] so dagio: so egiten deutso (dio) (*neol.*)
[4] ma dagio: mosu egiten deutso (musu egiten dio)
[7] so egielakoan: begiratzen ebelakoan (zutelakoan)
[8] mosu dagistak: mosu egiten deustak (didak)
[12] ma egion: mun egiten eutsan, musu ematen zion

# GAUEKO IRRINTZIA

Gau argitsuan bakarrik nago leiho idigian;
ibai garbian isilik dabil iretargia.
Izpi zurbilak diz-diz dagie baso erdian.
Ilargi horrek ez dau itzartu artzain zolia.

Mendi baltzaren goietan, muga bako bakeak
zaintzen dau zeru eta lurraren maitasun-loa.
Gaua urrezko koroiaz dabil. Lora legunak
ameslari, goi-gora digorte usain goxoa.

Gaueko gentzan gorpuzki honeek loratu dira...
Jainko distira oro da... Baso zehar emaro
menditik jatort leunkiro abots baten intzira.
Dardarka zeru zabal*e*an galtzen da naro-naro.

Baso izoztuan estalduta hago*a*n maitaleorrek!
Ez eik abestu, ba abes horretan dagerk bihotza.
Heure barneko kezkak jagerzak irrintzi horrek,
ixildu egik samin latzezko maitasun-hotsa.

Oi!, bihozkada leuna dariost heure irrintziak.
Heure saminaz batera dabesk neure samina

---

[1] idigi: edegi, ireki
[8] digorte: igortzen dabe (dute). *Igorri* adizkia (*neol.*)
[9] gentz: bake (*aran.*)
[10] baso zehar: basoan zehar
[11] intzira: intziri, erosta, zinkurin
[14] abes horretan dagerk: kantu horretan agiri dok. Abes (*aran.*). *Agertu* adizkia (*neol.*)
[15] jagerzak: agiri jozak, agertzen jituk (ditik)
[17] dariost: jarioten jat (zait), baina nork erako jokoan: jarioten deust (dit)
[18] dabesk: abesten dok. *Abestu* adizkia (*neol.*)

Bihotz orotan bardinak dozak maitasun nahiak,
abesti orok jagertek geure kezka bardina.

Irrintzi leuna galdu dok gaueko zeru garbian.
Eta hire samin horrek tolestu jozak hegoak.
Gau oroz, baina, dardarka bere leiho idigian
negar-zotinka iraungo baijok neure gogoak.

[20] jagertek: agiri joek, agertzen jabek (ditek)
[24] iraungo bai-jok (*orig.*): iraungo jok (dik). Aranazaleen joera baieztapena indartzeko

# ITURRI-NEGARRA

Ur gardenari begira
iturri ertzean lilia:
ur altzoan lili haren irudia.

Maitasun-hego meheakaz
haizeak baderagio
maite dauen urari ma leunki dagio.

Iturri leuna, ostera,
negarrez haizeak daro.
Eta urretxindorrak urari emaro:

«Zergatik negar jario?
Abar orlegi ganean
abeskide naukok oroldi bidean».

–Neure altzoan maitea
euki ta galdu ezkero,
zelan negarrik ez dagiket maitero?–

---

5 baderagio: eragiten badeutso (badio)
8 daro: daroa (darama). Uribekosta-Mungia aldeko ebakera
15 ez dagiket: ez dot egingo

# MAITALE KUTUNA

Inoiz ikusi bako maitale kutuna
neure opa samurrok laztanduten dabe.
Begi gelgarriz dargist bihotzeko iluna,
eta bere larrosak usainduten nabe.

Zerutar hegak ditu maitasun zaleak;
lurrera baizen sarri so dagi ortzira.
Bere leuntasun zehar mosu sutsuenak
ezpan ganean otoi bihurtuten dira.

Garbitasun usaina txakian disuri,
eta lo dago*a*nean ametsezko irriak
ahoko larrosetan dagerkoz urduri.
Ahiztatzat alai dartu zelaiko liliak.

Neskatil*a* hori nor dan ez dazau bihotzak;
baina bera dan ona, bera dan liraina!
Begi honeek ez arren, badakus ametsak.
Erean dazaukiot bekoki bikaina.

Sarri bilauko neban bizitza bidean
ta edertzat aitortu beraren gorputza,

---

[2] opa: desira, gurari
[3] gelgarri: miragarri, zoragarri (*neol.*) / dargist: argitzen deust (dit)
[5] hegak: hegoak
[9] txakian disuri: gelan isurtzen dau. *Isuri* adizkia (*neol.*)
[11] dagerkoz: agiri jakoz (zaizkio)
[12] dartu: hartzen dau. *Hartu* adizkia (*neol.*)
[13] dazau: ezagutzen dau
[15] bai-dakus (*orig.*). Aranazaleen joera baieztapena indartzeko
[16] erean: eran, tankeran. Aranatarren joera, inesiboan *era* + *-an* > *erean*
dazaukiot: ezagutzen deutsat (diot). *Ezagutu* adizkia

nork baina dasaioke begien aurrean:
–Maite haudana, ete haz neure neskutsa?

Maitasun honek Goiko Jaunagan ditxaro,
berak haizea*re*n bidez lilitxu guztiak
udabarri aldian dalkartuz emaro.
Berak lotuko ditu maitasun lokiak.

Indar isilkor batek batzen dauz gogoak;
hitzak lohitzen dituez maitasun gurenak.
Barre alaiak ezik, barruko malkoak,
zale honeentzat dira antzikur gardenak.

Maitaleak izanik alkartuko gara.
Jolas aldian ezik otoien orduan,
eguzkira ez bada, gaueko ilazkara:
noizak itxi Jainkoa*re*n izpizko eskuan.

Aldi alaitsu hori jadetsi artean
neure ezkongai bailiran neskatil*a* danari
begiratzen deutsiet dagidan bidean.
Neska polit bakotx*e*an zakust ameslari.

Besteak zeure ederra goratuten dabe,
eurentzat gelgarriak soin horren pitxiak.
Baina zeure zalean indartuten nabe
begi polit samurren leuntasun izpiak.

---

[19] dasaioke: esango deutso (dio)
[20] neskuts: birjina (*neol.*)
[21] ditxaro: itxaroten dau. *Itxaron* adizkia (*neol.*)
[23] dalkartuz: alkartzen ditu. *Alkartu* adizkia (*neol.*)
[27] antzikur: espilu (*neol.*)
[31] ilazka: ilargi
[34] danari: danai, guztiai. Inguru zabaleko herri-hizkera ebakera: dat. pl. *-ari*.
[36] zakust: ikusten zaitut. *Zakustaz* ordez *zakust*. Beste gehiagotan ere pluralgile bako adizkiak darabiltza *ikusi* aditzarekin.
[39] zalean: desioan, irrikan

Zerutarrak baitira geure maitasunak,
eta lehi*a*kide batek ez dauz lausotuko.
Oraindik ez dauz lohitu gurari lizunak
eta gorputz irritsak ez dauz banatuko.

Ikusezina zara, ezkongai neskutsa!,
baina, arren, entzun neure maitasuna*re*n nahia:
Edurra baizen garbi irauki gorputza,
izan zaite zitoriz gotzon baten gaia.

Izan zaite, oi neure neskatil*a* argia!,
maitatzen dodan amatxu baizen leguna,
lehi*a*tuten dodan alaba baizen garbia.
Hori litzake neure gogoko zoruna.

Samurtasuna landu gogo horren altzuan,
urrumarako zara ba usoen antzera.
Ondo zaindu zaidazan oinaze orduan
olderik nahiko dauko bihotzak ostera.

Ezpan horreentzat daukoz mosu samurrenak,
samin horreentzat, barriz, maitasun eztia.
Eta txori politen abesti leunenak,
zeugana heldu daiten loaro guria.

Zeu maitatzeko nazan bihotz samurduna!
sehaska ertz*e*an datzan amatxu lakoa.
Gorde zaidazan, barriz, jaio nintzan luna!
Eusko seme lerdena, bildur gabekoa...

---

47 irauki: iraunarazi, zaindu
48 zitori: lirio lore / gotzon: aingeru (*aran.*)
51 lehi*a*tuten dodan: desiratzen dodan
53 altzuan: altzoan
56 olde: grina, joera
63 luna: lehoi (*neol.*)

Zeugan pentsaten nabil Jaunaren bidean,
eta lokatz artean hegaz dagit azkar.
Andra baten oroia nahiko da lurrean
garbi iraun dagiguntzat etsai orok zehar.

Oi, neure bihotzeko ezkongai gardena!,
beti, arren, aditu maitati ortzira.
Zeugan mosua baizen kutun dot arrena!
Andrak ederren dira zerurantz begira!

---

[68] etsai orok zehar: etsai oro zehar, etsai ororen artean
[70] aditu: so egin, begiratu

# ITUNA

Maiteo*ri*!, agur, hil da betiko
geure maitasun kutuna.
Bihotz horretan aspaldiz dauko
bere hobi oso iluna.

Maitetasun hau udabarrian
irrika sortu genduan.
Nork dasaguken negu aldian
ipingo gendu*a*la hilkutxan?

Ametsa dana izan ete zan?
Oi, amets egin dauena
estaldutea, gogoarentzat
samintasunik latzena!

Leiho idigitik ilargiari
so dagiot gau baltzean.
Negarrez nago hodeiai adi
gauaro guztiz leunean.

Zeuk zelan, barriz, abes dagizu
gaueko aldi larrian?
Abesti hotsa bihotzak dantzu
zeure itzalezko txakian.

Neska sorgina, gau baltzenean
bildurrik bere ez daukozu,
geure maitasun hazurrotz hori
bihotzean badarozu...?

---

[7] dasaguken: esango euskun (zigun)
[8] ipingo gendula: ipiniko genduala (genuela)
[17] abes dagizu: kantatzen dozu
[19] dantzu: entzuten dau
[20] txaki: gela (*neol.*)
[24] badarozu: badaroazu. Uribekosta-Mungialdeko ebakera.

# TXAKURTXUA

Goizeko galdatara
txakurrak etzunik.
Harri ganean datzaz
begiak itxirik.

Nasai-nasai dedate
bero lizunkoia.
Izpi garbiak dargi
euren gorputz lohia.

Noizean behin gorantza
jaso dauz buruak.
Euliak atzemon nahi;
txakurren alperrak!

Kanpora durten pozik
neure txakurtxuak.
Jolas egin gura dau
toto txikertxuak.

Txakur zekenakana
heltzen da saltuka,
haiek baina hartzen dabe
amorruz orruka.

---

[5] dedate: edaten dabe (dute). *Edan* adizkia (*neol.*)
[7] dargi: argitzen dau
[10] jaso dauz: jaso dabez
[13] durten: urteten dau. *Urten* adizkia (*neol.*)
[16] toto txikertxua: txakurtxua (ume berbeta)
[20] orruka: orroaka

Tente ate aurrean
*Oriño* txikiak,
gora jaso daroaz
begitxu argiak.

Zeruari adika
ume bat bezela,
ikuspena dirudi
betesten dauela.

Eta txakur politak
oso ameslari,
ahausi egiten deutso
zeruko oztinari.

---

[23] jaso daroaz: jasoten ditu
[27] ikuspen: irudipen, begitazio
[28] betesten: begiesten

# EZKONTZA-EGUNA

Ortzargi-altzotik jatsi ete zintzan lurrera?
Hain garbi zenduzan jantziak, hain argi begia!
Bidean isuri zenduan lurringai guria...
Lurra ikutu barik zoiazan gotzonen antzera.

Maitasun zaleak sortzen ziran zeure soera.
Gozartu zenduan bizitza guztiko zoria.
Hegaz larrosara joan zan txirrita zuria,
maitasunak zabal egin eban lora ganera.

Neskuts, bil zenduan mosu baten zeure bizitza.
Eta betikorra bailitzan barneko irritsa
loratu jatzuzan begiak ludiko pozagaz.

Lora ezilkorrak, maitasunak, zeure bidean
zabaltzen ebazan, laster, baina, igartu zirean,
atzetik etorren heriotz*a*-haizea*re*n hotzagaz.

---

[1] zintzan: zinan. Idazlearen inguruetako adizki aldaera
[3] lurringai: usain gozo, perfume
[4] zoiazan: zinoiazan (zindoazen)
[5] maitasun zaleak: maitasun desirak
zeure soera: zeure sora, zeure begiradara
[7] txirrita: tximeleta
[10] betikor: betiereko, betiko (*aran.*)

# LUDI AMESKORRA

Soin honen sasipean negarrez bainago.
Zeure goi-esker barik bizitza jat latza!
Nahigabe itun azpian zauriturik natza,
neukon etxea, zaharrez, erori dalako.

Lehentxu maite ninduen munduko guztiak,
saminaren kateaz lotuta ikusteaz
negar gazia neugan itxi ta aldenduaz,
«lo egik –esan deuste–, zoritxar azpian».

Pozez beteta igazi nahi neban ludia,
atsekabeak baina lepo gane*a*n joaz,
«Mundu hau ametsa –esan deust–, zorakeria».

Gehiegi atsekabez neu asetuteko
arantzaz josiriko amets hain gozoak.
Zeu, Jauna, nahiko, alai neu erabilteko!

---

[2] goi-esker: zeruko grazia
[9] igazi: igaro

# GOGOAREN ERESIA

*Goitia'tar Martin zanari*
*bere gogoaren eresi hau dopaltsot*

Jaungoak gogo batzuk zauriz joten ditu,
eta nekean euren gorputzak hezitu.
Negar dagien arren, kentzen deutse dana,
eta kurtze gogorra da Bere laztana.

Itunik beti doaz bide bakartian,
oztaz euren gogoak zaurizko soinean.
Errukirik, ostera, ez dagertse Jaunak,
eta gehiago joten dauz bere geziak.

Ez ditu osatuten euren oin minduak,
inork ez dantzuz euren aiots saminduak.
Euren ortuko lorak dapurtuz ekatxak,
geriz*ar*ik ez dagie euraen zugatzak.

Gogorki kentzen deutsez diru ta lagunak,
laket barik badaurkiz beti gau ilunak.

---

Eskaintzan, dopaltsot: opesten, eskeintzen deutsat (diot). *Opaldu* adizkia (*neol.*)

[1] Jaungoak: Jainkoak
[4] kurtze: gurutze
[7] ez dagertse: ez deutse agertzen (die)
[9] aiots: aiene, heiagora, intziri
[10] ez dantzuz: ez ditu entzuten
[11] dapurtuz: apurtzen ditu. *Apurtu* adizkia (*neol.*)
[12] gerizarik ez dabe egiten euren zugatzak
[14] bai'daurkiz (*orig.*). Badaurkiz: aurkitzen ditu (*neol.*). Aranazaleen joera baieztapena indartzeko

Orok duste ahazturik Jaunak daukozala,
bihotz horren bizitza hain dager zimela!

Saminez jausten dira arantza ganera,
eta orok ditxiez legenar antzera.
Ordu haretan, baina, Urtziren mosuak
osatuten dauz euren zauri odoltsuak.

Berak legortuten dauz nekezko negarrak;
malko horreekaz piztuten dauz ortziko izarrak.
Amaieran maitekor Urtziren irriak
zabalduten deutsoez zeruko atiak.

Orok iges egitean Urtzi maitasunak
pozez laztantzen ditu gogo hain itunak!

---

15 duste: uste dabe (dute). *Uste izan* adizkia (*neol.*)
16 dager: agiri da (*neol.*)
18 ditxiez: ixten, uzten dabez (dituzte). *Itxi* adizkia (*neol.*)
24 atiak: ateak

# MOSUA

Abesti leunak loratzen ziran
ezpan ganeko gentzean.
Bihotz samurra bildu zeustazun
maitasunezko lehiean.

Orain isilik abesa dago,
eta zerurantz begira
diz-diz begian malkoak dagi,
maitasun baten distira.

–Abes bigunen erreginori!,
alai abestu egizu.
Orain maitale garealako,
saminez negar dagizu?–.

Ezpan kutunak neureganatuz
mosua damost amesti.
–Ta mosu honek –samurki diraust–
ez dabes anei abesti?

---

[2] gentz: bake
[3] bildu zeustazun: bildu zeunstan (zenidan)
[4] leihean: lehian
[5] abesa: kantua (*aran.*)
[7] dagi: egiten dau
[14] damost: emoten deust (dit)
[16] ez dabes: ez dau abesten. *Abestu* adizkia (*neol.*)
anei: mila (*neol.*)

# LIED

Ortzargi-mosuz xahutu
neurtitzik politenak.
Euren izpi artean loratu daitezan
neure maite samurra*re*n ametsik leunenak.

Pitxi gelgarriz josi
idustun dirdirtsua.
Garo bikain ganean izpiz lotu daiten
haren maitasunezko malko laztantsua.

Artizar malkoz busti
baso*e*tako lorea:
bere orri artean ostendu dagidan
neure neskuts liraina*re*n aiher tolesgea.

Gaueko itzalez landu
berunezko hilobia;
zerraldo horren altzoan hesitu dagidan
maite nenduanaren maitasun aztia!

---

[5] gelgarri: harrigarri
[6] idustun: iduneko (*aran.*)
[10] basotako: basoetako. Idazlearen inguruko ebakera: *basoetako* > *basotako*.
[12] aiher tolesgea: gorroto tolesgabea
[16] maite nenduanaren: maite ninduanaren (ninduenaren)

# BIHOTZEAN

Lorategiko edur zurian
irarri zendun neure irudia.
Haizea heldu eta hegal hotzez
hautsitu eban guztia.

Larrosa baten orri ganean
idatzi zendun izen maitea:
udea heldu eta eguzkiak
igartu eban lorea.

Neure gorputza esku meheakaz
marraztu zendun hare ganean:
etorri ziran olatu urdinak
atzindu eben unean.

Beti-betiko iraun dagian
badakizu non sakon irarri?
Bihotz barruan, maite kutuna,
maitasun hizkiz idatzi!

---

[2] irarri zendun: inprimatu zenduan (zenuen)
[12] eban (*orig.*). *Atzindu*: ezabatu (*neol.*)

# JAUNGOIKOTIA

*Agirre'tar Joseba Andoniri*

Noan Goiko Aitaren erruki-altzora:
begiok begoz behera ta bihotza gora.
Neugan bakea zala, at bilau nenduan,
zoruna baina soilik daukogu barruan.
Zeruko poza bila bihotz honen lorrak!
Guztiak nahi nebazan lagun iraunkorrak,
neu saltzaile nintzala Jaunaren maiteari.
Zuhur nintzaien grinai, gor esker-hotsari.

Ez zindudan maite nahi, Zeu maitatu izanik,
ezin nebalako bil beste maitasunik.
Hobena egun jatan, gaua ilargi bizi;
argian itsu nintzan, gabean begi-zoli.
Baina laket artean neban zeure mina!
Zeugaz bete izateko nozu ba egina...
Inon atsedenik ez, urrun zeuregandik;
ez zintzan tokietan Zeu bilatu nahirik!

Bihurtu zindudan ba izadi aratza,
larretako bakean nasai lo nengian,
ta begiok ebiltzan goizaldeko izpian.
Guztiak baina soilik ziran zeure urratsa!

---

[3] bilau nenduan: bilatu neban (nuen)
[4] zoruna: zoriona (*aran.*)
[5] poza bila: pozaren bila / lor: neke
[7] Jaunaren maiteari: Jaunaren maitasunari
[8] esker-hotsari: graziaren hotsari
[16] ez zintzan: ez zinan

Zelan gabiltz ikusi ezin zaitugula,
zeugana joateko argizko bideak
gauza danak badira?
Udalehen ta lorak.

Munduan argiz zagoz, oropoz dozula.
Arnas deunak darabil loren urduria.
Begiak goian dozuz?
Izar izpi oro.

Loretan lora zara, argitan argia.
Zagozan tokietan zelan ez idoro?
Ez zindudan baina nahi, Zeure argi meheak
agertzen eustalako maite danen motza,
euretan, barriz, gogor neukozan begiak...
Argi horren barne, eder, soilik heriotza.

Erakutsi zindudan lurreko argiak,
iraunkorretan baina nazan higikorra!
Txar bidean zintzoa, zeugan aldakorra.

Eta aldendu gurarik jo neban lainora:
gauza oro*re*n artetik ametsen altzora.
Guztietan zengozan, oro zeure maite.
Ikusi ez zaidazan nora joan naite?
Toki bat zan bakarra:
Hobena*re*n kolkoa.

Haren ilun barrura ezin heldu zaite.
Argiak ikus ezin gaua ta lainoa.
Nork ikertu leikean neure etxe zahar hutsa?

---

[24] oropoz: oro poz, dana poza
[33] erakutsi zindudan: hark niri zu erakutsi
[39] ikusi ez zaidazan: ikus ez zaitzadan
[44] mukur: enbor / kiatsa (*orig.*) / keats: ke sunda

Mukurrak heze ziran, dana zan keatsa.
Hara bere heldu zintzan.
Horra min zorrotza!

Zeugan lotu gurarik gizonen bihotza
zeuk ipini zenduan poz arteko mina.
Gorako bide erreza, barneko samina.
Malkoak lehen garoez zeure eskerreraino,
munduko aintzak eta bide lauak baino.
Gaixo hutsa ni natzu, zakidaz erruki.
Oso arrakal nintzan, bihotz muina jausi.

Nork gurako koskola, dana bada sasi?
Maite nebazan gauzak joan dira igesi.
Orain txiro nagotzu, baina zatorkidaz.
Malkoen barna zelan argitan zaurkidaz?
Poz artean ostera ezin zeu idoro!
Gizon guztien barnak bai dirala zoro!

Ene Jauna, Jaun ona, erruki zakidaz!
Txiroarren, ez jaurti seme saltzalea:
arantz*ar*ik ez betestu bere labakian,
bai baina sortu daben garbaizko lorea.
Lehenen zauriz josiak dozuz errukian.
Aitaren maitasunak baitau kutunena
gaixoa dan semea, seme minduena!

---

[49] malkoek garamatzate zure graziaraino
[51] natzu: naiatzu (natzaizu). Olerkariaren inguru-hizkerako adizki aldaera
[52] oso arrakal nintzan: guztiz arrakaldu nintzan
[56] zaurkidaz: aurkitzen zaitut. *Aurkitu* adizkia (*neol.*)
[60] txiroarren: txiro dalako
[61] arantzarik ez begietsi bere luberrian
[62] garbaizko lorea: damuzko lorea

# LILI-NEGARRA

Mungiako ibai ederra,
Lehen gardena, o*ra*in ugerra.
Haren altzoan murgildu baita neska liraina.

Goizean goizik latsean,
lats garbiaren ganean
lora bat legez aurkitu eben neskuts bikaina.

Oihal garbitzen harrian,
oinak erreka garbian,
goizaldero zan gogai samurrak maite ondoan.

Lugin baten irudia,
oro*re*n isilik maitia,
oro*re*n isilik sarturik eukon bere gogoan.

Mungiako ibai zabala,
ibai ederra bai dala!
Itsasorantza loraz daroa urlo apala.

Lugin mutilak ertzetik
maitasun onez beterik
oroigarritzat eskeinitako lora zuriak.

Lora bat ibai erdian,
bitsezko otzara zurian
neska leunari bialdu eutsan lugin gazteak.

---

[9] gogai: pentsamentu
[11] maitia: maitea
[15] urlo: urmael

«Lili gorri, lili gorri,
hire margoak dirudi
ezpan-loretan maiteak loran daukon marrubi».

Mungiako ibai urdina,
Lehen gardena, oin zikina.
Zeure altzoan neskak dakustez lora zuriak.

«Hator neure eskuetara,
neure esku garbietara,
maitea*ren* ule-kizkurren antza bere orriak».

Liliak irri egian,
irribarre ibai erdian.
Naro ebilen lora sorgina urlo garbian.

Ibai ertzeko munatik,
lilia atzemon gurarik
neskatil*a* harek luzatu eban esku liraina.

Ai ene! Ordu txarrean!,
irrist eginik munean
erreka altzoan ito egin zan neska bikaina.

Mungiako ibai zabala,
ibai ederra bai dala!
Mungiako ibai gardenak loraz urlo apala.

---

[27] dakustez: ikusten dabez (dituzte). *Dakusez* tradizioko eta arauzkoaren ordezko adizkia

[31] irri egian: barre egiten eban (zuen)

[38] munean: munan. Aranatar gramatika-joera: *muna*, *munea* > *munean*.

# LIPARRA

Zelai orlegiko gentz zehar emaro
hodeixka zuria*re*n itzala digaro.
Holan heltzen jaku heriotz*a* ahantzia;
gozartu dagigun larrosen eztia.

Hodeixka itzal hori baizen samurkiro
lora zehar bebil geurea leunkiro.
Laztandu dagidan, ekarzu eskua:
lora artean kutun ez jatzu mosua?

Neure ezpanai adi, pozik barre egizu.
Bihar maitatuko garan ez dakizu...
Liparra gozartu, hilkorrak baikara;
haize-hegatan dabil loren mosu-ikara.

Hodeixka itzal hori dabil zelaietan:
–Zorion aldiak zeuen bihotzetan
ezilkortu, arren– dirauskue zaharrak.
Bai zera, bai zera, laztandu larrosak!

---

[1] gentz ziar: bakean zehar
[2] digaro: igaroten da
[3] holan: honela
[6] lora ziar bebil: loran zehar ibil bedi
[11] liparra gozartu: momentua gozatu

# SEINAI ABESTU

*Barrena'tar Miren Arantzazuri*

Senarra gaixo ohean datza,
soina oinazez beterik.
Emazte onak diru guztia
eralgi arren, alperrik.
Zoritxarraren urrats isilak
etxean dakus bakarrik.

Seintxuak, baina, negar dagi-ta,
isilduteko ameak
abots alaiaz abesten deutsoz
sehaska abesti maiteak.
Dingilin dangalan,
dingilin dan.

Minak minduta aiots garratzak
bihotza urratzen deutsoe.
Eri zitala..., orok igeska,
bakarrik itxi daroe.
Haren begiak gorri baitagoz
negar latza darioe.

Neke gogorra. Gorpua gelan
argi horien erdian.

---

[4] eralgi: xahutu, gastatu

[8] ameak: amak. Aranatar giroko gramatika-joera. *Amea* mugatua, *ama* mugagabearen lekuan

[15] orok: oro, guztiak

[16] itxi daroe: ixten dabe (uzten dute)

Joale itunak danba dagie
eleiz torreko ganean.
Danba dagie, itunez bete,
sartzen dira bihotzean.

Seintxuak, baina, negar dagi-ta,
isilduteko ameak
abots alaiaz abesten deutsoz
sehaska abesti maiteak.
Dingilin dangalan,
dingilin dan.

Sarats ondotik gizon ahaltsuak
eroan dabe hobira.
«Betiko agur, senar onori,
geure bihotzak hil dira!».
Eta begiak atzean doaz
hilkutx*a* baltzari begira.

Gizon gaiztoak kentzen deutsoez
etxeko gauza guztiak.
Senar onaren ohea zana
atzitu dabe zikoitzak.
Laster kanpora urten beharko
hango emazte garbiak.

Seintxuak, baina, negar dagi-ta,
isilduteko ameak
abots alaiaz abesten deutsoz
sehaska abesti maiteak.
Dingilin dangalan,
dingilin dan

---

21 kanpai tristeak danba egiten dabe
40 atzitu dabe: harrapatu dute

Atzamar mehetik kenduten deutse
zilarrezko eraztuna,
ezkondu ziran goiz ederreko
gomutagarri leguna.
Zapi zakarrez ate aurrera
erdu da txirotasuna.

«Agur betiko neure asaben
etxalde argi-zuria.
Jaso balebe asaba haiek
lurpean dauken burua...
Baina itxi daigun isil-isilik
galdu dan etxe mindua».

Seintxuak, baina, negar dagi-ta,
isilduteko ameak
abots alaiaz abesten deutsoz
sehaska abesti maiteak.
Dingilin dangalan,
dingilin dan.

«Igartu dira lora landarak,
igartu dira zugatzak.
Neure ortuan umotu dira
zoritxarraren emaitzak.
Lehengo maitasun igali leunak
lurrera ditu ekaitzak.

Bihotz gogorra euki behar da
asaben etxea ixteko».
Eta negarrez geldiro doa
urrun aldera betiko.

---

[49] kenduten dautse: kenduten deutsoe (kentzen diote)

Ogia bila seintxu harentzat,
gose ankerra kentzeko.

Seintxuak, baina, negar dagi-ta,
isilduteko ameak
abots alaiaz abesten deutsoz
sehaska abesti maiteak.
Dingilin dangalan,
dingilin dan.

# BETIKORRA

Joale hotsak entzuten dozuz,
hil-joale itunak.
Euren zioa ez dazau baina
zeure barneko alaitasunak.
Nor hil ete dan itauntzen dozu?
Oi neure kutuna!
Hil-kanpai horreen zio pozkea
geure bihotzen maitetasuna!

Zerraldo baltza ikusi dozu,
zerraldo haundia.
Zuriz jantzi*rik*o mutil gazteak
urrun eroien hila*re*n ontzia.
Zer daroienentz itauntzen dozu?
Oi neska aizuna!
Zerraldo horretan hilik daroie
geure bihotzen maitetasuna!

Hobi itxia idoro dozu
haran itunean:
sasi zorrotzak eta bedarrak
hilobi baldar izengabean.
Nor ete datzan jakin nahi dozu?
Oi neskuts kutuna!
Hor izen bako hobian datza
geure bihotzen maitetasuna!

---

[3] ez dazau: ez dau ezagutzen
[7] pozkea: pozbakoa, poz gabea
[14] aizun: faltsu

# ABESTIA

«Esku horreen laztanez,
gazte, urik ez lohitu.
Ur gardena bakarrik
gogoen ispilu».

Neskeak esku meheaz
urari mosua:
harri koxkor artean
ura lohirik dua.
Ura kanta-kantari,
neskea negarrez.
Urak esaten deutso
abostxu samurrez:

«Esku horreen laztanez,
gazte, urik ez lohitu.
Ur gardena bakarrik
gogoen ispilu».

Neskatxak itun dakus
ur garbia lohirik.
Garbitasuna dau amets,
eta ez dau pozik.
Abar puntatxu puntan
txindorra kantari,
eta abestuten deutso
neskatil*a* leunari:

[8] dua: doa

«Esku horreen laztanez,
gazte, urik ez lohitu.
Ur gardena bakarrik
gogoen ispilu».

–Abestuten deustazun
txindor kantaria;
zergaitik lehen ez esan
zeure abestia?
Zergaitik ur ertzean
txinta-txintalari,
ez eutsozun abestu
lohitu ninduanari?

«Esku horreen laztanez,
gazte, urik ez lohitu.
Ur gardena bakarrik
gogoen ispilu».

[35] ez eutsozun abestu: ez zeuntsan abestu (zenion)

# MENDIETARA

Urrun giz*a* hotsetatik, mendi*e*tara noa,
lehiak ba lohitzen dabe garbi dan gogoa.
Bedarte zehar nabil loratxu artean,
girin bako pitxiak irrika bidean.

Gorrotorik ez dauke bedartxu oztinak,
txori pioak dira zugaitz atseginak...
Neure ondoan doa latsa nausikiro,
Bihotzo*r*i!, mustau daigun bake hau geldiro!

Haizeaz hitz dagie makal amestiak,
larrosakaz olgetan mitxelet*a* zuriak,
Neketzaz ez dakie zelaiko bedarrak,
euren malkoak dira oihane-altzoan;
lora polita derne iturri ondoan.

Abar-leka samurrak dar-dar egitean
euri tantak disuri oroldi ganean.
Loretan habirik ez dagi gorrotoak,
zerutzaz amets dagi zelaiko gogoak.

---

[1] menditara: mendietara. Olerkariaren inguru-hizkerako ebakera: *mendietara* > *menditara*
[2] lehi: irrika
[3] bedarte ziar: bedartzan zehar
[4] girin: grina
[5] oztin: urdin
[8] mustau: dastatu
[11] neketzaz: nekeaz
[13] derne: erneten da. *Erne* adizkia (*neol.*)
[14] abar-leka: abar-begi
[15] disuri: isurtzen ditu. *Disuriz* behar leuke hor
[17] zerutzaz: zeruaz

Poz eztiz egurasten, bai, atseginkorra!
Haizea*ren* hego-puntan doa geure lorra...
Mendiak alde baten, bestean zugatzak,
honaino ezin heldu ludiko ekatxak!...

Oihu artega ordez, abarrots adia,
eta ur ezkutatuen otoi-erasia.
Txori kantea dabil urduri sasian,
zelan bizi naiteke negarrez mendian?

Bedar meheak dinoe, baita txori onak:
–Zergaitik ete dozak hain txarrak gizonak?–
Pozez danai begira sortzen jat lilura,
eta maitasun hegoz banoa zerura.

Gitxik dazauen gentzan nabil ameslari,
holan damotsat aintza Urtzi*ren* emoiari.
Urrun giz*a* hotsetatik, mendi*e*tara noa,
lehiak ba lohitzen dabe garbi dan gogoa.

---

[23] otoi-erasia: otoi-marmarra
[30] dazaben (*orig.*). Dazauen: ezagutzen daben
[31] damotsat: emoten deutsat (diot)

# BERE HILOBIAN

Urrundik nator lotan datzan hilobira;
lo dagi gotzon eran, zerura begira.
Gurutz*e* zuri ganean
adaskatxu guria,
lili-mosu antzean
usainduten hobia.

Harzabal-gain otoika: maitasun otoia
hegak zabalik zeru zehar doia.
Maiteori!, zeruan, izpizko jantziaz,
oroitzen ete zara
eginitako hitzagaz?
«Neure bihotz-dardara
hilda bere zeurekin izango da beti».
Hitz hori entzun neban samurki-samurki.
Txoriak abeslari ta adaxka gorriak
zabal daroaz bere odolezko orriak.

Oi maitasun gelgaia! Larrosondo igerra
ta bihotza dirudi*a*n larrosa ederra.
Zatorkidaz eskura,
eroan zagidazan aintzazko zerura.
Neure odolak gudan gorrituko zaitu,
eta neure altzoan atsedengo dozu.

---

[2] lo dagi gotzon eran: lo egiten dau aingeruak legez
[7] arlabal-gain (*orig.*). Harzabal-gain: harlauzaren gainean
[11] eginitako hitzagaz: emondako berbeaz
[17] gelgai: harrigarri
iger: igar

Bihotz loratuori,
zagoz neurekin beti!

Zeru eder aldean
min zara neu negarrez itun ikustean?
Isildu da txoria, leun dabil haizea,
eta larrosa altzotik tantada donea,
dar-dar... argizko diz-diz... izarren antzera,
maite-malko bailitzan jausten da lurrera.

# JAUNAGAN ATSEDENA

*Zeugan lotu arte,*
*ene bihotz hau urduri dago...*

Zuretzaz jardun neban, zuhur esker-hotsari;
zeure baitan nenbilen, han ez zan neurririk.
Hara heltzeko ez nu*e*n burdi ta ontzirik,
nahi bateri nengoan..., eginak, nahiari.

Goia zabal egoan larradi ganean
eta senti zindudan gauz*a* oro*re*n bakean.
Dana hur-urrun zeunkazun: izar, mendi ta lur;
izate horren urrun, maitasun horren hur.

Banekian zintzala, baina non, Jaunori?
Argitan, ezkutua zeure egote hori.
Guztietzaz ahazturik Zeugan jarri nintzan,
ikus nahi zindudala gogoko ekintzan...

Grinetan ez zintzazan, ez atseginetan;
samina idoro neban laket guztietan.
Lorarik ez zan inon arantzatxu barik,
arantzetan ez dago zeure maitasunik.

Munduko hotsen barruan ez da zeure gentzik.
Sartu nintzan barnera: Gogo hau artega;

---

[1] zuretzaz: zutaz / esker-hotsari: graziaren hotsari
[7] zeunkazun: zeunkan (zeneukan)
[11] guztietzaz: guztiez, guztiakaz
[13] ez zintzazan: ez zinan
[14] laket: plazer, atsegin
[17] gentz: bake

Zeure egonak oso leundu eustan baina...
Nabaritu neban gentza... zerutar usaina.

Menak isildu ziran, heldu zan goznarra,
argitu jatan soina, ludi hau aldatu.
Toki orotan zintzan eskerrez loratsu;
zeuri orri dardara ta iluntzeko izarra.

Zeure oinkada barik ezer inon ez zan.
Argi ta eder dira egin dozuzanak,
neurriz gauza guztiak daukozuz jakintzan.
Lurreko gurenetan dager zeure indarra.

Txikientzako bere badozuz laztanak...
Batzuk dagerte ahala, besteak eskarra.
Ispilu barri jakuz hemeko gauza danak;
ikurrai soilik gagoz ikus zaituguzan.

Eta senti zindudan arren ludi honetan,
zeure maitasun hori urrun zan oraindik.
Oldozkor jarri nintzan idoro gurarik...
Bihotzari: –Badakik Urtzi jauna non dan?
–Izatez ludi barna, maitez gizon baitan–.

Sakona argitu jatan... oro ulerkorra;
igar neban gizonen barruko zadorra.

---

21 men: behar / goznar: gogoeta, *lit.* goi hausnar (*neol.*)
22 ludi: mundu (*neol.*)
25 oinkada: oinatz
28 lurreko gurenetan dager: lurreko gauza miresgarrietan agiri da
29 eskar: esker, grazia
30 hemeko: hemengo
31 ikus zaituguzan: ikusi zaiguzan (zaitzagun)
34 oldozkor: pentsakor (*neol.*)
36 ludi barna: munduan zehar
38 zador: misterio
igar neban: igarri neban. Poetaren hizkera-inguruko laburdurak: *igar neuen*, *igar nendun*.

Ulertu neban ondo umeen begiak
esker horrek maitekor egiten dauzala.

Abar ustelak arren, zeuri jagotzunak
loraz orrila*r*i barre egingo deutsola.
Baina urduri nenbilen, artega gogoa;
ezkutu batek dana jakin-nahi naroa.

Eta barru honetan zertan zaran ari
ulertu nahirik, lotu nintzan ameslari.
–Argiz zagoz, orotan, soinak barriz laino,
zeurerik entzun ezin, hoben hotsak baino–.
Nork igarri hondar hau? Ete nago itsurik?

Neugan zagoz, ni barriz urrun zeuregandik.
Badakit baina zeu*re*tzat hautu dozuzanak
bihotzeko urduriz, maite zagizala,
zerorrek azkon biziz egiten dozula.

Atseden neurrigean zeugan datzazanak!
Zeure ate horretan emoiak hartzea
hots egitea baino errezago dala:
bilatzea baizen leun zeuri egotea.

Zeugan maitatzen danik itxi behar eza;
oro zeu zaralako, muin eta azala.
Jagotzuzan danentzat arro bako leza,
labangarri dan laua hoben jarraile*e*ntzat,
itsuentzat argia, iluna argientzat.

Zeure onari nago*a*n, larritasun barik!,
dana baita horrako argizko bidea.

---

[42] orrilai: maiatzari
[54] neurrige: neurribako, neurrigabe
[57] bilatzea: aurkitzea
[60] zurekin dauden guztientzat arro gabeko leizea
[61] lau: lautada, zelaiune

Zeure laztanik gabe ez dago lorarik,
esku horreekandik at ez dabil gizonik.

Ludia dago zeure aintz*a*-bidez betea.
Atseden, bihotzorrek, ez izan urduri!
Jaunaren zabalean lehi*a* oro isuri.
Betiko poza bertan, maitasun osoa.
Harantz begira lotu, haron dan gogoa.

---

[69] lehi orok (*orig.*): lehia oro, irrika guztiak
[71] haron: hara-hona

# ARTZAIN ONA

Jauna*ren* ardi galduak,
hotzez minduak,
bazka barik mendian.
Gosez artalde dana,
artzain laztana
hilda zugaitz ganian.

Ihintzez datoz ardiak,
ardi zuriak.
Joranez heltzen dira
hilda datzan artzainak
jaki bikainak
daukozan jaupontzira.

Geure artzain samurra!
Goian edurra
ta ibarrean izotza.
Oro*ren* jaki epela
izan daitela
zeure maite-bihotza.

Zeure gorputz garbia
geure jakia
izaten da nekean...
horren gozotasunak

---

[6] ganian: ganean (gainean)
[9] joran: grina
[12] jaupontzi: sagrario (*neol.*)

oro*re*n itunak
ditzuliz eskerrean.

Jauna*re*n ardi galduak,
hotzez minduak,
bazka barik mendian.
Gosez artalde dana
artzain laztana
hilda zugaitz ganian.

[24] ororen itunak ditzuliz eskerrean: guztien tristeziak bihurtzen ditu grazia. *Itzuli* adizkia (*neol.*)

# ZAURIA

Ehuna tarrat nenduan arantza batean,
neure maitasun bila joan nintzanean.
Josteko zeuri nintzan.
Joskilaen ekintzan
lorapean zengozan zurezko aurkian.
Ehunduten zendun arin zapitxu zuria,
orratza esku-mehean, otzaran haria.
Gazte bat lotzen zendun zapiño garbian:
txirula joten eta ardiak gordetan,
txakur mustur-gorria etzunik oinetan.

Neska polita zintzan
joskilaen ekintzan.
–Josiko deutsut pozik, –zeuk, berba samurrez–.
Belaunbiko nintzaizun, bihotza bildurrez.
Zeure atzamar meheak bularra*re*n ganean
leunkiro sentitzean,
mutil politari so negion dardaraz.

Oro nintzan azkuraz...
Laster uxatu zendun hain amets gozoa.
Zeure bihotza dozun errukibakoa!
Jantzia josi barik,
leunki, bildur bagerik
zulatuaz bihotza
sakon sartu zeunstazun jostorratz zorrotza.
Eta neure soineko tantatxu laztanak
gorri egin ebazan mutila*re*n ezpanak.

---

1 tarrat nenduan: urratu neban (nuen). Tarratada: urradura
5 aurki: aulkitxo
8 lotzen zendun: brodatzen zenduan (zenuen)
18 azkura: antsia

# MIRENI OTOIA

*Gabonilaren 8an*

Hoben-zauri mingotsen
osagai bakarra!
Zeure maitasun horrek
dezeingu negarra.

Bihotz-ikaraz gagoz,
oi geure Neskutsa!
Esker diz-diz daro*a*zuz
gogo ta gorputza.

Ezpan zerutar horreen
leuna gozartzean,
itxaroa sortzen da
hoben itzalpean.

Geure samin artera
jatsi*ri*ko Onespena.
Arren, Ama, jadetsi
lizun-askespena!

Didar dagi*a*n bihotzak,
Miren errugea,
egin zaitu zeruko
maitasun atea.

---

Izenburuan, Andra Mariari otoitza
[4] dezeingu: desegiten deusku (digu)
[16] lizun-askespen: lizunkerien barkamen. *Asketsi*: barkatu (*neol.*)
[18] erruge: errubako

Zeure garbitasuna
geuregan isuri,
soin ta gogoz diraugun
garbi eta zuri.

Ama on, bihozbera!,
gotzon atsegina.
Begi horreek baitira
barneko urdina.

Errugabe bakarra
neure bihotz hila
itun zeugana dator
bakuntasun bila.

Orok ezesten daben
bihotza*ren* malkoa
altzo horretan dimintsut:
O, Miren gozoa!

Jaunaren ahal-alatza
izadi guztia,
maite-alatza baina
Zeure Sorkundia.

---

[23] soin ta gogoz diraugun: gorputz eta arima iraun daigun (dezagun)
[32] bakuntasun: apaltasun, xalotasun, umiltasun
[35] dimintsut: iminten deutsut (dizut). *Imini* adizkia
[37] ahal-alatza: ahalmenaren miraria. *Alatz*: mirakulu (*neol.*)
[39] maite-alatza: maitasunaren miraria
[40] sorkunde: sorkuntza, kontzepzio

# SEHASKAKOA

*Goxeaskoetxea'tar Joseba Mirenari*

Galtzu ganean, lotan izarra;
gizon guztien izar bakarra.
Izar eder horren maitasun izpiak
beraganantz daro*a*z minduen begiak.

Mirenen izar, bitxi argia,
loaroan da ume zolia.

Maitasun zale da kutuntxua;
ene bihotzo*r*i, lehi*a* onez bua.
Leunki hurratu naz, leunki beragana,
ta ezpan-loretan damotsat laztana.

Maitati lotan dago seintxua,
bere zere*g*ina... amets gozua.

Neskuts zerutar baten emoia,
errukiz entzun neure otoia.
Belarri ondora samur hitz dagitsat,
Josuk baina ez dau berbarik neuretzat.

Maitasun zalez datorrenari
erantzun ez ta maitale-egarri?

---

[8] bua: badoa. Agintera adizkia ere izan liteke: beioa (bihoa)
[9] hurratu: hurreratu
[10] damotsat: emoten deutsat (diot)
[15] hitz dagitsat: hitz egiten deutsat (diot)
[17] maitasun zalez: maitasun guran

Oi, loaroan dago haurtxoa,
bere zeregina... amets gozoa!
–Gurutze ganean eskegita dagola,
tantaka emoten Jaungoikozko odola–.

Galtzu ganean, lotan izarra;
gizon guztien izar bakarra.
Maitati dago lotan haurtxoa,
bere zeregina… amets gozoa.

# ARTXANDA GANEAN

*Maioresque cadunt altis de montibus umbrae*

Gauaren begiok, maitekorrak jataz,
legunduten nabe!
Euren sakonean betirauna dakust,
bakea ertz gabe.

Bihotz mindu horrek, tolestu hegoak,
ondoan zadorra!
Barnera bil hadi, gaua, alde honeetan,
goian artizarra.

Ene lehi*a* biziok, horra gau sakona!
Bizitz*a* ezkutua,
heure iluntze hori izango ete dok
horren gentzatsua...?

Gaua isilik dabil, argizko koroia
darabil buruan.
Gotzonen hegoak dardara dagie
zeru oztintsuan.

Luginak etxerantz, idiak atzean,
begitan bakea:
zelai orlegiak damotsen bakea.
Oi arrats donea!

---

[3] betiraun: eternitate
[6] zador: misterio
[12] gentzatsu: baketsu
[16] oztintsu: urdintsu
[19] damotsen: emoten deutsen (dien)

Baserriko keak urdinera digo
mendixka ganetik.
Itzalak bailiran gautxoriak datoz
torre zahar aldetik.

Erroka txadonean kanpai-hotsa dantzut
harana isil behean.
Durundi-hots horreek mendiz mendi doaz.
Otoiak zelaian...

Zugatzetan kezka barik gandua da...
Ta neure gogoak
goznarrari minez ekiten baideutso.
Uler nahi zadorrak!

Bitartean anei argi uri hortan
agertuten dira.
Alde honeetara bere helduten jaku
tximisten dirdira.

Uriko zaratak kezkatuten dabe
mendiko lilura.
Nora joan ete da txaide artetik
gentzazko logura?

Uriko gau hori! Maltzurren laguna!
Baserri aldera
zertan heltzen zara, argi horreen keinuz,
gaizkinen antzera?

---

[21] digo: igoten dau. *Igo* adizkia (*neol.*)
[25] Erroka txadonan (*orig.*): San Roke eleizan / dantzut: entzuten dot
[27] durundi-hots: trumoi
[28] otoi: otoitz, errezo
[31] ekiten baidautso (*orig.*): ekiten deutso (dio). Aranazaleen joera baieztapena indartzeko
[31] goznar: gogoeta (*neol.*)
[33] anei: mila (*neol.*)
[39] txaide: kale (*neol.*)

Zeure altzo horretan txerren danak doaz
lan okerretara...
Hego-motz ertzakaz leiho danak zehar
dagien dardara!

Lizuna txaidean ixil-ixil dabil
lora zimel bila.
Loari murrika etxe arteetan
gaztetxu zurbila.

Gauaren eskuak ito dau lotsea.
Hor dabil hobena!
Hil dabe gaizkinak oraindino neskuts
datzan onoimena!

Lainozko maindira zuria baidager
uri zabalean.
Lausoa ta kea toki guztietan:
Bil nadin barnean!

Iluntze oztina, gotilun nagotzu!
Lehi*a* biziz bihotza.
Zer ete ditxarot? Saminen bizitza?
Pozen heriotza?

Hona hemen nago: goizean so dagit
sartalde argira.
Arratsean, barriz, sortaldera nago,
izarren begira.

Hau geure bizitza, atseden ezina,
jadetsi ezina!

---

51 murrika: iseka
56 onoimen: bertute
61 iluntze urdina, triste nagokizu. *Gotilun*: triste (*neol.*)
63 ditxarot: itxaroten dot. *Itxaron* adizkia

Ezin batu doguz helburu batean
amets ta egina.

Oi gau zerutarra! Zeure gai ez dira
ludiko gizonak.
Hotsetatik urrun loratuten dira,
zeure zorionak.

Une eder honetan, arren, itxi uria,
itxi hots gaiztoak.
Lehi*a* biziz barnea, urrunera noan,
iges begist loak...

Arrats bihozbera! Zeugan amets dagit.
Atseden bihotzak.
Ene! Horreek baizen izpi baketsuak
bekarz heriotzak!

Oztin begoz goiak, itzalez mendiak,
gogoa bakean.
Ta itxaro izarrak argi diz-diz begi,
bihotza*re*n barnean.

---

[74] ludi: mundu
[79] noan: joan naiten (nadin)
[80] iges begist: ihes egin beit (biezat)

# GOIZALDEKO EDURRA

Atsegina! Leihoak zabal egitean
edur zuriz zelaiak diz-diz ikustea!
Aldaturik dagergu izadi amea:
garbitasun jantziaz dago goizaldean.

Anaio*r*i! Leihora hator: horra hor alatza!
Ikusi zuritasun alatz amestia
Edurren gogo leuna bai dala garbia!
Gaiztakerige dago zelaiko matatza.

Berak legez nork leukon garbirik gogoa!
Diz-diz hori nork leukon bihotza*r*en barruan!
Leihora hator, edurra atrapau eskuan:
bere mosua hotza, baina dan gozoa!

Hotzak goian eba*g*ita jausi dan lorea,
mitxeleta antzera jatorku lurrera.
Ez eroan maitati ezpanen ganera
geure laztanak dira bere heriotzea.

Garbitasun mosua hartu dau edurrak.
Gotzonak soilik dira bere laztanen gai.
Lora ganetan datza garbi baizen alai:
hegotxu zerutarrak lohitzen deutsoz lurrak.

---

[3] dagergu: agiri jaku (zaigu). *Agertu* adizkia (*neol.*) / izadi amea: izadi ama
[5] alatz: mirari (*neol.*)
[8] gaiztakerige: gaiztakeria barik
[18] gotzonak: aingeruak (*neol.*)

Edurra! Soilik zatoz sehaska ondora
eta lotan dagozan hiltegietara...
Umeak eta hilak zeure izpi izara
ez dabe lohitzen. Zatoz garbien kolkora!

Oi edur zuri!, edur zuri!, edur zuri!
Ikasbide zaiataz bizitza honetan.
Garbi dirauzu beti ekaitz gogorretan,
harri ganean bere beti zara guri...

Edur ikasbidea ez ahaztu, anaia:
oinazez izan arren, zadiz tolesgea.
Garbitasun distiraz bego zeure etxea,
eta zeure gogoa beti gotzongaia.

---

[26] zaiataz: zatzaizkit
[27] dirauzu: irauten dozu
[30] zadiz tolesgea: izan zaitez tolesgabea

# EZILKORTASUNA

*R. Añibarro'tar Bitor adiskideari*

Neure egunen gezia hilkorrari dago,
ezilkortasun-hotsa baitot maiteago.
Zertarako heriotza?
Itun diranentzat
atseden-toki, baina ez bizitz*a* zaleentzat.
Gerokoari bildur, beti izan nahi neuke.
Gauzak hileza barik ziorik ez dauke.
Egunak iges eta hots dagit barnetik:
Neure zale orotan, Jainko edo Gizon,
mundu-oste danari nagokio haron.
Jainko banintz ez neuke heriotz bildurra.
Aldiak ba soil desiz zeru eta lurra.
Urtziki gauza oro?
Ez, oro aldakor!

Gaur loraz dagoana bihar baita legor.
Urtziki balitzakez izaki guztiak,
zoritxarrena geuri!
Ez gara urtzikiak,
haren maitasun-izpi edo mosu baino.
Ezilkortasun nahirik Jaungoak ez dauko,

---

[6] hilez: hilezkortasun
[7] hots dagit: hots egiten dot
[9] haron: hara-hona
[11] desiz: hesitzen ditu. *Hesitu* adizkia (*neol.*)
[12] urtziki: jainkozko (*neol.*)
[17] Jaungo: Jainko

betiraun osoena berbera dalako.
Hilkor danaren deiak, neure nahiok barriz;
hemen nabil deus ez ta Jaungoiko egarriz.
Urteak badoazi, urratsik ez dager,
non galtzen dira-edo?
Ahal baneukaz uler!

Gizon huts nazan arren, ez dot deuseztu nahi.
Nahikun honeek ez ete ezilkortasun-gai?
Izateari dagoz neure gurariak,
ezilkortu ahal baneuz oldozkun guztiak.
Une gozo batean lo iraungo baneuke,
betiko amets honeek amets egin arte!
Geroan ezer danentz zalantzetan nabil:
gogoari min jakon arrisku ondoan
jolasetan ibili, oso baita eder.
Zergaitik darabilgu zale hau gogoan?
Goi-ateak jo dodaz;
dana dagir isil.

Itsas horren zabal*e*an ontzirik ez dager.
Ezilkortasun bila lor ta atsekabez
adimena*re*n esanak idoro nahi dabez...
Gauz*a* honeetan baina soil gagoz bihotzari!
Pozikago baikagoz itxaropenari.
Oi, sinismen-harroina bedi gogaikia!
laino barik dagoan izarren argia.
Betirauna neuretzat argi antzo baita.
Itzal-bildur naz, itzal heriotza da-ta.

---

[22] Ulertu ahal banitu!
[26] oldozkun: pentsamentu
[32] zale: nahi
[33] dagir: agiri da
[38] pozikago: pozago
[39] sinismenaren oinarria izan bedi goi-helburua. *Harroin:* harri oin, zimentarri

Amaiera bakarrik ete da geroan?
Gogai horreek ez begoz sano dan gogoan!
Itun beti, beti-itun honexek narabil.
Gero ezer ez dala?
Arren, zagoz isil!

Hona, betiraun nahiez, Jainko gosez nabil!
Beragan bihurtzeko izate bidez ez,
hesi dagidan baino neure maitasunez.
Han itxarrik dagiket amets ederrena,
ta alkarren baitan ikus, hasia ta azkena.
Urtzi besarkatuko neuregan nahi bidez.
Gomuta ezilkortu nahi dabe gizonak.
Zorook, zuen opak ez dira sakonak!
Ametsen hondartzetan uhinen aparzale.
Ez dakusue gauzen ezerez hutsena?
Munduan ezilkorrik ezer ez, ezer ez:
iges doan Itzala soinen jarraitzale.
Guztiak dagoz gaixo heriotza-minez.
Inork ez dazauan min biziak jo gaitu
eta gorputz atalak ditxiguz bidean.
Soina jauskorra eta gogoa goizale,
aurka diran gauz*a* honeek nork osoan neurtu?
Lurra, lurra daukogu begien ganean!

Edertasun zirrintan digart betirauna,
Osoan baina nago nahi honeetan, Jauna?

---

[44] ez begoz: ez bitez egon
[50] dagiket: egin daiket (dezaket)
[54] opa: desira
[56] ez dakusue: ez dozue ikusten
[60] ez dazauan: ezagutzen ez dauen
[61] ditxiguz: ixten ditugu. *Itxi* adizkia (*neol.*)
[65] edertasunaren argi-izpian igarten dot eternitatea

Geroan...? Joko hauxe jokatu beharra.
Baina bizitz*a* honetan geure betikorra
gertu geinke osoro onoimen bitartez.
Oraingo hazi honeek geroko uztea,
hirotasun artetik ez dator lorea.
Gorrotoz barik noan maitetasun bidez.
Erein zidor orotan ezilkortasuna,
zauri bakotx*e*an leunki mosu bat isuri,
etsaiaren burura jaurti maitasuna.
Arantzak min zaituez?
Harrika ez lorai!

Arriskuan ibili gentzaz, ez urduri.
Lakiorik ez jarri inon oldozkunai.
Egiten dozun ona gerokora dago,
ondo eginak ez zauz oker eroango.
Zalantzan zaran arren, ezilkorra maite;
–zeozer geure baitan badogu betikor–.
Gerora adi beti, urduri, oldozkor,
alderik onenera eratzatu zaite.

---

[69] onoimen: bertute
[71] hirotasun: ustelkeria
[77] gentz: lasai, bake
[78] lakiorik ez jarri ... oldozkunai: hesirik ez ipini ... pentsamentuei
[80] ez zauz: ez zaitu
[84] eratzatu zaite: etzan zaitez

# ITZARRIK

Minezko bideetan lor batek narabil,
iratzartu baijat lotan zan gogoa,
Dan zizta gogo hau itzarrik erabil!
Ezin maite daiket gatxurren jokoa...
Eginen oharkor**,** darakust zuzena,
neurriz baina gizak ez dau bizi gura,
Gozartu nahi leuke gauz*a* oro*re*n lilura.
Baina itzarrik hago, oi ene barrena!
Zergaitik diraustak lortuen bakura?

–Itzarrik, ta harrika lorai ete hago?
Esku horrek bajok lepalpen gehiago–
Horixe ostera nahi neban igesi!
Barna lotan dala guztia baita utzi.

Ene barna horrek, bizitza honetan
lo egin, lo egin!

Ekintza danetan
soina bedi alde, ez baina gogorik.
Emaitz*a* mota asko derne ametsetan:
Gogoa lotan, nork urten ahal luditik?

---

[1] lor: nahigabe
[3] zein ezten zorrotza gogoa itzarrik izatea!
[4] gatxurren jokoa: arrisku jokoa
[5] darakust: erakusten deust (dit)
[6] giza: gizaki (*neol.*)
[9] zergatik esaten deustak (didak) lortutakoen muga?
[11] baijok (*orig.*): badau (*alok.*)
lepalpen: ardura, erantzukizun (*neol.*)
[17] derne: erneten da. *Erne* adizkia (*neol.*)

Geure barna isilik lotan dago*a*nean,
itzala ta gentza baitira etxean,
Barneko girinak doaz baina atara
onbidea*re*n lapur:
Ostuten deuskue
loran zan mertxika, garan zan landara,
lorategi dana hondatuten dabe.
Bizitza onena lepalpen bakoa,
horretarako lo daukagun gogoa.
Argi barik goaz oro zapalduten,
baina ez dakigu zer dogun egiten.
Lotan nagusia?
Galdua da jauntza!
Maitasun baratzan sartu da basauntza.
Minezko bideetan lor batek narabil,
iratzartu baijat lotan zan gogoa.
Saminaren mina!, orain ernai nabil;
begi*e*tatik joan jat betiko loa,
begizkun leihora baijagert gogoa.
Badoa eskua joadan lekura,
eta laster duler laketen bakura.
Orain grinai barik gogoari nago,
soina guren bada, gogoa areago.

Lo egoan eta lohitu neban oro:
errota ebilen, etxea lausoro.
Loaldi horretan egin dodazanak

---

[21] girin: grina
[29] jauntza: jabetza
[35] begiraden leihora agertzen jat (zait) gogoa
[36] badua eskuka yoaten lekura (*orig.*)
[37] ulertzen dau plazeren mugatasuna. *Ulertu* adizkia (*neol.*)
[41] lausoro: lausotuta, ilun

lepalduko deustaz gogoen Jaun danak?
Barnak zabaldu dau barruko leihoa...
Oro argi dakust, soina dago ba isil.
Minezko bideetan lor batek narabil,
iratzartu baijat lotan zan gogoa.

[43] lepalduko deustaz: kargu hartuko deustaz (dizkit). Lepaldu (*neol.*)

# ITSASORA!

*Onaindia'tar Albertari bihotzez*

Soinutsik ontzi puntan, sakoneko lemazain,
itsaso barne noa zidor ezeza*g*unen gain.
Hondartzan oro laga! –arriskuak darraigu–.
Lur barri bilatzaile ametsa lagun dogu,
lehorreko lokatzok geure malkoz eginak.
Arnas hartzeko, bilau,

amaibako urdinak.
Euren solas hutsakaz gizonak lotzen gabez.
Askatasun oldeak hilten dira atsekabez.
Aurrera! Iparraldean edur-mendi izoztuak,
eta ugarte hotzetan laminen gazteluak.
Eroango zaituet:

–ehunak harro haizean–.
Itxaropena baidot begi honeen ganean.
Bide barriak nahi dauz abendaren kezkeak:
lar lurrari egon da.

Zabaldu osertzeak!
Ekintza gurenentzat landa hau dan zabala!
Hizki-mota oro*re*ntzat burdinori garbala.
Geure itsaso gogorra, abendak maite zaitu!

---

[3] darraigu: jarraitzen deusku (digu).
[7] lotzen gabez: lotzen gaitue (gaituzte)
[13] abenda: arraza (*neol.*)
[14] lurrari lotuegi egon da. / osertz: zeruertz
[16] burdiñori garbala: brontze argia, ohoretsua (*neol.*)

Zeure altzora gatoz, lurra ba txiker jaku.
Indar irakasle hori,

kendu hodei ta laino!
Balerik ez dogu nahi, gogai barriak baino.
Argizkorria dager, urrezko jantzi barriz.
Hementxe gatorkizuz jakintzaren egarriz.
Ametsik ez genduan legorretan egiten,
uraren barna baina goiak doguz ikusten.

Geure itsaso gogorra!
Gogaien arraunlari,
agur egiten deutsazu itxaro argiari.

Soinak hezitzen dozuz, gogoak areago:
Geuregan legez, zeugan, beti kezka bat dago.
Sakon hori nork dazau?

Oso zara zadorra!
Ekaitz horreen orroa koldarren bildurkorra.
Euskoak soilik dabiltz altzo zabal horretan;
imin dozu oldea euren begi barnetan.
Gudariak dagizuz, berunezko bizkarrak,
tente diran erroak, burni diran iztarrak.

–Gizonjale lehientzat jaki ziltzagileak...–
Itsaso haundi horrek, zabal zeru-ateak.
Heriotza hor dabil, hor dabil maitasuna.
Herri gogor honentzat, zeugan etorkizuna.

---

[20] gogai: ideia, pentsamentu
[21] argizkorri: egunsenti
[26] agur egiten dautzu itxaro argijari (*orig.*)
[29] dazau: ezagutzen dau. / zador: misterio
[32] olde: kemen
[33] dagizuz: egiten dozuz (dituzu)
[35] gizonjaleen nahientzat jaki erakargarriak

Odiseo barri gara, laminik ez da baina,
hemen sortua ez da Aprodite liraina.
Geure abenda antzo pioneer gazte gara.
Altzoan beti dozu irri baten ikara.
Baina lehoien legez darresizu galparra.
Euskoen itsasoa!
Oldea eta indarra!
Aurrera, aurrerantza!

Ontzi-puntan soinutsik.
Haize oro*ren* mosuai bihotzak zabaldurik.
Ibilaldi hau ez da bizitzan amaituko.
Behin ontziratu danik barriz ez da itzuliko.
Minak lurrean itxi, begoz itun diranak.
Itxaroz kezkatuak nahi dabez geure lanak.
Zeruak argi dagoz, begoz pozez begiak.
Uhinen ganean dabiltz geroko abestiak...
Barriro hesi daigun ludiaren gerria.
Ez bitsez, ez indarrez, gogaiakaz baino.
Itxaroak beroa euskotarren ontzia,
gogoak nausi diran argitasun goiraino.

---

40 Aprodite: Afrodita
41 pioneer: aitzindari
43 darresizu galparra: inarrosten dozu adatsa
55 beroa: eroan bei (beza)

# OHARRA

«Bide barrijak» amaitu doguz. Batzuk harrika egingo deuste, beste batzuk goralduko nabe. Ez dot gizonakaitik egin, Aberriagaitik baino. Olerkari nazala agertuteari ez nago, hizkuntza honetan be gogai batzuk azaldu daikeguzala erakusteari bai, ostera. Hor-han entzun eta ikasi dodazan gogai batzuk neure bihotzaren barnetik euskeratuta agertu dodaz.

Gaztaroko neurtitzok ez dira sakonak, ez dira gurenak[20], gauza guren eta sakonik gaztaroan ez dalako egiten. Geroago Aberriari jagokozan neurtitzak egingo dodaz. Euskadi Amaren maitasunak jo nauelako.

Maitasunak sortuazoten dauz neurtitzik ederrenak, eta maitasun bideetan azkena barik, lehenengoa naz. Maitasuna, Aberria ta Uskurtza[21] izan dira gairik ugarienak olerkarientzat, neuretzako be bardin. Ludiko gairik kutunenak honeexek jataz, Jel pean hesituta.

Olerkaria barik, Jeltzale benetakoa nazala entzuteak atsegindu-ko nau. Euskeraz idazten dot, Aberriaren hizkuntza dalako. Soloan atxurretan aberria goralduko nebala uste baneu, laster itxiko neuke lan hau. Urtzik begi onakin ikusten dauelako Aberriak goralduten diharduenen lana, kezka barik nabil.

---

[20] guren: aintzatsu
[21] uskurtza: erlijioa (*neol.)*

Eta atsegin ez jakonak, neure aurka hitz eginke[22], idazti eder bat argitaldu begi, bide hori dalako gizon argiena. Hitz egiteko bidean dagoz, euskeraz idatzi dabenak, besteak ez, lanaren neurria, behar egin dauenak dakielako.

Agur, eta Aberria maitatu, Jaungoikoaren hurrengo.

Egileak

[22] hitz eginke: berba egiteke

# ARRATS BEHERAN

Eskeintza

Aranbaltza eta Castillo
– Zumeltzu'tar Anderri
Adiskidetasun sendagarritzat
U.'tar E.

# AURRE HITZA

Ludi honen bestaldez loratzen diran landaren usainak goizalde bakotxak dakarkidaz. Hauxe da neure sakona! Besteak entzuten ez daben hegal-hotsa neure gelara jatort eta barneko zugatz honeetatik txoriak aidatu ziran arren, abar-dardarea ez da amaitu.

Neurez betira arte isilduko nintzan, barruko isurpen honeentzat ez baitago azal ederrik. Euskeraz batez be! Erabiliak izan diran hizkuntzak bost jarraibide erakutsi deikeguez, baina ele honen iruleak gerau gara.

Harrokeriaren abotsai jaramon egin baneutsoen[1], idazkirik ez eukazuen[2], inoren aburuak azaldu daikiezan akatsak eta bost neronek dakidazalako. Baina adibide bati gagokiozan. Aberatsaren semeak ezkutau daikez bere laukoak, hareen zain ez baitagoz ogitarako. Txiroari ez jagoko horrenbesterik.

Elertizale nazanonek zeharkeri eta pirtxileritzat daukadaz olerkiok. Maisealariak esango dabez esatekoak! Baina ele lander baten seme jaio nintzan ezkero, bertso ñimiño honeek be argitara datoz.

Hamaika bider jagi izan naz hitz neurtuen ala[3], hamaika bider, ostera, herri honenganako maitasunak olerkietara nauzu[4]. Elertizale-

---

[1] Baneutsoen: baneutse (banie)
[2] eukazuen: zeunkeen (zeneukaten)
[3] -en ala: -en kontra
[4] nauzu: nau (alok.)

ak ezetz, abertzaleak baietz! Nori nagokioke? Besteai txaloak jo edo noizean behin soraiokeriz barre egitea eztiagoa neuretzat litzateke.

Solasketan ibilteko bizia nozu, horraitino aberriaganako larriak jaso nau. Agur, ba, seme zuhurrok. Elertiak ez zaitue babestuko, abertzaletasunak baino.

Erranak eder, eginak lander.

# NESKATXU GORRIZKA BATI

Geure neskatxu gorrizkea,
argi hutsa don goiz betea!
Urre dozan artotzak,
zidar dozan errekak.
Geure neskatxu gorrizkea,
zertan hago eguzkitara?
Dardai biziz heure maitale
argi hori jatorn landara.
Eguzkia don ederzale!
Geure neskatxu gorrizkea,
noruntz galdu hintzanatan?

Ene usoño zuriok,
zoaze haren bila!
Lili arteko isila
nahastau egizue txoriok!
Argizko goiz betea
hagoan eder muinoetan!

Geure neskatxu gorrizkea,
galdu hazanat eguzkitan!

---

[10] hintzanan: hintxatan (hintzaidan)
[19] hazanat: hatxat (hatzait)

# ZELAIETAKOA

Zelaira doa neskatxa:
–haizea dabil loretan–.
Zelaira doa neskatxa
maitasun-kanta kantetan.

Argi daukazuz begiok,
gorputza dozu liraina:
abestu daigun bi-biok.

Abestu daigun zelaian
soin horren lili-usaina,
milazkaen antzo dantzan.

Zelaira doa neskatxa:
–erleak mur-mur loretan–.
Zelaira doa neskatxa
maitasun ona topetan.

Dantza-dantzari bedartzan.
Ete gara udabarrian?
Hara txindor bi zugatzan.

Txirula ta danbolina
entzuten dira mendian.
Zerua dago*a*n oztina!

Zelaira doa neskatxa:
–ingumak dar-dar loretan–.
Zelaira doa neskatxa
maitasun deuna gordetan.

---

[10] milazkaen: milazken, tamarindoen
[17] zugatzan: zugatzean / zuhaitzean

Barre dagigun leunkiro,
barre hauxe dan isila!
Tanbolin, habil, astiro!

Mendiko haize biguna
hator zelaira lora bila,
lorak eta maitasuna.

Zelaira doa neskatxa:
–haizea dabil loretan–.
Zelaira doa neskatxa;
–urretxindor bi kantetan!–.

# EHIZTARI HAUNDIA

*Albisu'tar Kepari*

**I**

Bai eder urten zala basora
bitxidor berdez!
Soinanzki ordez
goiz hutsa jaurti eban lepora.

Zelan joiazan haren uztaitik
beredin dardai!
Zugatz-adarrai
ez jaken geldi uso ederrik.

Mendiko isiltzain zaran otsoa!
Zeure zauriak
ziran gorriak!
Orro bat baino ez zan basoa!

Goiza janzkitzat soinuts ganean,
bai eder zala
gazte garbala!
Errege bat zan pagadi-pean!

**II**

Oihanak deitu euzan hodeiak,
–goi-txakurdia–.
Euren ahausia
atsegin dabe urtzi aiherlak!

Ezer bakanen baten ehiztari
ortzi guztiak
suzko geziak
jaurti eutsazan baso itunari.

Norena izan zan aiots sotila?
Han zetzan hilik
goizez jantzirik
atera zana! Mendiko isila!

Ehiztari Haundi, –zeure aztarra–
haran ganean
uztai antzean
estu egoan goiko ostadarra!

# EZKONTZA GOIZA

Zaldi-hotsak haizean
–urkiak dardari–.
Kanpai-hotsak torrean
–zuriz jantzi zadi!–.

Neskatxa zuriz dago
–ezkongai polita–
Kopeta daukan eder
jazminez hesita!
Leihoan zagoz gertu?
Senargaia hor dozu!

Zaldi-hotsak haizean
–inor dator larri–
Kanpai-hotsak torrean
–zuriz jantzi zadi!–.

Estalki zuriduna,
gorantza gorria.
Hor dator maitasuna
hegadun lilia!
Arin dabiltz liparrak,
gordez doaz izarrak.

Zaldi-hotsak haizean
–galdu dira urruti–
Kanpai-hotsak torrean
–Zuriz jantzi zadi!–.

---

[4] zadi: zadiz, zaitez
[16] gorantza: gerruntze. Gonantza (*orig.*).

–Ene ama, ezkondu,
ezkondu gura naz.
Goiz-goiz erdia dogu,
enarak badoaz.
Itsasoa dan urdin,
makalak egonezin!–

Zaldi-hotsak haizean
–inor ez da agiri!–
Kanpai-hotsak torrean
–baltzez jantzi zadi!–.

# BERTSO ZAHARRAK

Bizitzan
zoriontsu gadizan
behar dogunaren gauzeza!
Kantak, ardao-edontziak
eta maitasun baten poza.

Abestu,
ontzi betea hustu
maite danarekin batean.
Barre egin
eta ezpan arin
muin bat ostu arrats beherean.

Argidun
berein gauza txukun
ludi honek daukaz grazian.

Ederren
hogei urte lerden
gorputz baltzizkan diranean:
bizitzan
zoriontsu gadizan
behar dogunaren gauzeza!

Kantak,
ardao-edontziak
eta maitasun baten poza!

---

[2] zoruntsu *(orig.)* / gadizan: gaitezan
[5] kanteak (*orig.)*
[12] arrats beheran (aranatar giroko gramatika joera, inesiboan a+an>ean)

# ETXE HORI!

Oilarren zidarrezko turutak
goizaren bideetaz jatorzak!
Lotan zagozen hegal zuriok
hotsez bete egizuez lerdiok.

Etxeñoo*r*i, goizaldeko bakean
ederren hago hareitz artean!

Garitzetan dardaiz dok argia
ta urrezko euritan jagok mendia.
Iturri baten txirula-hotsak
musker-musker jaukezak artotzak.

Etxeñoo*r*i, eguerdiko bakean
ederren hago hareitz artean!

Ikusezinak dozan gotzonak
joten juezak amets kanpaiak.
Gauaren begia dokan urdin!
Hego hertsi, otoirik, egonezin!

Etxeñoo*r*i, gauaro argitsuan
ederren hago hareitz artean!

---

[2] bideetan
[4] lerdi: pinudi
[10] musker jaukezak artotzak: berde zeuzkatek artotzak
[13] dozan: diran. Dozan (*alok. fem.*): ditun / gotzon: aingeru.
[15] dokan (*alok. mask.*): dan. Harridurazkoa. Gauaren begia dan urdin!: gauaren begiaren urdina!

# ORAINGO MAITARIAK

Bide luzez lagun izan haut, ilargi,
baina hire kinurik baratzan ez jagok.
Zidarrezko bitsa zaldiak jariok
eta lora artean dana dok barre-irri.

Egun trukez goizak jaukokan salneurri
urre dukat bati antza kendu deutsok.
Osin ertz*e*an lokiz jagokan zalditok
osorik edan hau? Hor jatork ortzargi!

Erroma alai baten zaldiño gogorra,
azkar mendi horreek igaro egizak,
ostu joaguk, ba, gauaren altxorra.

Irrintzi ta jauzkaz goizaren bidetan
neure Julenetxuk diz-diz bakusazak
lau ilargi zuri heure zangopetan.

---

[3] jariok: dario (*alok.*). Zidarrezko bitsa dario zaldiari.
[5] jaukokan: daukan (*alok.*)
[7] jagokan: dagoan (*alok.*)
[9] Erroma: Romeo
[13] Julenetxu: Julieta / ba(ja)kusazak: badakuski (*alok.*). Bekusazak (*orig.)*

# BURTZAINA

Bedar hezez burdia,
–arrats honen usaina!–
Hain samur abestia,
norantz zoaz, burtzaina?

Lats-haizea kantari
eta zumak dantzari.
Landa zabalen jaunori,
burdi horrek daroa
bideskako kirrinkaz
zelaiko gentz osoa.

Bedar hezez burdia,
–arrats honen usaina!–
Hain samur abestia,
norantz zoaz, burtzaina?

Lerdiak ez bihotzik,
ezta arratsak saminik.
Zeuri adi neskatxak
itxi dabe beharra.

Akulu horren puntan
diz-diz daukozu izarra?

Bedar hezez burdia,
–arrats honen usaina!–
Hain samur abestia,

---

[6] zuma: zume, mihimen
[10] gentz: bake

norantz zoaz, burtzaina?

Gorri daukez gingilak
idion burko oihalak!
Landa zabalen jaunori,
–gentzaz burdi astuna–
kirrinkaz badaroazu
neskatxen maitasuna!

Bedar hezez burdia,
–arrats honen usaina!–
Hain samur abestia,
norantz zoaz, burtzaina?

# ESPETXEKOARENA

*Artalarrea'tar Miren Tereseri*

**I**

Itsaso horren narru nabarra
pantera batena dirudi!
Espetxeko atezain zaharra,
itxi nagik goizeko bidari.

–Tori giltzok, urrezko giltzok,
ta bete egikek itsas mina.
Haizeo*rre*n hegal puntan daukok
inork txastau bako lurrina!

–Noiz arte lagako nauk aske
zidarrezko itxaso zabalan?
Aske haz gura doan arte,
goiz ederro*r*i maite dagian!

**II**

Neure maitearen oinotsak,
–urretxindor hori, hago isilik–
bide argietaz jatorzak!
Atezaina, aske laga nagik!

---

[7] axioin (*orig.)*: haizeorren
[11] zabalan: zabalean
[16] argietan

–Tori giltzok, urrezko giltzok,
maitasuna jabilk landetan.
Esku zurian muin egiok
eta laztan bat begietan.

–Maitasun pozgarri horrentzat
aske nabilkek ler artean?
–Zintzoro maite dagiantzat
giltzik ez jagok espetxean!

**III**

Aberri amaren negarra
neugana jatork mendietatik!
Espetxeko atezain zaharra,
behin soilik aske laga nagik!

–Agur giltzok, urrezko giltzok,
guda-hotsak dozak landetan!
Arren, itxi ondo ateok
eta galdu zaiteze uhinetan.

–Baina aberri ama aldezteko
ez nauk itxiko kate barik?
–Heure herri hori askatzeko
ez jak iriko espetxerik!

[38] iriko: iregiko / irekiko

# SÉVRESKO MURKOA

Murko eder hau ñori,  Dukeme argio*r*i!
Sévresko urre-sutan har eban oztina,
–euriz gero dakuskun zeruarte dina–.
Mun batez emoiozu ezpanen gorrio*r*i,
ta txistu heze horrek, artzain irarrio*r*i,
aintziran higiko dau zisneen pinpina.
Abade gazte batek dino maitemina
eta bere neurtitzak badirudi otoi.

Neure egarrien ura murkoan daukazu
garileko urbelak dagerren gardenaz.
Ordez isuri eizu irrio*rre*n altxorra.

Eta ederkun osoz bete emoidazu;
edari zerutar bat bailitzan edanaz
ezpan honeek daukentzat hozko betikorra.

---

[1] murko: pitxer; ñori: tori (noka); dukeme: dukesa
[4] bemotsozu (*orig.*)
[6] kisnien (*orig.*), kisneen
[8] bai-dirudi (*orig.*)
[10] garileko urbelak: bagileko urmaelak, ekaineko urtegiak; dagerren: agertzen dauen
[11] irrijoin (*orig.*): irriorren
[12] ederkun: edertasun; bemostazu (*orig.*)
[15] daukentzat: euki daien, euki daientzat (eduki dezatentzat) hozko: freskotasun

# IZLAPURRA

## I

Zortzi arraunlari barruan
–zidar hutsezko arraun meheak–,
izlapurren nagusi jaunak
ontzi zuria arin eroian.

Nork leki*ke*an haren kantea
dantza eragiteko izurdeai!
Kanta hori dantzu*a*n neskea
beti dago lilura leunai.

Itsasoan diran izpiak!
Zenbat uso-itzal goiz argian!
Izlapurren nagusi jaunak
ontzi zuria arin eroian.

## II

Kaia maite dozu, neskatxa?
Dizdizko tantaz dozuz oinak!
Gorputz eder horren bekatxa
naba*r*itzen dabe uhin urdinak.

Zortzi arraunlari barruan,
noruntz ete doa izontzia?

---

[3] izlapur: itsaslapur
[6] izurdiai. Errataz: ixurdian (*orig.*)
[7] dantzun: dantzuan, entzuten dauen
[15] bekatxa: bekaitza, inbidia
[18] izontzia: itsasontzia

Haizeo*ri*, putz egik ehunetan
iradu dok, ba, goiz garbia!

Abestiz datorren ontzian,
–ura bare, ortzia oztin–
abestiz datorren ontzian
nor aldendu daiteken urrin!

**III**

Ekin, arraunlari gazteok;
orain agertu zeuen ahala!
Zidar hutsezko arraun meheok
eba*g*i begie itsas zabala.

Haize-oihalak haizean doaz
ta ondoan dantzan arrainak.
Izlapurren kanta leunakaz
baretzen dira uhin urdinak.

Ontzi puntan nagusi jauna
zein arin izontzia joian!
Urrun*e*an zan barre leunena
eta inor ez zan kai ganean!

---

[20] iradu: prisaz / presaz
[22] oztin: urdin, azul

# KANTA ARINA

Edanak
busti begistaz ezpanak!
Eder-min
betiko mozkortu nadin.
Gauza danetan dakusat
barre ta kanten prisea.
Bajoat
soin gazte honen lorea!

Etzunik
edan daidan neurri barik.
Ondino
soin honek mun-mina dino.
Arinka doaz urteak,
baina pitxerra beti on.
Gazteak,
ezpanak legor ez egon!

Mozkorra,
gauaren azken altxorra;
bizitzak
ostuten deustaz jorrailak,
baina neure lagun hadi.
Gaztaro hau galtzekoan,
gal bedi
edontzi baten kolkoan!

---

[2] begistaz: beidaz (biezazkit)
[8] bajoat: badoakit
[23] galtzekoan: galtzekotan

# ITSASTAR GAZTE BATI

Ha itsastar lerdena,
begiurdin zana,
joan jakun ipar edurretara!
Ha itsastar lerdena,
solo-jaube zan itsas ertzean
ta sartu euzan berein landara!
Ur ta lurzale ziran begiak
pozik eukozan baratz ganean,
noiz sortuko be lili argiak.
Ha itsastar lerdena,
maiatzik leunena
loren leketara
mosu samurrez heldu zanean,
ha itsastar lerdena
joan jakun ipar edurretara!

---

[6] euzan: ebazan (zituen)
berein landara: zenbat-gura landare

# NARKIS

Ja-jai,
goiz habil alai!

Bilozik noruntz hoa, mutil?
Altzapeko iturri gardenak
bere txirulak jotzen jozak!
Sugar hutsetan berein pipil?

Ja-jai,
goiz habil alai!

Lamin-batza jagok uretan?
Goizeko haize hozkirriak
dantzan jarabiltzak liliak!
Zenbat ispilu zidarretan!

Ja-jai,
goiz habil alai!

Ur garbian heure begiok,
ta lorak heure nini-barnan!
Narkis, jausi barik errekan,
soinori argiegia baitok!

---

[5] jotzen jozak (*alok.*): jotzen ditik, ditu
[6] berein pipil: hainbeste pinporta
[9] lamin-batza: laminen batzarra
[11] jarabiltzak (*alok.*): zerabiltzak, darabiltza
[16] barnan: barnean
[17] Narkis: Nartziso (mitol.)
jausi barik: ez hadi jausi

Ja-jai,
goiz habil alai!

Iturri-txirulak hotsetan!
Begiotan zer daukak, mutil?
Muino ganetan berein pipil,
lorarik ederrena uretan!

Ja-jai,
goiz habil alai!

# GOIZALDEKO OTOIA

Goizaldeko otoia
zeureganuntz doia.

Horra larrosak
urrezko erlez.
Dantzan mertxikak
latsaen haizez.
Non don goiz argi?
Abarrak txoriz
pii-pio-pi.
Goiza zugatzan
ihintzezko dizdiz.
Goiza don landan!

Goizaldeko otoia
zeureganuntz doia.

Mendi oztina
laino zurian.
Itsaso-mina
haize-ehunontzian.
Non don goiz argi?
Kanpakaz torreak
din-don ta din-dan.
Ixo lausoak!
Goiza don garbi
heure irriparrean!

Goizaldeko otoia
zeureganuntz doia.

---

[6] latsaen: latsen, erreken
[10] zugatzan: zugatzean / zuhaitzean
[20] kanpakaz: kanpaiakaz

# KINUA

*(Cocteau-ri buruz)*

Izarño herriko asele oztina!
Bakalgaiak loraz baitaukaz baratzak.
Mitxeleta iduri
dabil atsegina.
Baina Heriok hain maite dauz loratzak!
Bakaltseina datza. Goiza zein eder,
ate bat, odol-lits,
ametsentzat dager!

Gentz bare horretan bakaltseina zurbil:
erle batek dausi loraen ederra?
Horra, laino-begiz,
Herio hori dabil!
Herio anderak keinua bai ankerra!
Bakaltseinak: –Noan, Izpiñera noan,
hantxe gorde nadin
lurraren kolkoan!

–Bakalgai, erruki; ekarzuz zaldiak,
zaldi azkarrenak haize meheen lagun.
Herio ikusiki
daukodaz begiak.
Gogoa dot orain, gau-margoz gain, ilun.

---

[1] asele: elezahar
[2] bakalgai: printzipe
[6] bakaltsein: erregearen morroi
[8] dager: agiri da
[10] dausi: hausten dau. / loraen: loren. (*aran.*)

Jaunaren zaldiak kanpoan irrintzi,
eta haizea ahulez
ezinik jarraiki.

Ibar-gentzan dar-dar, lurrak ez, ostroak;
ta zaldiak arnas, abots barik, ulez.
Urrun, oztinaz bat
galdu zaldiñoak,
begi ilunen biak, gauez ezik, hautsez.
Arratsa dagoan mehe, odol-litsa, urrea!
Baratz-zale doa
bakalgai gaztea.

Lora artean Andra Herio ikusiki
esan eutsan meheki, hitzak izpi antzo:
–Hik, bakaltseinari
goizez keinu larri?
Bildurrez ikusi jok heure azken zantzo.
Herio tokia ez neure baratza.
Hemen soil hil bedi
urrezko arratsa!

–Ene Bakalgaia: ez deutsat kinurik.
Nabarizkoa zan neure irri-kinua,
Izpiñen gaur berton
otseina hil beharrik!
Urruneanan, oztin zan, izar-ehun, zerua,
ta zaldi-oinotsak ez ziran entzuten.
Betazal bat legez
gaua zan bilduten!

---

25 ostro: orri
37 ikusi jok (*alok.*): ikusi dau. Herio andrezkoa den arren, toka mintzo zaio.
39 bedik (*alok.*): bedi, forma alokutiboa sortzen du.
42 nabarizkoa: harridurazkoa

# ARTZAINENA

Artaldeak bee-beeka doaz
arrats leun honen bideetaz!

Iturriotzeko lerdiok,
Urizuriko bitxidorrok,
doazen ardioi begira
lausotan dozuez begiok!
Bedar berde usainez beterik
landa zabal guztiak dira.
Muino ertzetan ez dago hotsik
arran-hots artegak langorik!

Artaldeak bee-beeka doaz
arrats leun honen bideetaz!

Izarren zain dago*a*n basoak
abarretan nahi dauz usoak
ta begietan muin dagitse.
Urretan datzan itsasoak
hego bako hegadun haizez
zugatzai murmur daragitse!
Ardi nausi, labitta pozez,
lorak dantzan txirula-hotsez!

---

[2] bideetan
[4] bitxidor: bidezidor
[15] muin dagitse: mun degioe; muin egiten deutse (die)
[18] murmur daragitse: murmur deragioe; murmur eragiten deutse (die)
[19] labitta: labrita, mastina

Artaldeak bee-beeka doaz
arrats leun honen bideetaz!

Ta artaldeen ordu honetan
baserri ertzeko landetan
artzain-maite diran neskatxak
pozkiro dagoz goruetan.
Noren kantea dan beretzat
jakin gura leuke bakotxak.
Esan zaharrak betoz ahorat
maite-begien ezaugarritzat!

Artaldeak bee-beeka doaz
arrats leun honen bideetaz!

Bideetako arrats garbian
bihotzak dagoz min bizian.
Neskatxak dinoen kantea
dardaraz galtzen da mendian.
Bere sakona nork ulertu!
Gentz betetan datza landea.
«Basoko artzainak ahakartu,
bertantxe gaztaiak agertu».

Artaldeak bee-beeka doaz
arrats leun honen bideetaz!

---

[38] gentz betetan: bake betean, bake osoan

[39] ahakartu: haserretu. RS-eko errefrau ezaguna: "Unaiok arri zitean, / gastâêok agir zitean. // Los Pastores riñieron, / los quesos parescieron" (RS 52)

# ABESLARI BATI

Eta arrats ha baizen samurrik
ez zan izan leiar meheetan!
Haren soin ederra langorik,
inoiz ez zan ahuldu laketan.

Irri ta dantzazale egoan
hatzak marfila baizen zuri.
Ta piano haren kolkoan
ehun txindor ebiltzan urduri.

Bidaldi luzerako deia
esku artean ebilkion.
Gauza argienganako lehia
ortzi zehar igesi jakon.

Bere Agur Miren zuria
Schubert-i ostu gura eutsan.
Esku hareen dardar bizia
izpi hotsa zan ler-ostrotzan.

Halan geratu zan isilik
kantarik leunena kantetan.
Eta arrats ha baizen samurrik
ez zan izan leiar meheetan!

---

[4] laketan: plazeretan
[12] zeruan zehar joan jakon igesi
[16] ler-ostrotzan: pinuen orri artean

# JOSTAILUA

Gauza orotzaz hitz dagin
ezpan gorridun andera.
Odol-larrosen antzera
zabaltzen dozan mosumin.

Heure hitz-jario horrekin
egunak jaukon gelkera!
Urre zahar don arrats behera
eta lerdio*r*i ereskin.

Nik, jaramon egiteka,
begizten haunat barreka
hodeiakaz amesetan.

Baina jarrai egin garden,
eresa baiton ederren
andera baten hitzetan.

---

[1] orotzaz: orotaz; guztiez
hitz dagin: hitz egiten don (*hika*)
[4] zabaltzen dozan: zabaltzen ditun (hika femen.)
[6] jaukon (*alok.*) gelkera: daukan. Jaukok (*orig.*), konturatzeke gorago noka diharduela. Harridurazkoetan, dena dela, *-n* atzizkidun adizkiak darabiltza. / gelkera: geldotasun, gelditasun
[8] lerdiori ereskin: pinudi hori melodia
[13] eres: musika

# ESPAINIARTXU BATENA

Apirileko goiz argian
azkar etorren Rui-Albar.
Garoz ziran landak zehar
jaun ederren zan zaldian.
Bide hau dagoan loratsu,
espainiartxu janzki gorri!

Gaimelur kolore bizi,
hitza lar labana dozu:
–Landan hagoan euskotarño,
usotxu bat don ortzian;
hator neurekin bidian
zaldi ganean, maiteño.

–Espainadiko espainiar,
zugatz puntan ene usoa.
Baso bidez azkar hoa,
kolore ederdun Rui-Albar–
Ondo entzunen hementxe
gazte haren berresana:

–Neure gaztelu gurena
litzaken heure jauretxe.
Zidar hutsezko janzkiak
emonen deuznat dotetzat.

---

7 gaimelur: oliba
10 don ortzian: jagon (zagon) zeruan
18 berresana: erantzuna
22 dauznat (*orig.*): deunazat, deunadaz (dizkinat)

Hamar neskame laguntzat;
argiz zaharrak, gau*e*z gazteak.

–Espainiar zaldun lerdena,
ez joat behar doterik.
Ezta jauregi ederrik.
Aski joat aitarena.
Hiru gizalan jaukodaz
larrosa gorri maiatz*e*an.

Ehun ardi zuri larrean,
ehun ardi euren labittaz.
–Baina mendarte honeetan
maitale onik ez daukon.
–Neure maitez mila gizon
kantaz jabiltzak landetan!

---

[29] jaukodaz (*alok.*) (zauzkaat): daukadaz (dauzkat)
[36] jabiltzak (*alok.*) (zabiltzak): dabiltza

# MENDIGOIZALEARENA

*Basaldua'tar Kepari*

**I**

Mendi heze, ikurrin eder,
aske nahi zaitut haizean.
Hamar gazteren lerdena
makila luzez bidean!

Mendi-bitxidor berdeok,
arin hor doaz kantari:
«Dana emon behar jako
maite dan askatasunari».

Eta isil dago arratsa
Euskadiko lur ganean.
Hamar gazteren lerdena
makila luzez bidean!

**II**

Gaztedi horren didarra
bai dala didar zolia!
Aberri baten saminez
urduri dabil herria.

Askatasun-goizalderuntz
sugarra dira basoak.
Sugarra basoak eta
zidar argia itsasoak.

---

[13] didar: deadar (deiadar)

Hor doan oste-aldrea
aberri-minez kantari:
«Dana emon behar jako
maite dan askatasunari».

**III**

Gazte horreek goruntz doaz
abesti eta ikurrinez.
Lainoan baina tiro hotsak:
bedartza dager odolez.

Ikaraz doaz usoak,
mendia dago isilean.
Hamar gazteren lerdena
bizitza barik lurrean!

Eta iluntziko bakean
norbaitek darrai kantari:
«Dana emon behar jako
maite dan askatasunari».

[27] baño (*orig.*), errata bat dirudi

# MUTXURDINA

Ardo zuri,
ardo gorri,
itunik jagokan mutxurdin
poztu egik zurrut batekin.

Euki neban, euki antzina
–ha zan ezkontsari panpina–
teila bako etxea.
Euririk ez zan egunetan
hantxe bai nebala topetan
egizko aterpea.
Haren nahiez heldu jatazan
senargai bi, biak konkorrak.
Ardanetxeko zorrak
halan kentzeko esperantzan!

Ardo zuri,
Ardo gorri,
itunik jagokan mutxurdin
poztu egik zurrut batekin.

Ardo gozoena edanik
zahato batekin nintzalarik,
–hilgo ahal da betiko!–
etorri jatan, behin, etorri,
mutil maingu, aurpegi-gorri,
nerekin ezkontzeko.

---

[3] jagokan (*alok.*): dagoen

Maitasun zin asko eginik
edan eustan zahato guztia.
Ene hordi txarria,
gero laga ninduan bakarrik!

Ardo zuri,
Ardo gorri,
itunik jagokan mutxurdin
poztu egik zurrut batekin.

Orain haukot eduki, zahatoa,
–gatz barik ene lapikoa–
samin danen pozgarri.
Hartu nagik heure maitetzat,
emongo haut ezkonsaritzat
laztan samurra sarri.
Goizean goiz ardanetxera
bete-bete egunez ahoan.
Ta gauez sutondoan
sorgin ipuinak kantatzera.

Ardo zuri,
Ardo gorri,
itunik jagokan mutxurdin
poztu egik zurrut batekin.

[38] Emongo haut: emongo deuat (diat). Adizki biak nahasi ditu: nor-nork (hinik) eta zer-nori-nork (hura-hiri-nik)

# OTSOKORENA

## I

Zidar uledun otsoko,
ibai hori dokan zabala!
Beste aldean bahengo
arkume heuke jan ahala.
Gose horrentzat bazkari
bildots zuriak jagozak
bedar hezean dantzari.
Mehetu egizak haginak!
Zidar uledun otsoko,
ibai hori dokan sakona!
Sakerak jaukon ontzito
ibairako dokan ona!

## II

–Sakera, saker lagunoʳi,
pagoa eder mendian;
baina hire taiu lerdenoʳi
ederrago dok ontzian.
–Neure otsoko potoko,
txoria eder hegazka:
ekar egistak usoko
ta iragoko haut arinka.
–Sakera, saker argia,
hiru egi izango dozak

---

[4] heukek (*orig.*): heuke, eukiko heuke
[11] sakera: txalupa zaina / jaukon (*alok.*): daukan

heure lan horren saria.
Higi egizak arraunak.

**III**

–Negua baino leunago
udea jabilk baratzan.
Urretxindor hori, hago
kanta-kantari zugatzan!
Ibai erdian batela,
hau zan bigarren egia:
–Inoiz ez joak upela
heure jarrai, mozkortia.
Beste aldea ikuturik
holan mintza zan otsoko:
–Lana badagik dubarik,
ez dok jango ogitan asko!

**IV**

Zidar uledun otsoko,
ibai hori dokan sakona!
Sakerak jaukon ontzito
ibairako dokan ona!
Otsoko eta sakera
alkarren jarki jabiltzak.
Ene artzain bildurbera,
bildots zuriak non dozak?
Tarranpatan-tan, tarra-pan,
–bare dok ibai zabala–
otsoko bajabilk dantzan,
arkuma jok, ba, jan ahala.

---

[28] zugatzan: zugatzean (zuhaitzean)
[31] joak (*alok.*) zoak: doa
[38] dok (*orig.*), baina lehenengo ahapaldian *dokan zabala*!
[42] jarki: aurka

# HONDARTZA

*(Bizitza honek itsasoa iduri)*

Uhinak jaurtiki bizitzara
bete baten itzartu nintzan!
Zein bidez noake leara?
Galdu naz, galdu, neure baitan!

Zador baten igeri nabil
sentiki, ez ikuski, ura.
Zabal hau begitzez ezin bil,
ta nerau naz horren bakura!

Gogoak zabal dauz begiak;
bakarrik ez nintzan uretan?
Hemen igeri ume guztiak;
beso-hoska bat dantzut uhinetan!

Soina gel, baina ez gogoa.
Ur-beheraldi hau nondik dator?
Azalez dan bake osoa!
Nora naro*a*k, beheraldi gogor?

Baina ez nadin ahuldu urean
gentza jagok, ba, itsas ganean.
Natzan lotan zabal neurgean,
heriotz-uhin hotzak naroan!

---

[3] lea: hondartza (*neol.*)
[5] zador: misterio
[7] begitza: begirada (*neol.*)
[8] bakura: muga (*neol.*)

# ITSAS ONDOKOENA

Itsas ertzeko maite-minak
zenbat itxaro-orduz eginak!

Kai argiak margoz beterik
ta ontziak dantzan uretan,
arraunak, hego ordez, zabalik.

Eme hazan itsas urdina!
itsastar horreen begietan
nork jarri jok arrisku-mina?

Usain ta edari bakanak
batzen dabez kai guztietan.
Muinentzat prest daukez ezpanak!

Itsas ertzeko maite-minak
zenbat itxaro-orduz eginak!

Portu aldeko gaztaroa
galzori danen seme zara
ta ibilkorra dozu gogoa!

Lurrera zatozan orduan
barriz zagoz uhinai begira.
Deiren bat dantzuzu barruan!

Horra hor berein zapi zuri!
Agur baten uso-dardara
euren gora-beherak iduri.

Itsas ertzeko maite-minak
zenbat itxaro-orduz eginak!

Hor badoaz urdin ganean

baina kaian dagoz maiteak
zapi zuriak hatz artean.

Alkarren zain egongo dira
itsaso ta lehorrekoak:
honeek ur, hareek lur begira!

Bitartean portu ertzetan
bakarrik andra eta umeak
zintzo iraungo dira lanetan.

Itsas ertzeko maite-minak
zenbat itxaro-orduz eginak!

[30] honeek urari, hareek lurrari begira
[33] iraungo dira: iraungo dabe

# ARDOA ETA ATSOA

Ardoa eta atsoa
biak dantza-dantzari
–Ai, geure lapikoa
ur barik erre-bizi!

Atsoak ardoari,
katua dala
suteko zinaldari:
–Ardo zargala,
zelan maite haudan nik!
Nirekin ezkontzeko
heldu hintzan Nabarratik.
Heldu hintzan Nabarratik
hainbat zango eginik.

Ardoa eta atsoa
biak dantza-dantzari
–Geure buzkantz gozoa
katuaren janari!

Ardoak atsoari,
sugarra dala
suteko zinaldari:
–Atso mamala,
beste senar bat don hik.
Heurekin dantzatzeko
ekar non ardetxetik.

---

[7] zinaldari: lekuko
[8] zargal: zahar
[20] sute: suete, sukalde

Ekar non ardetxetik
haren praken trukerik.

Ardoa eta atsoa
biak dantza-dantzari.
–Ene, bizar moltsoa
erre jako atsoari!

# UDABARRIKO AUTORKUNTZA

Din-dan, balendan,
elizako atetan
gizon bat dilindan.

–Zer egin dozu pekatu,
pagoen lagun bakarra?
–Otalore bat triskatu
eta samindu dot larra.

–Hori ez dozu pekatu.
Mendi-usainez eskuak
ezin daikezuz orbandu.
Zabalik dozuz zeruak!

Din-dan, balendan,
elizako atetan
gizon bat dilindan.

–Zer egin dozu pekatu.
izarren izpi zalea?
–Aho gorri bat laztandu,
haxe jatan, ba, maitea.

–Hori ez dozu pekatu.
Neskuts-usainez ezpanak
ezin daikezuz orbandu.
Zabalik dozuz zeruak!

Din-dan, balendan,
elizako atetan
gizon bat dilindan.

–Zer egin dozu pekatu,
piztien etsai ankerra?
–Ene emaztetxua urkatu,
hordia zan, ba, ta alperra.

–Hori, ez dozu pekatu.
Odol gorriaz eskuak
ezin daikezuz orbandu.
Zabalik dozuz zeruak.

Din-dan, balendan,
elizako atetan
gizon bat dilindan.

–Zer egin dozu pekatu,
zelai hezeko hanka-arin?
–Apez ardoa bukatu,
haxe baijatan atsegin.

–Hori da hori, pekatu!
Parkaeza dan hobenak
gogoa deutsu orbandu.
Eroan zagiz txerrenak![44]

Din-dan, balendan,
elizako atetan
gizon bat dilindan.

[44] Eroan zagiz txerrenak: eroan zagizala (zaitzala) deabruak

# ZELAIAN

Lora bila neskea
larrarantza doa.
Bera loretan lore,
lore gorengoa.
Ene maitea,
zelaiko galpidea!
Larratik itun dator,
itun, bai, neskea.

Minez dozu barrena,
negarrez bihotza.
Bihotz barruan dozu
arantza zorrotza.
Ene gaixoa,
ilun dozu gogoa!
Zeure matrail-lorea
zimelduaz doa.

Lore bila neskea
larrarantza doa.
Lora bila joatean
galdu dau gogoa.
Ene maitea,
zelaiko galpidea!
Loretan lore zanak
galdu dau berea.

# MAIATZEKO GURUTZEA

Maiatzeko Gurutz*e* donea,
baserrietan jaia zara.
Lora barriz hazan bidea
zuzendu nagik ermitara!

Maiatz-haizeo*r*i, geldi hago!
Loraz, eder, latzin guztia,
baina gazte dan ha areago.

Batan-usainez kutxan dauka,
kutxan dauka gona gorria.
Oi, atera egin lasterka!

Gona gorri, burzapi zuri,
zein lirain haznat iduri
alai habilnan neska barri!

Maiatzeko gurutz*e* donea,
baserrietan jaia zara.
Lora barriz hazan bidea
zuzendu nagik ermitara!

Onetsirik dagoz zelaiak:
soloz solo apeza ibilki
esan dauz ohi diran otoiak.

---

[1] Gurutz*e* donea: Santakurtze (jaiegunaren izena)
[5] maiatz-axio (*orig.*): maiatz-haizeori (singular hurbila)
[6] latzin: landa
[12] haznat: hazanat (hatxat-hatzait)
[13] habilnan: habilen
[18] onetsirik: bedeinkaturik

Baseleiz gorako bideak
tanbolin horrek zein ederki
pozten dauzan. Hots maitatiak!

Gaztaro, eder dan lorea,
heugaz jabilk mutil-kantea,
ta neskatxen dantzaketea.

Maiatzeko gurutz*e* donea,
baserrietan jaia zara.
Lora barriz hazan bidea
zuzendu nagik ermitara!

Senargaiok, arin mendira!
Maiatzeko Gurutz*e* deunetan
guztiak maitemintzen dira.

Hamasei jorraildun neskatxa,
–heg*o*ak dozan orkatiletan?–
Haize meheak deunan bekatxa!

Gona gorri, burzapi zuri,
maitasuna deutsan norbaiti?
Pozez habil dantza-dantzari!

Maiatzeko Gurutz*e* donea,
baserrietan jaia zara.
Lora barriz hazan bidea
zuzendu nagik ermitara!

---

[32] Gurutz deunetan: Santakurtzeetan
[36] deunan bekatxa: dinan bekaitza

# SINISTE BAKOARENA

Igande goiz hau landa gain dager
–hegal urdinak dardarka airean–
Zugazti, itzartu barri, bai eder!
Kanpai-hotsa zein garden haizean!

Gauza orok dauke Jainko betea;
arnas deunak muin deutse ninian.
Oi latzin zabal horren bakea,
neure otoi hau galdu bedi heugan!

«Sinismen neure begia zanean,
goiz honeek euken argi biguna!
Baina behin barna lainotu jatan,
eta inguruan dodan iluna!»

Hodei zuri bat –itzal baltzizkaz–
bedar heze gain bai samur dabil!
Muga leunenak aurkintzak daukaz
ta artotza han dago, ez hots, ez isil.

Barne ta kanpo Jainko aztarrak
baina hilda daukot fede dirdaia.
Soil maite dodaz latzin ta lerrak;
itsas urdinak dauken alaia.

Eta goiz garden honen bakean
barriz hots dagit, hau hots bizia!
«Barne hontan nork senti zeinkean
samin ta poza hazan begia!»

---

[23] senti zeinkean: senti zeinkezan (zintzakeen)

# HIRU ZALDUNAK

*Irisarri'tar Joseba Koldobikari*

Goiz hutsaren zubi zabalaz
hiru zaldun argitan doaz!

«Atsegina dok bizitz*a* muina»
esan eban zaldun zuriak.
Leiar landuzko ontzi meheo*r*i,
malko antza jaukok ardaoak!
Eta goiz-zubitik jaustean
ardoz busti euzan ezpanak!

Goiz hutsaren zubi zabalaz
hiru zaldun argitan doaz!

«Emea dok ludiko poza»,
zaldun gorriak esan eban.
Bere mosu leunen ederra
urre zaharra dan arrats mehean!
Ta usainez ezpanak eukozan
goiz-zubitik jausi zanean!

Goiz hutsaren zubi zabalaz
hiru zaldun argitan doaz!

«Aberria dok zorion hutsa»
zaldun berdeak hots egian.

---

[8] euzan: ebazan, zituen
[19] zorun (*orig.*)

Burnizko ezpaten dirdiraz
berein gizon ziran mendian.
Eta goiz-zubitik jaustean
aintzak muin eutsan bekokian!

Goiz hutsaren zubi zabalaz
hiru zaldun argitan doaz!

# BOLUTXU ZURIA

Bolu-bolutxu zuria,
–zamarien txilin-hotsa–.
Bolutxuko goiz argia,
errotarrien dunbotsa!

Andaparan ura dago
–zidar-litsa makal artez–.
Errotarime lirainoʳi
hain zuri zagoz urunez!
iri egizuz ateak
ura dabil, ba, lasterrez.

Bolu-bolutxu zuria,
–zamariak hemen dira–.
Bolutxuko goiz erdia,
zamaldunak hor begira.

Eiho bolu horrek, eiho,
–baratzan dabil haizea–.
Errotarime lerdenak
zangorriz dauko ulea.
Zidarrezko kiridunoʳi
arinka jabilk unea!

Bolu-bolutxu zuria,
–zamari-hotsak urrunan–.

---

[1] bolu: errota
[7] errotarime: errotari eme; errota-andra
[9] iri: ireki
[18] zangorri: geranio
[22] urrunan: urrunean

Bolutxuko iluntz argia,
izarrak dagoz urdinan.

Bolu-bolutxu, zer dozu?
Hegaz dabil arranoa.
Makal arteko bidexkaz
zerran igesi bikoa.
Zidar-litsa zein ñimiño,
bolua gelditzen doa!

Bolu-bolutxu zuria,
–horra hor izar dirdira–.
Bolutxuko gau argia,
zamaldunak galdu dira!

---

[24] urdinan: urdinean
[28] zerran: zamari gainean

# LANGILE ERAILDU BATI

## I

Ene Bizkaiko meatze gorri,
zauri zarie mendi hezean!
Aurpegi balzdun meatzario*r*i,
hator pikotxa lepo ganean.
Lepo ganean pikotx zorrotza
eguzki-diz-diz ta mendiz behera.
Hator bidexkaz, –goiza sorbaldan–,
kezko zerua jaukon olera.
Opor-hotsa dok txaide zabalan,
–ukabil sendo, soinanzki urdin–.
Jaubeak, barriz, nasai etzunda,
laguntzat hauke, hi, urrutizkin.
Aurpegi balzdun meatzario*r*i,
hari bitartez deiak jabiltzak.
Bidexkan zelan dir-dir jagiek
txapel-okerren kapela baltzak!
Horreek jaukoen gaizkin itxura,
zizpa luzeak lepo ganean!
Ene Bizkaiko meatze gorri,
zauri zarie mendi hezean!

---

[8] jaukan (*alok.*): daukan / olera: olara
[9] opor-hotsa: greba hotsa, / txaide zabalan: kale zabalean
[12] laguntzat hauke: laguntzat izango hau; / urrutizkin (*neol.*): telefono
[15] dir-dir jagiek (*alok.*) (zagitek): dir-dir egiten dabe (dute)
[17] jaukoen: daukien-daukaten (alok.)
[18] zizpa: eskopeta

## II

Mendiz behera lau txapel-okerrez
aurpegi balzdun meatzaria.
Begi baltz horreek sastakai dozak
baina zatitu ezin hesia.
Noruntz haroe esku lotuta
burni margodun gorputz gogorro*r*i?
Sendoa bahintz, etsai-odolez
bustiko heuke pikotx zorrotzo*r*i!
Nerbion ertzok, –tranbi dardara–,
askatu nahiez, zenbat ahalegin!
Baina olaen zarata artean
haren ai-hotsik aditu ezin!
Zizpa luzeak sutan jagozak,
–opor-zaratak txaide zabalan–.
Aurpegi balzdun meatzario*r*i
igeri hadi heure odol*e*an...!
Txapel okerrak edango jabek
ardao onena Gomez etxean.
Ene Bizkaiko meatze gorri,
zauri zarie mendi hezean!

---

[28] eunkek (*orig.*).
[31] olaen: olen, lantegien
[37] edango jabek: edango dabe (alok.)



# ARTZAIN BATEN HERIOTZEAN

**I**

Zidarrezko bost sastakai
nork jasan daikez aldean?
Zidarrezko bost sastakai
zeure hitzak dantzaldian.

Lapur-gaba baltz honetan
zaldi zurixka arin hoa.
Artzain: zer dok begietan?
Heriok ete haroa?

Espa urten jaken lerdiai;
ha zan espa gau baltzean!
Zidarrezko bost sastakai
nork jasan daikez aldean?

**II**

Urrun zara, urrun mendia,
borda hori urrunago!
Soil dator zaldi zuria:
zeure jaube hila non dago?

Arin zoaze ler barna
pagoen itzal baltzera!
Izarrok, bedartzak barna!
Artzainorak, lats artera!

---

[9] espa: auhen
[17] ler barna: pinuetan barrena, pinu artean
[20] artzainorak: artzain txakurrak. / lats artera: erreka artera

Zelan iretargi-izpiai
barre egien lur ganean!
Zidarrezko bost sastakai
nork jasan daikez aldean?

**III**

Zazpi arratsez ardiak
ekin eutsen negarrari.
Zazpi goizaldez tordantxak
ekin eutsen isilari.

Orok negar egin eutsen,
orok, neska batek ezik.
Ura joian negar baten,
lorak ziran zimeldurik.

Hilda zan arren, bai nasai,
zauririk ez haragian!
Zidarrezko bost sastakai
sakon eukozan ariman!

[26] ekin zioten
[27] tordantxa: kalandria

# ETXEKO ALABEA

*(Aita nuen saltzaile)*

**I**

Arrats-hautsak daukoz bideak!
Lau zaldun datoz Espainiatik
Mairu-herriko mairu baltzak
zidar eta urrez zamaturik.

Lau zaldi zuri, ugal gorri,
zidarrezko ahokoz bitsetan.
Arin-arin, haizea iduri,
hegoak daukez zangoetan.

Zidar eta urrez zamaturik
lau zaldun datoz Espainiatik.

**II**

Etxeko alaba liraina,
itxi eiozu dantzeari.
Txirula alai dabil, baina
eder zaiakoz mairuari.

Jantzi zadi gorantza gorriz
zaldi-hotsak dira landetan.
Zagoz lirain, aurpegi argiz,

---

[6] ahoko: ahoko uhala
[14] zaiakoz (zatzaizkio)
[15] zadi: zaitez; / gorantza: gerruntze – gonantza (*orig.*)

irrizko lorak ezpanetan.

Itxi eiozu dantzeari,
eder zaiakoz mairuari.

## III

–Neure alaba, ez negarrik,
ondo saldu zauguz dirutan.
Berrehun urre-dukat harturik
eta zazpi dupa eztitan!–.

Lau zaldi zuri, ugal gorri,
mairu-herrira zalu doaz.
–Txiribogin: ardoa neuri,
edontzi hau bete naparraz.

Berrehun urre-dukat harturik,
neure alabaori, ez negarrik!–.

---

[22] saldu zauguz: saldu zaitugu
[26] zalu: bizkor. Zailu (*orig.*)
[27] txiribogin: tabernari

# MAIATZEKO KANTEA

Landak zidar diran unean
gogai hau bajoat airean!

Lora-erditze leuna dauko
euri-maitale zan latzinak,
Eta irustatzak, apez antzo,
buruan daukez purpesentak.
Gari goiti eta arto musker
nork jariok hainbeste atzon?
Sasitzak eurak zein eder!
Baina gogai hau ezin egon!

Landak zidar diran unean
gogai hau bajoat airean.

Samurki dabiltzan haizeok
kantari dirautse bidean:
«Tori usainezko hegalok,
latsak laztandu dagizuzan».
Ta begizabal dan loreak:
«Hago beti neure maitale,
oraintxe dira maiatz-festak
ta abarrak dagoz txintazale».

Landak zidar diran unean
gogai hau bajoat airean!

---

[2] gogai: pentsamentu; / bajoat (badoakit)
[6] purpusentak: borlak
[8] nok jarijok (*alok.*) (zariok): nori dario (alok.) / atzon: perfume

Beretzat ez dago zugatzik
nahiz ta loren eztegu iduri.
Sagardi horrek zer dagik
ezkonbarri bat legez zuri?
Neure gogai hau hegaz doa
oihanok baino urrunago.
Nahikun bizi batek daroa
ta atxilotuko dauenik ez dago.

Landak zidar diran unean
gogai hau bajoat airean!

Baina zeure balkoi ondotik
dardar igarotzen danean
mahoak irri dagitse pozik.
Hegal-hotsak dabiltz airean!
Orduan bai geratzen dala
zauritu dan uso bat legez!
Maiatzeko elai apala
txirrika dabil zeure ederrez!

Landak zidar diran unean
gogai hau bajoat airean!

---

[29] nahikun: irrika
[35] mahoak irri dagitse: krabelinak irri egiten deutsie

# TXO MOZKORTUA

Itsastarren barre-zantzoak
txo harek edan baitaroak!
–Ez, ez egik edan pattarrik,
gorputz baltzizkadun umea!
Ilundu jak begiunea
eta ez dakuskek zerurik.
Hauxe samina,
janzki mehedun txo panpina
ta zut egon ezinik jagok!
Itsas otsook,
kendu horri pattar-laketa,
hara-honaka jabilk eta!
Dantza ta dantza, lotu barik,
izai zauritu bat jirudik.
Bere keinuak dozak lohiak!
Ontzi-gibelean kentzen jozak
alkondara ta praka urdinak.
Hauxe samina,
itsastarren barre-zantzoak
txo harek edan baitaroak!
Zer dok bare arrats oztina!
Eta soinutsik
urtzi eder baten antzera
begi biak lausoz beterik
jausi jakuk itsas barnera!

---

[2] edan daroak: edan jaroak (*alok.*), edaten dau
[6] ez dakuskek: ez dok ikusiko
[14] izai: albatros. / jirudik (*alok.*) (zirudik): dirudi
[16] ontziaren atzean

# TXIRIBOGINAREN ALABEA

## I

Txiribogin-alaba hori,
bai eder edontzi artean!
Gizonak dedaten unean
ezpanetan dozun barreirri!

Irri horrek ilundu daike
goizez argien dan eguna.
Ura balitz zeure ederkuna
inor, be, egarri ez litzake!

Baina askotxuk edan nahi zaitu
ta odol bihurtuko da ura.
Girinak dauken aizto-itxura
zeure irriak, ba, mehetzen ditu.

## II

Itzal balzdun hordi minduak
jokoan dabiltz mahai ganetan.
Gau ta egun daukoz kartetan
zeureganako maiteminak.

Ardoz ez, mozkorti, ederrez,
abesten dabez kanta lohiak.
Ta tinko ditxaro bakotxak
irri horreen jaube izan nahiez.

---

[1] txiribogin: tabernari
[3] dedaten: edaten daben (duten)
[7] ederkuna: edertasuna
[11] girinak: grinak
[19] ditxaro: itxaroten dau

Baina napar ardoa baino
tabernereak ez dau saltzen.
Mozkorti ez da inoiz egoten
berak barnean daukon maiteño.

## III

Norentzat baina ete dira
samin hutsa diran irriak?
Airean doaz edontziak!
Bizi dabil aizto-dirdira!

Zenbat neke-hots, zenbat oihu!
Lurrera jausten dira itzalak,
mozkortien itzal minduak.
Danak dagoz zauriz urratu!

Odol-litsa datza tabernan
maitasun-hoben bat iduri.
Tabernerea, barriz, leunki
irripar dago ontzi artean!

# BEGIEN OMENEZ

Galai-galaitxu,
–mertxikondoa dago loretsu–:
maite-min diran begi argiak
ez dabez behar zeure geziak.

Maitagar dabil kantari
–tinko urrezko uztaia–
pinpilinpauxen ehiztari.

Oi, hegadun haur itsua,
jaurti egizu dardaia,
irrien dardai sutsua!

Galai-galaitxu,
–bitxidor hori dago argitsu–:
maite-min diran begi argiak
ez dabez behar zeure geziak.

Ixil zagoze zugatzok,
haizeo*r*i habil leunkiro
nahaspildu barik ametsok!

Maitagar doa ehiztari:
baina neskatxak mehekiro
eragin deutso dardari.

Galai-galaitxu,
–oilar gorria dago harrotsu–:
maite-min diran begi argiak
ez dabez behar zeure geziak.

---

[5] Maitagar: Kupido

–Dardairik gabe neskutsa,
zauritu dozu, zauritu
Maitagar haurra*ren* gorputza.

Abestu alai txoriak!
Oi zelan diran ñirñirtu
neskatil*a* haren begiak!

Galai-galaitxu,
–baratz*a* osoa dago usaintsu–:
maite-min diran begi argiak
ez dabez behar zeure geziak.

[25] neskutsa: birjina

# AMAIUR GAZTELU BALTZA

(Y ese castillo de Maya
que el duque me lo tenía).

*Antzola'tar Joseba Mirenari, maitez*

**I**

Amaiur gaztelu baltz hori
–berrehun gudari oro sumin–
zaintzen zaituen zaldun onak
Naparra aldez egin dabe zin.

Iskilu gorriz zenbat gazte
bildur bako menditar lerden.
Eta horreek, Jatsu jaun horreek,
Jabier-eko zaldun guren.

Ikurrin bat –kate ta lili–
torre goitian zabal dago.
Bera salduko dauen semerik
mendi honetan ez da jaio.

Amaiurko atezain horrek,
zidar turutaz oihu egik.
Baztan ibarrean zenbat etsai,
arrotz gabe ez dago mendirik!

**II**

Hesiturik Amaiur dauko
Mirandako konde espainiarrak.
Horreek bai burnizko janzkiak,
ta urrezko ezpata-sagarrak!

Berekin dator, bai berekin,
Leringo eto horren semea.
Txakur txarrak jango ahal habe
herri bako zaldun dongea!

Goiko aldetik hasten dira,
hasten dira subaga-hotsez.
Horma kontretan zenbat zurgu,
eta gezi zorrotzak airez!

Baina torrean zabal dabil
ikurrin bat –kate ta lili–.
Nork zapaldu ete dagikez
berrehun gudari oro zoli?

## III

Amaiurko gaztelu baltza
–jausi jatzuz torre goitiak–.
Baina, arrotza, ez zadi geldu,
napar seme dira guztiak.

Harresi gorri, zubi hausi,
–zein gitxi diran zaldun horreek–.
Herio, samurño zakiez
aberri-min baitabiltz eurek.

Mirandako konde gaizto horrek,
jo egizuz zidar-turutak.
Ikurrin bat –kate ta lili–
ez dau laztanduko haizeak.

Berrehun gudari oso sumin
gaztelu pean dagoz hilik.
Ordutik hona, –zenbat laino–,
Naparroan ez da aberririk.

---

[22] eto: etoi, traidore
[27] subaga: kainoi
[28] zurgu: zurubi
[33] orok (orig.)
[36] ez zadi geldu: ez zaitez harritu

# ESPETXEKOAK



# AZKEN OIHUA

Zubillaga'tar Karlari

Goiz eder honetan erail behar nabe
txindor baten txintak gozotan naukela.
Hel naiten leihora begiok ihintz gabe.

Gorbei barna jatort kainoi-hots itzela:
hor hegazkin-hegak hodei-lapur doaz.
Guda-gotzon baltzak odolez dakustaz,
euren oin aurrean beredin gudari.
Gazte argi horreek, eutsi lur amari!
Bera baizen onik ez dauko ludiak.

Baina, Jaun ahaltsua, orain ken nahi nozu?
Bildots baten antzez lotuta naukozu
beharren nau*e*nean neure Aberriak?
Haren deia dantzut arma-hots larrian.

Iskilu-tarteko dirdira bizian
mendi goitietan Heriotz*a* betorkit.
Bertan eder dira azkenengo hatsak!
Arte adartsu babes-toki bekit,
neure gezi meheon heriotz*a*-zauria
txastau dagientzat etsaien erranak!

---

[4] jatort: datorkit
[7] beredin: berein, asko
[9] ludiak: munduak
[14] iskilu: arma
[19] txastau dagientzat: dastatu daien (dezaten)

Zuzentzaren maitez bil diran semeekin
isuri daidala bizitz*a*-iturria.
Lurra estal bedi odol-larrosa*re*kin!
Gozo eta eder gizonen kopetan
aberri-opazko heriotz*a* mosuak!
Zauritu horreek zut, horra mendietan
aintzak zabal ditu esku argituak
hortxe jausi nadin!
Eta azken orduan
laztandu naiela arnasa estuan
garaitz*a*-abar bila doazen zaldiak.
Eta begi honeen laino leiartuan
tinki igaro beitez gizuren argiak;

esku zurbil honeek ahul luzatu bediz
eutsi zagientzat, ikurrin donea.
Askatasun hatsak betiko bil zagiz!
Hantxe makur zaite, oi buru neurea,
geure lur amaren besarte gozoan!
Eta anai maiteok, eutsi burrukari
inoiz hilgo ez dan euskoen amari.
Itxaropen hauxe sort bekit gogoan.

Jauna, heriotz*a* hau arren emostazu;
koldarrentzat itxi larrosen usaina.
Askatasun deuna bial egistazu,
atzindu nahi dot ba arrotzen iraina,
gorputz honek bakez atseden dagian

---

[20] zuzentza: justizia
[30] leiartuan: kristalduan
[31] gizuren: heroi
[32] luzatu bediz: luzatu beitez (bitez)
[33] eutsi zagientzat: eutsi zagiezan (zaitzaten)
[34] bil zagiz: bil zaizala (zaitzala)
[42] bial egistazu: bial egidazu (iezadazu)

herri askatuen Egun Haundi*ra* arte!
Gudan jaus nadila zuzentzaren alde,
ez hormari atzez, goiz eder argian.
Eta bake deuna sortuko danean
neure hazur hutsak besteenakin batu;
eresi gurenaz lagundu bidean
hobi bakar*rera* arte.
Baina, arren, bukatu
oroigailuaren maitasun itzala
Kristoren gurutzaz; Beragan ditxarot.
Josuren fedea besterik ez daukot.

Herri zintzo onenak zaindu dagiala
hil gintzanen hatsa, hil gintzanen ahala.

---

[50] eresi gurenaz: musika santuagaz
[57] hil gintzanen ahala: hil ginenen indarra

# AGUR, EUSKADI!

Agur, Euskadi, Jaunak naroa
Aberri eder argira.
Neure negarrak jarion neuzan
zeure mendiai begira.

Seme bat zeukan, baina etsaiak
kendu eutsoen bihotza;
soin ederrera isuri jakon
maiatz bateko goiz hotza.

Gurutz Deunari mosu eginaz
aldegin eutsan mundutik,
Kristoren gentza aho ganean
loratu jakon gaztetik.

Jaunaren maitez, aberri maitez,
ez eban euki bildurrik,
eta zeuretzat zorion hutsa
opaldu eutsan gogotik.

Euskadi ona, zagoz betiko
Kristoren fede betean;
holan zoriona bilauko dozu
hemen ez bada zeruan.

Heriotz*a* deuna aurrean daukot,
sinistu bada, euskoa:

---

3 jarion neuzan: isuri nebazan
11 gentza: bakea
16 opaldu: eskaini
19 zoruna (orig.)

Euskadi aske izan daitean
zaindu Josuren legea.

Eder jatazan eusko bazterrak,
eder itsaso zabala;
baina oraintxe ederrago jat
heriotz*a* honen itzala!

Gaztea nozu bizitz*a* honetan
ta ez jatan falta gauzarik.
Jauna!, gogorra aldi honetan
iges e*g*itea lurretik.

Ez bedi egin neure oldea,
zeure nahia bai, ostera.
Gogoa boa zeru argira,
gorputza lur ilunera.

[33] oldea: borondatea
[35] boa: beioa (bihoa)

# EGUNA BEHERANTZ DOA

Neurekin gel zaite arrats-begi da ta:
itzal baten goxoz urdintzen da Jata.
Ene Josu maite,
gel zaite!

Neure egun argia beherantz azkar doa,
itzalak jotzen dau atadi ondoa.
Arrats honen hotza,
bihotza!

Oi, Bidazti Deuna, sar zaite neurera,
bertan dozu bada maitasun harrera.
Bekidat bizitza
zeure hitza.

Idazti Doneak azaldu daidazuz,
euren muin eztiak emon egistazuz.
Bel zeure mintzoa,
goxoa!

Ta barne guztia berotan dodala
argi bihur bekit heriotz*a* itzala.
Dana jat atsegin
Zeurekin.

---

6 atadi: atari
11 bekidat: bekit
14 emon egistazuz: emon egidazuz (iezazkidazu)
15 bel (*aran.*): hel bedi

Orain sakon dakust zeure heriotz*a* hori;
zergaitik daukozun bihotz deuna gori.
Ene Josu maite,
gel zaite!

# ATETAN NAGO

—Goizero zagoz nere atetan;
oi hots goxoa bihotz muinetan!
Hiretzat ditu Jainkoak
goiz neskatxaren usoak?

Egunsentia baino lehenago
nere txaki hau dirdiraz dago.
Norbaiten begi-niniak
antz hartzen ditu argiak.

Baina hots mehea, zer nahi didazu?
—Ixil, enetxo, Jauna nazazu.
Adats ederrok ihintzetan,
maite-min nabil atetan.

Lotan zinala zure ortuan
belar ta zugatz busti nituan.
Ikusi euren ederra,
zurez dute, ba, eskerra.

—Zut nadin, Jauna, didar goxora
eta zut nago*a*n zure mintzora!
Ostro-tartez, ixil-ixil,
zure hats xamurra bebil.

Betarte horreen bake argira
ibar ta landa edertu dira.

---

6 txaki: gela
10 nazazu: nauzu
18 nagon: egon naiten (nadin)
20 bebil: ibil bedi

Oin garbi horreen urratsak
joranez ditu loratzak.

—Enetxo, zabal zure atea
ta izanen dezu eder betea.
Landan baino garbiago
eder hau barnetan dago.

—Sar zaite, Jauna, etxe-barnera,
poza dator, ba, Zugaz batera.
Eta zure Arnas deunak
bete begiz bihotz-muinak

[24] joranez: grinaz
[32] bete begiz: bete bitza

# BIHOTZ DONEA

Bihotz xamur berea,
gar gori batekin zauritzen nozu.
Zauri ganean, ordea,
maitasun larrosa zabaltzen dozu.
Sakon bitan nabil, ezbai gozo;
hotzak hil naroa Zugandik urrun,
su gordinak nauka zure ondoan
Gauez argi zakusat,
egunez, berriz, ilun.
Zeurekin naukazu, neugaz ez zaukat.
Eguzkitan edur, hotzetan sugar.
Jolas bikoitz honek galduta nakar.
Baina bien tartean
sugar zakit, Jauna bihotz barnean!

# HIZTEGIA

Abao: (B) abaraska
Abenda: (neol.) arraza
Aiher: (g. e.) gorroto
Aiherla: mendekari
Aiots: (Lizarraga Elkanoko) auhen
Aizun: (neol..) izun, faltsu
Ahakartu: (BN) haserretu
Alatz: (neol.) mirari
Anei: (neol.) mila
Antzikur: (neol.) ispilu
Argizkorri: (ipar.) argi-azkorri, goizargi
Argontzi: argiontzi, lanpara
Artzainor: artzain txakur
Asele: (neol.) elezahar
Askespen: (neol.) absoluzio
Atzindu: (neol.) ezabatu
Atzitu: harrapatu
Atzon: (GN) perfume
Azkon: (SP, Lar., H) gezi
Aztar: aztarna
Bakalgai: (neol.) printze
Bakaltsein: (neol.) erregearen zerbitzari
Bakuntasun: xalotasun
Bakura: (L) muga
Basatxauno: (neol.) baseliza
Begitza: (GN) begirada
Begizkun: (neol.) begirada
Berein: (B) asko
Berresan: erantzun
Betestu: begietsi
Bitxidor: bidezidor
Bolu: (B) errota
Burdinori: (neol.) brontze
Donetsi: (neol.) bedeinkatu
Donge: gaizto
Dukeme: (neol.) dukesa
Eden: pozoi
Ederkun: (neol.) edertasun
Emoi: emai (emari), opari
Eralgi: (B) xahutu
Erasia: murmur
Eres: eresi, musika
Ereskin: (neol.) melodia
Erladi: erle multzo
Erroma/Julenetxu: Romeo/Julieta
Errotarime: (neol.) errotari andre
Erruge: errugabe
Esker: grazia
Espa: auhen
Eto: etoi, traidore

Euskotarño: euskal emakume
Ezpata-sagar: ezpata kirten
Gaimelur: (neol.) oliba
Garbaizko: damuzko
Garbal: (N) bikain, lerden
Garil: garagarril, (Lauaxetarentzat bagil)
Gedar : (B) deiadar
Geldu: (neol.) harritu
Gelgai: gelgarri, harrigarri
Gelgarri: (neol.) harrigarri
Gelkera: (neol.) astirotasun
Gentz: (neol.) bake
Gingil: girgil, dindil
Gizalan: (neurri bat) gizalur
Gogai: pentsamendu
Gogaiki: ideal
Gonantza: gorantza, gerruntze
Gotilun: triste, tristura
Gotzon: (neol.) aingeru
Gozartu: (neol.) gozatu
Goznar: (neol.) hausnar
Guren: 1. noble 2. santu 3. nahi 4. muga
Harlabal: (?) harlauza
Haron: hara eta hona
Harroin: (SP, EZ, H) zutabe
Hautsitu: haustu
Hirotasun: (ipar.) ustelkeria
Hogendi: (neol.) bekatari
Hozko: freskotasun
Ibildeun: (neol.) prozesio
Idustun: (neol.) iduneko
Igali: fruitu
Igazi: igaro
Ikurkor: (neol.) sinbolo
Ikuspen: irudipen, begitazio
Ilazkara: Ilazki edo ilargiaren argira
Iradu izan: presaka ibili
Irarri: (neol.) inprimatu
Iratu: (Añ., A) pozoitu
Irauki: iraun
Iretargi: ilargi
Iri: ireki
Irustatza: irusta sail
Izai: (neol.) albatros
Izontzi: itsasontzi
Iskilu: arma
Izlapur: itsaslapur
Jadetsi: lortu
Jarki: aurka
Jaungo: (neol.) Jainko
Jauntza: jabetza
Jaupontzi: (neol.) sagrario
Jauzka: jauzika
Joale: kanpai, joare
Joran: (B) grina
Kanpa: kanpai
Kedatz: (neol.) intsentsu
Ke-hats: ke
Labaki: luberri
Labitt: (Z) mastin, labrit
Laket: *iz.* plazer
Lakio: (B) lakirio, segada
Lats. (Ipar.) erreka
Latzin: (B) landa, lantzar
Laualde: ordoki, lautada
Lausoro: irin hauts
Lea: (neol.) hondartza
Lehi: lehia, irrika
Leka: begi, kimu

Lepalpen: (neol.) ardura
Ler: (Z, R) pinu
Lerdi: pinudi
Lor: atsekabe, neke
Lipar: une
Lits: zerrenda
Loki: (neol.) soka
Loragu: lorategi
Loratza: lore pilo
Lorail: maiatz
Ludi: (neol.) mundu
Lugin: (B) nekazari
Lun: (neol.) lehoi
Ma egin: musu egin
Maho: (Z) krabelin
Maitagar: Kupido
Men: behar
Milazka: tamarindo
Mukur: (B) enbor
Muna: muino
Murko: pitxar
Murrika: iseka
Musker: berde
Mustau: dastatu
Nabarizko: harridurazko
Nahikun: irrika
Naro: lasaiki
Neskuts: (neol.) birjina
Neurge: mugagabe
Ñori: tori (noka)
Ohatu: jo, menderatu
Oindi: (neol.) aldare
Olde: indar, kemen
Oldozkor: pentsakor
Oldozkun: pentsamendu
Onespen: bedeinkapen
Onetsi: bedeinkatu
Onoimen: bertute
Opa: desio
Opor: greba
Oroi: oroitzapen
Ortzargi. ostargi
Ortzi: zeru
Osertz: zeruertz, hodeiertz
Oztin: (neol.) urdin
Panpin: eder
Pinpin: pinpirin
Pioneer: aitzindari
Pipil: kapulu
Pozge (pozke): pozgabe
Purpesenta: borla
Saker: (ipar.) txalupazain
Sastakai: puñal
Sein: ume
Soinanzki: jantzi
Subaga: suhaga, (zabalkuntzaz) kainoi
Tantada: tanta
Tolesge: tolesgabe
Tordantxa. (GN) kalandria
Toto: txakurtxo
Txadon: (neol.) eliza
Txaide: (neol.) kale
Txaki: (neol.) gela
Txakurdi: (neol.) txakur talde
Txastau: dastatu
Txauno: (neol.) kapera
Txauno-bidazti: (neol.) erromes
Txindi: (neol.) diru
Txinta: txorien kantu
Txiribogin: tabernari
Txirrita: tximeleta

Udalehen: udaberri
Urbel: urtegi
Urlo: urmael
Urrutizkin: (neol.) telefono
Urtzi: Jainko
Urtziki: jainkozko
Uskurtza: (neolog.) erlijio
Ustege: ustegabe
Usuil: ur-suil
Xahutu: garbitu
Zabal: ordoki
Zador: (B) misterio
Zale: *iz*. irrika
Zalu: (ipar.) arin

SUTONDOAN SORTA

1. Ebaristo Bustintza Kirikiño: *Egunekoa*
   Aukeraketa eta hitzaurrea: Xabier Perea
   Aurkezlan eta moldakuntza: Jesus Mª Agirre

2. Jose Manuel Etxeita: *Josetxo*
   Moldakuntza eta sarrera: Adolfo Arejita

3. Estepan Urkiaga Lauaxeta: *Azalpenak*
   Aukeraketa eta hitzaurrea: Jon Kortazar

4. G.C. della Croce – Bernardo Mª Garro Otxolua: *Bertolda eta Bertoldin*
   Aurkezlana eta moldakuntza: Adolfo Arejita

5. Eusebio Erkiaga: *Jaioko dira*
   Sarrera: Lino Akesolo

6. Ebaristo Bustintza Kirikiño: *Edo geuk edo iñok ez. Euskerearen alde*
   Sarrera eta hautapena: Xabier Perea
   Moldakuntza: Xabier Perea, Adolfo Arejita

7. Mikel Zarate: *Ipuin antzeko alegi mingotsak*
   Aurkezlana: Igone Etxebarria

8. Eusebio Erkiaga: *Batetik bestera*
   Moldakuntza eta aurkezlana: Iñaki Sarriugarte

9. Txomin Agirre: *Auñemendiko lorea*
   Moldakuntza eta sarrera: Rosa Mari Arano

10. Txomin Agirre: *Kresala*
    Moldakuntza eta sarrera: Mirari Alberdi eta Jon Arretxe

11. Jose Manuel Etxeita: *Jaioterri maitia*
    Aurkezlana eta moldakuntza: Iñaki Sarriugarte

12. Eusebio Erkiaga: *Txurio Txoria*
    Aurkezlana: Igone Etxebarria

13. Txomin Agirre: *Garoa*
Moldakuntza eta sarrera: Bingen Zupiria

14. Resurrección Mª Azkue: *Latsibi*
Moldakuntza eta sarrerak: Mirari Alberdi eta Karmele Olano
Adolfo Arejita eta Luis Villasanteren hitzaurreak

15. Jean Barbier – Bernardo Mª Garro Otxolua: *Ixtorio-Mixterio. Ipuin-Mipuinak*
Sarrera eta moldakuntza: Igone Etxebarria

16. Ebaristo Bustintza Kirikiño: *Guda Nagusia (1914-1918)*
Testu-aukeraketa eta sarrera: Xabier Perea

17. Jose Antonio Oar-Arteta: *Zaar-Barri*
Sarrera: Segundo Oar-Arteta

18. Xabier Goitia: *Eusko umeak atzerrian*
Eratzailea: Jaime Kerexeta

19. Eusebio Erkiaga: *Arranegi*
Sarrera eta moldakuntza: Iñaki Sarriugarte

20. Sorne Unzueta Utarsus: *Idazlan guztiak*
Testu-aukeraketa: Igone Etxebarria

21. Ipolito Larrakoetxea Legoaldi: *Grimm anaien berrogeita hamar ume ipuin*
Sarrera, oharrak eta moldaketa: Miren Atutxa

22. Eusebio Erkiaga: *Berbalauaren kulunkan (Prosa lanak) I*
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia

23. Eusebio Erkiaga: *Berbalauaren kulunkan (Prosa lanak) II*
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia

24. José Basterretxea Oskillaso: *Euskaldunak Madrilen*
Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita

25. Karmelo Etxenagusia, Gotzaina: *Euskerea nire bizitzan*
Testuaren ardura: Igone Etxebarria

26. Jean Hiriart-Urruti: *Ni kazeta-egilea naiz. Artikulu, berri, istorio*
Sarrera eta edizioa: Xabier Altzibar

27. Mikel Zarate: *Haurgintza minetan*
Sarrera: Jesus Etxezarraga

28. Domingo Agirre: *Kresala*
Sarrera: Sebastián García Trujillo

29. Xipri Arbelbide: *Zoriona. 31 eta esku*

30. Ebaristo Bustintza Kirikiño: Abarrak
Sarrera eta edizinoa: Miren Atutxa

31. Gorgonio Renteria: *Izartu euskaldunak! Elantxobetar baten olerkiak eta artikuluak*
Biltzailea: Jule Renteria
Sarrera eta edizinoa: Igone Etxebarria

32. Ebaristo Bustintza Kirikiño: *Aberriaren alde. Artikulu politikoak*
Testu-aukeraketa: Javier Perea
Sarrera: Cesar Gallastegi
Edizinoa: Igone Etxebarria

33. Estepan Urkiaga Lauaxeta: *Gure aberriaren elea. Kazetari-lanak*
Sarrera eta testu-aukeraketa: Xabier Altzibar
Edizinoa: Igone Etxebarria

34. Balentin Berrio-Otxoa Santua: *Neure amatxo maitia. Euskerazko gutunak*
Sarrera: Roman Berriozabal
Hizkera-azterketa: Adolfo Arejita

35. Eusebio Erkiaga: *Goizean eta arratsean. Eskubete neurtitz • 1*
Sarrera: Igone Etxebarria

36. Eusebio Erkiaga: *Goizean eta arratsean. Eskubete neurtitz • 2*
Sarrera: Igone Etxebarria

37. Bitoriano Gandiaga: Hitz lauz idazten
Sarrera eta edizinoa: Iñaki Sarriugarte Irigoien

38. José Basterretxea Oskillaso: *Kurloiak. Mutiko kaletarrak Bizkaian*
Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita

39. Ebaristo Bustintza Kirikiño: *Bizkaia begietan (1913-1928)*
Testu-aukeraketa: Javier Perea
Sarrera eta edizinoa: Miren Atutxa

40. Angel Ugarteburu Meabebasterretxea: *Milloitik mundura. Ume-denporako oihartzunak*
Sarrera: Juan Luis Goikoetxea

41. Georges Simenon: *Aspaldiko Maigret*
Itzulpena: Eusebio Erkiaga
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia

42. Felix Bilbao: *Ipuin-barreka*
Sarrerea: Adolfo Arejita
Edizinoa: Nagore Etxebarria

43. Errose Bustintza Mañariko: *Ipuinik ipuin Mañarian gora*
Sarrerea: Jabier Kalzakorta
Edizinoa: Nagore Etxebarria

44. Juan Bizente Gallastegi: *Tontorretik begira Abade baten oroipenak*
Sarrera: Adolfo Arejita

45. Pablo Zamarripa: *Firi-firi. Ipuin eta nahaste*
Sarrerea: Adolfo Arejita
Edizinoa: Nagore Etxebarria, Maribi Egia

46. Esteban Urkiaga *Lauaxeta*: *Ludi honen bestaldez. Olerkiak*
Sarrera eta edizioa: Antton Mari Aldekoa-Otalora Zamalloa; Adolfo Arejita Oñarte-etxebarria; Xabier Boveda Garai; Alberto Errazti Igartua; Sebastian Gartzia Trujillo